



GURASO IZAN NAHI DUGU?

Iritziak eta ikuspegiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

GURASO IZAN NAHI DUGU?

Iritziak eta ikuspegiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaldia 1.a, 2025eko maiatza

Ale-kopurua: 60 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Bienestar, Juventud y Reto demográfico

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

Azala:

Gurennet Teknologia S.L.

Inprimatzea:

Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

ISBN: 978-84-457-3827-6

Lege-Gordailua: LG G 221-2025



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, lizentzia honetan argitaratu dira:

Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0
Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

Aurkibidea

Sarrera	5
Metodologia	7
1. Gurasotasunari buruzko hainbat ideiarekin izandako adostasun-maila	9
2. Amatasunaren eta aitatasunaren esperientzia pertsonala	14
3. Amatasunaren eta aitatasunaren inguruko kezkak seme-alabarik ez duten pertsonen artean..	20
4. Seme-alabak izateko nahia eta ematen zaion garrantzia	27
4.1. Seme-alabarik ez duten 25-39 urteko pertsonen banaketa, guraso izateko nahiaren arabera.....	27
4.2. Seme-alabak izateari emandako garrantzia	29
4.3. Iritzia aldatu ahal izatea seme-alabarik izan nahi ez dutenen artean	31
5. Seme-alabarik eduki nahi ez izateko arrazoiak.....	35
5.1. Seme-alabarik ez izateko erabakian hainbat arrazoik duten pisua	35
5.2. Seme-alabak izateko asmoa kenarazi dezaketen alderdi batzuk	41
5.3. Ama izan ondoren bikotean izaten den rolen banaketari buruzko ideien eragina emakumeek seme-alabak izateko duten nahian	43
6. Seme-alabak eduki nahi izateko motibazioak	46
6.1. Hainbat arrazoiaren pisua seme-alabak izateko erabakian	46
6.2. Seme-alabak izateko nahia bultzatzen dezaketen egoerak	53
7. Seme-alaben kopuruari eta ama edo aita izateko adinari buruzko aurreikuspenak.....	57
7.1. Seme-alaben kopuruari buruzko aurreikuspenak	57
7.2. Lehen seme-alaba izango duten adinari buruzko aurreikuspenak.....	62
7.3. Nahi baino seme-alaba gutxiago edota nahi baino beranduago izateko arrazoiak	64
8. Ama edo aita izateko gehieneko adina.....	70
9. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko iritziak	74
10. Inkestatutako pertsonen mahai gainean jarri dituzte beste gai batzuk	80
Ondorioak.....	82
Eranskina: Galdera-sorta	84

Sarrera

Azken urteotan, Europa osoan nabarmen jaitsi da jaiotza-tasa. Euskadin, zehazki, 1.000 biztanleko 6,1 haur jaio ziren 2023an. Zifra absolutuetan (Eustaten Jaiotzen Estatistikaren arabera) 13.453 jaiotza izan ziren guztira, eta hamar urte lehenago, 2013an, 19.118 erregistratu ziren, prozesuaren abiadura handia agerian utziz.

Jaiotza-tasaren jaitsiera hori hainbat faktoreekin lotuta dago. Alde batetik, atzeratu egin da amek lehen semea edo alaba izaten duten batez besteko adina. Mendebaldeko demografia garaikidearen ezaugarri nabarmena bihurtu den fenomeno honek bizimoduetan, lehenetasun pertsonaletan eta baldintza sozial eta ekonomikoetan izandako aldaketa nabarmenak islatzen ditu. Euskadin, adibidez, Eustaten Jaiotzen Estatistika berriro iturritzat hartuta, 2023an, emakumeek, batez beste, 32,4 urte zituzten lehen seme-alaba erditu zutenean; 2000. urtean 30,6 urte zituzten, 1990. urtean 27,95 eta 1980. urtean 25,45 urte.

Ama izateko batez besteko adinaren atzerapen hori jaiotza-tasaren jaitsierari ere eragiten dioten hainbat faktoreren ondorioa da. Faktore horien artean, hauek nabarmentzen dira, besteak beste: metodo antikonzeptiboen orokortzea, goi-mailako hezkuntzara heltzea, emakumeen garapen profesionala, laneko prekarietatea eta segurtasunik eza, zailtasun ekonomikoak, etxebizitzaren merkatuaren egoera, hainbat aldaketa gizarte-balioetan, bizimoduan edo genero-roletan, besteak beste.

Jaiotza-tasaren beherakadan erabakigarria den beste faktore bat biztanleriaren zahartzea bera da. Euskadik, Europako eskualde askok bezala, desoreka demografikoa du. Adineko pertsona asko dago eta adin emankorreetan dauden emakumeen kopurua ez da emakume guztien erdira iristen (2024ko urtarrilaren 1ean, Eustaten Biztanleen Udal Estatistikaren arabera, Euskadiko emakume guztien % 38,2 bakarrik zegoen adin emankorrean, hau da, 15-49 urte zituen). Horrek jaiotza-tasa txikiagoa izatea dakar, eta, beraz, biztanleria zahartuagorako joera bizkortzen du.

Jaiotza-tasaren beherakadak garrantzi handiko ondorio demografiko, sozial eta ekonomikoak ditu, eta ondorioak bizitzaren hainbat alderditan nabaritzen hasi gara. Hazkunde demografikoari eta biztanleria-egiturari eragiten die, 65 urtetik gorako pertsonak gehiago baitira 20 urtetik beherakoak baino (Eustaten Biztanleen Udal Estatistikarekin jarraituz, 2024ko urtarrilaren 1ean, Euskadiko biztanleriaren % 24,0k 65 urte edo gehiago zituen, eta 20 urtetik beherakoak, aldiz, % 17,7 ziren). Horrek esan nahi du mendekotasuna duten pertsona gehiago daudela. Pertsona horiek zerbitzu publiko gehiago behar izaten dituzte, eta horrek gastu publikoa birbanatzea dakar, pentsioen, osasun-zerbitzuen eta zaintza-zerbitzuen partidak handitu behar baitira. Gainera, lan-merkatuan sartzen diren gazte gutxi egoteak, batez ere eremu batzuetan, eragina du Euskadiko produktibitatean, hazkunde ekonomikoan eta gizarte-berrikuntzan.

Laburbilduz, jaiotza-tasaren beherakada fenomeno konplexua da, eta ez da irtenbide azkarrekin konponduko. Ikuspegi integrala behar du, baldintza ekonomikoei ez ezik, baldintza kultural eta sozialei ere helduko diena. Ildo horretan, konpromiso kolektiboa behar da familia bat osatzeko erabakiaren aldeko ingurunea sortzeko, eta, aldi berean, genero-berdintasun handiagoa sustatu behar da eta lan-egiturak familien errealtateetara egokitu behar dira.

Eusko Jaurlaritza neurriak hartzen hasi da jaiotza-tasaren beherakada hori geldiarazteko. Familientzako pizgarri ekonomikoak ezarri ditu, hala nola jaiotzagatiko subsidioak eta seme-alabak

hazteko laguntzak, eta, gainera, lana eta familia uztartzea errazteko neurriak bultzatu ditu. Ikusi beharko da neurri horiek eragina duten jaiotza-tasan.

Azterlan honen bidez, Euskadiko 25-39 urteko pertsonen motibazioak, nahiak, kezkak, zailtasunak eta iritziak ezagutu eta aztertu nahi dira, amatasunaren eta aitatasunaren inguruan duten esperientziari edo aurreikuspenei dagokienez. Helburua ez da 25 eta 39 urte bitarteko zenbat pertsonak dituzten seme-alabak kuantifikatzea, baizik eta seme-alabak izateko edo ez izateko motibazioak eta amatasunari eta aitatasunari buruz dituzten ideiak (aurrez pentsatutakoak edo esperientzian oinarritutakoak) aztertzea. Azterlana, atal metodologikoan zehazten den bezala, 2024ko azarotik abendura adin-tarte horretako 2.323 pertsonari egindako inkesta batean oinarritzen da.

Metodologia

Azterlan hau Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko 25 eta 39 urte bitarteko pertsonen 2024ko azaroaren 11tik abenduaren 17ra bitartean egin dizkien inkestetan oinarritzen da.

Horretarako, galdera-sorta egituratu eta itxi bat erabili dugu galdera gehienetan, baina galdera ireki batzuk sartu ditugu, galdetutako pertsonen egokitzat jotzen zituzten iruzkinak askatasun osoz sar zitzaten.

Erabilitako inkesta-teknika kanal anitzekoa izan da: 1.496 inkesta online osatu dira, norberak betez, eta 827 telefono bidezko elkarrizketa lagunduaren bidez. Guztira, 2.323 inkesta osatu dira.

- Osatu diren inkesten lurralde-banaketa honako hau izan da: 462 inkesta Araban bizi diren pertsonen egin zaizkie, 1.048 inkesta Bizkaian bizi direnei, 682 inkesta Gipuzkoan bizi direnei eta 131 inkesta gaur egun Euskaditik kanpo bizi diren pertsonen.
- Sexuaren arabera banaketak erakusten du inkestari erantzun diotela 1.509 emakumek, 802 gizonen eta 12 pertsona ez dutenak beren burua emakume edo gizon gisa identifikatu.
- Inkestak honela banatu dira adin-taldearen arabera: 949 inkesta 25-29 urteko gazteen artean, 746 inkesta 30-34 urtekoen artean eta 628 inkesta 35-39 urtekoen artean.

Inkesten banaketa ez da guztiz proportzionala (baina kolektibo bakoitzean behar adina gazte izateko planifikatu dugu). Ondoren, datuak sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera biztanleriaren banaketa errealean arabera haztatu ditugu.

Lagin-errorea $\pm$ % 2,0koa da lagin osorako, % 95,5eko konfiantza-mailarekin eta lagina guztiz ausazkoa izatearen hipotesi teorikoa oinarri hartuta ($p = q = 0,5$).

Ikerketa diseinatzea, datuak aztertzea eta txosten hau idaztea Gazteen Euskal Behatokiak egin du.

Ingartek Consulting S.L. enpresak landa-lana egin, datuak grabatu eta datu-basea sortu du (galdera irekien literalak eta haztapan-aldagaia barne).

Arestian aipatutako sexuaren, adin-taldearen eta bizilekuaren arabera banaketaz gain (datuen haztapanaren bidez doitu duguna, adin horretako Euskadiko biztanleriaren benetako banaketarekin bat etor dadin), inkestatutako pertsonen ezaugarri hauek dituzte:

- Jatorria: % 80,3 Euskadin jaio da, % 4,4 Espainiako beste autonomia erkidego batean eta % 15,2 atzerrian (gehienak, guztizkoaren % 10,7, Latinoamerikan).
- Ikasketa-maila: % 80,7k goi-mailako ikasketak amaitu ditu edo egiten ari da (unibertsitatekoak zein profesionalak).
- Zeregin nagusia: % 85,5 lanean ari da, % 5,6 ikasten ari da (nahiz eta % 2,8k lan gehigarriaren bat duen), beste % 5,6 langabezian dago eta % 3,4 beste egoera batean (etxeke edo zaintza-lanak egiten ditu, etab.).
- Emantzipazioa: inkestatutako pertsonen % 68,4 emantzipatuta dago, bere diru-sarreretatik bizi da; % 1,6 ez da jatorrizko familiarekin bizi, baina bai haren mende dago ekonomikoki; % 26,0 jatorrizko familiarekin bizi da; eta % 4,0 beste egoera batean dago.

- Bikote-bizikidetza: inkesta erantzun duten pertsonen % 51,0 bikotekidearekin bizi dira emantzipatuta, % 17,4 emantzipatuta daude, baina ez dira bikotekidearekin bizi, eta gainerako % 31,6 ez daude emantzipatuta.
- Bikote-mota: bikotekidearekin bizi diren pertsonen % 94,0k bikote heterosexualak osatzen dituzte, % 5,2k bikote homosexualak osatzen dituzte eta % 0,7k diote bikotekideren batek edo biek ez-bitartzat jotzen dutela bere burua.
- Baliabide ekonomikoak: inkestatutako pertsonen % 77,1 beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi da, % 12,9 beren diru-sarreretatik eta jatorrizko familiakoetatik. % 8,6 batez ere jatorrizko familiaren diru-sarreretatik bizi da, eta gainerako % 1,5 beste egoera batean dago.
- Seme-alabak edukitzea: inkestatutako pertsonen % 66,5ek ez du seme-alabarik, % 15,8k seme edo alaba bat du, % 12,7k bi eta % 3,8k hiru edo lau seme-alaba; laginean ez dago inor bost seme-alaba edo gehiago dituenik. Gainera, % 1,1 lehen semearen edo alabaren zain dago. Seme-alabaren bat duten pertsonak (edo lehen semearen edo alabaren zain daudenak) batzen baditugu eta haien profila seme-alabarik ez duten pertsonen profilarekin alderatzen badugu, alde nabarmenak daudela ikusiko dugu:
 - Seme-alabak dituzten pertsonen umerik ez dutenek baino batez besteko adin altuagoa dute (35,4 urte). Kolektibo horretan emakumeen presentzia handiagoa da adin horretako pertsona guztietan baino. Atzerrian jaioakoen, emantzipatuen eta bikotekidearekin bizi direnen presentzia ere handiagoa da.
 - Seme-alabarik ez duten pertsonen artean, batez besteko adina baxuagoa da (30,2 urte), gizonen proportzioa handiagoa da adin horretako pertsonen guztizkoan baino, atzerrian jaioakoen biztanleriak pisu txikiagoa du, emantzipatutako pertsonen proportzioa txikiagoa da (oraindik gehiengo osatzen badute ere) eta, ondorioz, gutxiago dira bikotekidearekin bizi direnak.

1. Gurasotasunari buruzko hainbat ideiarekin izandako adostasun-maila

Badira ideia batzuk, gure gizartean nahiko zabaltzen direnak, edo, gutxienez, neurri batean entzuten direnak, seme-alabak izateari edo izateak dakartzan ondorioei dagokienez. Inkesta honetan, Euskadiko 25-39 urteko pertsonak ideia horiek partekatzen dituzten edo, aitzitik, horiekin ados ez dauden aztertuko dugu.


Lehenik eta behin, azpimarratu behar da inkestatutako pertsonak ez datozela bat honako ideia honekin: seme-alabarik ez duten pertsonak berekoiagoak direla seme-alabak dituztenak baino. Semea edo alaba izatea ez da eskuzabaltasun-ekintzat hartzen, ez haurrarentzat, ez gizartearentzat. Izan ere, kontrako interpretazioa ere egin liteke, hau da, pertsona batzuen kasuan, seme-alabak izatea norberekoikia ekintza bat dela, norberarentzat onura material edo emozionala bilatzen duena.

25-39 urteko pertsonak uste dute seme-alabak izateko erabakia lehen baino erantzukizun handiagoarekin hartzen dela. "Jainkoak ematen dizkidanak" kontzeptua erabat zaharkitua geratu da, eta seme-alaba gehienak planifikatuak dira, bai zenbat izan, bai noiz izan.

Bestalde, 25-39 urteko pertsona gehienek uste dute emakumeek hazkuntzaren pisurik handiena eramaten jarraitzen dutela, amatasunak kostu handiagoak eragiten dizkiela gizonei baino, eta presio sozial handiagoa jasaten dutela ama izateko. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak oso agerikoak dira bizitzaren alderdi horretan, nahiz eta baterako zaintzaren gaian asko aurreratu den, eta gizon gazteak aurreko belaunaldietakoak baino askoz inplikatuago daude seme-alaben hazkuntzan.

1.1. grafikoa

Euskadiko 25 eta 39 urte bitarteko pertsonen gurasotasunari buruzko hainbat ideiarekin duten adostasun-maila (%)



Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Gai horiei buruzko iritzi-alde handia dago emakumeen eta gizonen artean.

1.1. taula

Euskadiko 25 eta 39 urte bitarteko pertsonen gurasotasunari buruzko hainbat ideiarekin duten adostasun-maila, sexuaren, adin-taldearen eta jaiolekuaren arabera (%)

Jarraian, adierazi zer neurritan zauden ados seme-alabak izateari buruz entzun ohi diren baieztapen hauetako bakoitzarekin.								
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emaku-meak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Euskadi	Atzerria
Gaur egun ere, seme-alabak izateak uko profesional handiagoa dakar emakumeentzat gizonentzat baino								
Oso ados	42,6	57,0	28,0	42,7	41,5	43,5	42,7	41,7
Nahiko ados	36,3	30,9	41,8	38,0	36,6	34,5	38,0	29,3
Ez oso ados	13,2	8,2	18,2	12,3	14,1	13,2	11,9	19,2
Batere ados ez	6,9	3,5	10,4	6,0	6,9	7,8	6,4	8,8
Ez dute erantzun nahi	1,0	0,5	1,5	1,0	0,9	1,1	0,9	1,0
Oraindik ere, emakumeek gizonak baino gehiago inplikatzeko dira seme-alaben hazkuntzan								
Oso ados	39,4	51,8	26,9	38,7	35,4	43,5	38,3	44,4
Nahiko ados	36,6	33,3	39,8	37,4	37,7	34,9	38,3	30,3
Ez oso ados	16,3	11,6	21,0	16,0	18,0	15,1	16,2	15,8
Batere ados ez	6,6	2,5	10,6	6,7	7,5	5,7	6,1	7,5
Ez dute erantzun nahi	1,2	0,7	1,6	1,2	1,4	0,9	1,0	2,0
Gaur egun ere, seme-alabak izateak etxeko lan-karga handiagoa dakar emakumeentzat gizonentzat baino								
Oso ados	38,3	53,2	23,2	37,6	36,3	40,7	37,2	42,4
Nahiko ados	36,9	33,8	40,1	39,1	39,3	32,7	39,2	27,6
Ez oso ados	15,5	8,7	22,3	16,4	15,6	14,7	15,0	18,0
Batere ados ez	8,6	3,7	13,4	6,4	8,1	10,9	7,9	11,2
Ez dute erantzun nahi	0,8	0,7	0,9	0,6	0,8	1,0	0,7	0,8
Seme-alabak izateko presio sozial eta familiar handiagoa dago oraindik ere emakumeengan gizonengan baino								
Oso ados	39,7	51,7	27,8	40,2	38,2	40,7	40,5	35,8
Nahiko ados	31,4	28,2	34,5	32,6	33,1	28,7	32,8	27,0
Ez oso ados	17,4	13,7	21,2	16,3	17,2	18,5	16,6	20,9
Batere ados ez	9,0	5,4	12,6	9,0	9,1	8,9	7,7	13,2
Ez dute erantzun nahi	2,5	1,1	3,9	1,9	2,3	3,2	2,3	3,1
Gaur egun, pertsonen lehen baino erantzukizun handiagoz hartzen dute seme-alabak izateko edo ez izateko erabakia								
Oso ados	33,6	37,1	30,4	29,2	28,6	41,9	30,6	49,3
Nahiko ados	38,0	37,1	38,5	39,1	41,1	34,2	39,0	32,1
Ez oso ados	18,6	17,6	19,4	21,9	21,4	13,1	20,1	10,6
Batere ados ez	6,7	5,1	8,4	7,7	5,7	6,7	6,6	6,7
Ez dute erantzun nahi	3,2	3,0	3,4	2,2	3,1	4,1	3,7	1,3
Seme-alabarik ez duten pertsonak berekoiagoak dira seme-alabak dituztenak baino								
Oso ados	6,8	5,2	8,5	4,6	5,1	10,4	5,0	16,2
Nahiko ados	8,9	4,5	13,4	8,5	9,7	8,6	8,6	11,9
Ez oso ados	20,2	17,4	23,1	20,7	21,4	18,7	20,4	20,3
Batere ados ez	60,9	69,8	51,8	64,3	60,1	58,6	63,0	48,1
Ez dute erantzun nahi	3,1	3,0	3,2	1,9	3,7	3,6	3,0	3,7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100

Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Emakumeen erdiak baino gehiago oso ados daude amatasunari eta aitatasunari buruzko honako ideia hauekin: beraiei gizonei baino neurri handiagoan dakarkiola lanbidean uko egin behar izatea, hazieraz eta etxeko lanez gehiago arduratzen direla emakumeak, eta, halaber, seme-alabak izateko presio sozial eta familiar handiagoa jasaten dutela emakumeek. Gehiengoa izatera iritsi gabe, emakume gehiago daude oso ados gaur egun seme edo alaba bat izateko erabakia lehen baino erantzukizun handiagoarekin hartzen dela diotenekin. Eta emakumeen artean, seme-alabarik ez duten pertsonak berekoiagoak direla diotenekin batere ados ez daudenen ehunekoa gizonen artean jasotakoa baino handiagoa da.

Adinaren arabera aldea ez dira hain nabarmenak, gaur egun seme-alabak izateko erabakia lehen baino erantzukizun handiagoarekin hartzen dela azaltzen duen ideiarekin kasuan izan ezik. 35 eta 39 urte bitartekoek 35 urtetik beherakoek baino neurri handiagoan egiten dute bat ideia horrekin (baieztapen horrekin "oso ados" daudenen ehunekoen aldea ehuneko hamar puntutik gorakoa da).

Atzerrian jaiotakoak dira gaur egun seme-alabak izateko erabakia lehen baino erantzukizun handiagoarekin hartzen dela gehien uste dutenak; pertsona horien % 49,3 oso ados daude baieztapen horrekin, eta Euskadin jaiotakoekiko ia hogeituneko aldea dago. Atzerrian jaiotakoek ere "oso ados" daudenen ehuneko handiagoak dituzte, Euskadin jaiotakoek baino, honako baieztapen honi dagokionez: oraindik ere emakumeak gizonak baino gehiago inplikatzeko direla seme-alaben hazkuntzan.

Aitzitik, Euskadin jaiotako pertsonak atzerrian jaiotakoek baino neurri handiagoan uste dute emakumeek gizonek baino presio sozial eta familiar handiagoa jasaten dutela seme-alabak izan ditzaten. Gainera, Euskadin jaiotakoek artean, seme-alabarik ez duten pertsonak seme-alabak dituztenak baino berekoiagoak direlako ideiarekin arbuioa atzerrian jaiotakoek artean erregistratutakoa baino handiagoa da.

Seme-alabak dituzten pertsonak (edo lehen seme-alabaren zain daudenenak) seme-alabarik ez dutenak baino neurri handiagoan adierazten dute gaur egun seme-alabak izateko edo ez izateko erabakia lehen baino erantzukizun handiagoarekin hartzen dela. Seme-alabak dituzten pertsonen artean ere umerik ez dutenak baino pertsona gehiago (nahiz eta aldea ez diren hain nabarmenak) dago oso ados seme-alabak izateak emakumeentzat kostu handiagoak (hazkuntza pisu handiagoa, etxean lan-karga handiagoa edo lanbidean neurri handiagoan uko egitea) dakartzala ideiarekin.

Seme-alabak edukitzeaz edo ez edukitzeaz gain, pertsonen sexua ere kontuan hartzen badugu, ikusten dugu seme-alabak dituzten emakumeak direla gaur egun haurrak izateko erabakia lehen baino erantzukizun handiagoarekin hartzen den ideia gehien partekatzen dutenak, eta, era berean, seme-alabak dituztenean gizonen aurrean bizi duten desberdinkeria gehien salatzen dutenak. Desoreka hori emakumeek hazkuntza eta etxeko lanetan duten inplikazio handiagoren eta lanbidean uko egite handiagoren bidez neurtzen da.

Bestetik, seme-alabarik ez duten emakumeak dira gehien uste dutenak emakumeek gizonek baino presio sozial eta familiar handiagoa jasaten dutela seme-alabak izan ditzaten. Emakume horiek (haurrik ez dutenak) dira, halaber, seme-alabarik ez duten pertsonak seme-alabak dituztenak baino berekoiagoak direlako ideiarekin adostasun-mailarik txikiena adierazi dutenak.

1.2. taula

Euskadiko 25 eta 39 urte bitarteko pertsonen gurasotasunari buruzko hainbat ideiarekin duten adostasun-maila, seme-alabak izatea eta sexua gurutzatzearen arabera (%)

Jarraian, adierazi zer neurritan zauden ados seme-alabak izateari buruz entzun ohi diren baieztapen hauetako bakoitzarekin.							
(% bertikalak)		SEME-ALABAK DITUZTE*			EZ DUTE SEME-ALABARIK		
		Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
			Emakumeak	Gizonak		Emakumeak	Gizonak
Gaur egun ere, seme-alabak izateak uko profesional handiagoa dakar emakumeentzat gizonentzat baino	Oso ados	44,3	57,7	26,3	41,5	56,4	28,9
	Nahiko ados	33,5	28,0	40,9	38,1	33,3	42,3
	Ez oso ados	13,3	9,1	19,0	13,1	7,3	17,7
	Batere ados ez	7,9	4,6	12,4	6,3	2,5	9,4
	Ez dute erantzun nahi	0,9	0,5	1,5	1,0	0,4	1,6
Oraindik ere, emakumeek gizonen baino gehiago inplikatzeko dira seme-alaben hazkuntzan	Oso ados	42,5	54,7	26,0	37,3	49,4	27,3
	Nahiko ados	35,1	30,9	40,8	37,6	35,5	39,4
	Ez oso ados	15,6	11,0	21,7	16,7	12,1	20,7
	Batere ados ez	5,7	2,9	9,5	7,2	2,1	11,2
	Ez dute erantzun nahi	1,1	0,4	2,0	1,2	1,0	1,4
Gaur egun ere, seme-alabak izateak etxeko lan-karga handiagoa dakar emakumeentzat gizonentzat baino	Oso ados	40,5	55,8	19,8	36,8	50,9	25,0
	Nahiko ados	33,5	30,2	38,0	39,0	36,8	41,2
	Ez oso ados	16,0	8,6	26,1	15,2	8,8	20,4
	Batere ados ez	9,5	4,8	15,9	7,9	2,7	12,2
	Ez dute erantzun nahi	0,5	0,6	0,3	1,0	0,7	1,3
Seme-alabak izateko presio sozial eta familiar handiagoa dago oraindik ere emakumeengan gizonengan baino	Oso ados	38,5	49,0	24,4	40,5	53,9	29,5
	Nahiko ados	31,8	28,1	36,9	31,1	28,4	33,3
	Ez oso ados	18,2	14,6	23,2	16,9	12,9	20,2
	Batere ados ez	8,9	7,3	11,0	9,1	3,7	13,4
	Ez dute erantzun nahi	2,5	1,1	4,5	2,4	1,0	3,6
Gaur egun, pertsonen lehen baino erantzukizun handiagoz hartzen dute seme-alabak izateko edo ez izateko erabakia	Oso ados	40,5	44,3	35,3	29,1	31,0	27,9
	Nahiko ados	35,1	33,7	37,0	39,9	40,1	39,3
	Ez oso ados	13,4	11,6	15,7	22,0	22,7	21,3
	Batere ados ez	6,5	5,6	7,7	6,8	4,6	8,7
	Ez dute erantzun nahi	4,6	4,8	4,4	2,2	1,6	2,8
Seme-alabarik ez duten pertsonak berekoiagoak dira seme-alabak dituztenak baino	Oso ados	9,6	8,9	10,5	5,1	2,1	7,5
	Nahiko ados	9,9	6,6	14,5	8,3	2,7	12,9
	Ez oso ados	22,1	18,0	27,7	19,0	16,9	20,8
	Batere ados ez	54,3	62,8	42,8	65,2	75,8	56,4
	Ez dute erantzun nahi	4,1	3,7	4,5	2,5	2,5	2,5
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100
*Kolektibo horretan bere lehen seme-alabaren zain daudenak ere kontuan hartu dira							

Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Pertsona batzuek, batez ere emakumeek, beren bat-bateko iruzkinetan azpimarratzen dituzte emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoera horiek, amatasunari eta aitatasunari dagokienez.

“Las mujeres estamos más presionadas a tener hijos y sobre todo biológicos”. (Emakumea, 25 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Kezkagarria iruditzen zait oraindik ere zenbat emakumek sakrifikatzen dituzten beraien ibilbide profesionala eta ardura postuak seme-alaben zaintzarengatik. Ez litzateke horrela izan behar”. (Emakumea, 32 urtekoa, 2 seme-alaba)

“La mujer es la que lleva toda la responsabilidad: gestación, parto, post parto y posterior crianza y carga mental”. (Emakumea, 34 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“El tema de tener hijos está complicado, no es fácil compaginar, puedes incluso perder el trabajo y la mujer es la que más desprotegida está en este caso. En las empresas te siguen preguntando, aunque no pueden/deben, si piensas tener hijos”. (Emakumea, 38 urtekoa, seme-alaba bat)

Eta aipatzen dute gizonak aitatasun-eredu tradizionala birplanteatzearen eta seme-alaben hazkuntzan gehiago inplikatzearen garrantzia, nahiz eta onartzen den asko aurreratu dela alderdi horretan aurreko belaunaldiekin alderatuta.

“Cada vez se va a mejor, pero todavía quedan muchos hombres que no se implican lo suficiente en el cuidado de los hijos/as”. (Emakumea, 39 urtekoa, 4 seme-alaba)

“Con los hijos somos las mujeres las que tenemos la máxima carga, pero tiene que haber más igualdad entre los hombres y las mujeres, para no sobrellevar las mujeres todas las cargas”. (Emakumea, 39 urtekoa, seme-alaba bat)

“Creo que sigue haciendo falta una concienciación por parte de los hombres en ejercer una crianza responsable”. (Gizonak, 30 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Emitza nagusiak

25-39 urteko pertsona gehienek uste dute amatasunak zigortu egiten dituela emakumeak. Ideia hauetako bakoitzarekin oso ados edo nahiko ados dauden ehunekoak gehituta, esan dezakegu 25 eta 39 urte bitarteko pertsonen % 78,9k uste duela, gaur egun ere, seme-alaba bat izateak lanbideari uko egite handiagoa dakarkiela emakumeei gizonen baino; % 76,0k uste du emakumeak gizonak baino gehiago inplikatzeko direla seme-alaben hazkuntzan; % 75,2k uste du seme-alaba bat izateak lan-karga handiagoa dakarrela emakumeentzat gizonentzat baino; eta % 71,1ek uste du seme-alabak izateko presio sozial eta familiar handiagoa jasaten dutela, oraindik ere, emakumeek gizonen baino. Ideia horiek gehiago partekatzen dituzte emakumeek gizonen baino (emakumeen artean, erdiak baino gehiago "oso ados" daude baieztapen horiekin guztiekin).

Bestalde, adin horretako pertsona gehienek uste dute gaur egun seme-alabak izateko erabakia lehen baino erantzukizun handiagoarekin hartzen dela (% 71,6 oso edo nahiko ados dago ideia horrekin).

Gutxiengoa dira seme-alabarik ez duten pertsonak seme-alabak dituztenak baino berekoiagoak direla uste dutenak (% 15,7); aldiz, hamarretik zortzi (% 81,1) ez daude oso ados edo batere ez daude ados seme-alabarik ez duten pertsonak berekoiak direlako ideiarekin.


2. Amatasunaren eta aitatasunaren esperientzia pertsonala

Seme-alabak dituzten pertsonen bizipenak, pertsona horien egoera pertsonala erakusten digute. Horrez gain, adibide bat dira, non seme-alabarik ez dutenek aurreikus dezaketen nolakoa izango litzatekeen bere egoera, umeak izanez gero.

Seme-alabak dituzten hiru pertsonatik bik adierazten dute bikotekidearekiko hazkuntza-lanen eta etxeko lanen banaketa orekatua dela (% 64,3 oso edo nahiko ados daude baieztapen horrekin). Erdiak baino gehiagok (% 56,5ek) dio bere egoera emozionalak hobera egin duela ama edo aita denetik, baina antzeko ehuneko bat (% 54,9) larrituta sentitzen da amatasunaren eta aitatasunaren erantzukizunekin. Gutxiengoa dira (% 30,6) beren bikote-harremanak seme-alabak dituztenetik hobera egin duela diotenak.

2.1. grafikoa.

Seme-alabaren bat duten 25-39 urteko pertsonen adostasun-maila, aita edo ama gisa duten esperientzia pertsonalari buruzko baieztapenekin (%)



Oinarria: Seme-alabak dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Horiek dira guztizko datuak, baina aldeak nabarmenak dira emakumeen eta gizonen pertzepzioei erreparatuz gero.

Gizonen artean, hamarretik zortzik uste dute bikotekidearekiko hazkuntza-lanen eta etxeko lanen banaketa orekatua dela (seme-alabak dituzten gizonen % 79,6 oso edo nahiko ados daude baieztapen horrekin). Emakumeen artean, aldiz, erdiak pasatxo (% 53,1) daude oso edo nahiko ados bikotekidearekiko zereginen banaketa orekatua izatearekin.


Emakumeak gizonak baino urduriago sentitzen dira amatasunaren/aitatasunaren erantzukizunekin. Lau emakumetik bat oso ados dago baieztapen horrekin (% 25,6), eta ehunekoia erdira jaisten da gizonen kasuan (% 13,1). Are gehiago, gizonen artean gehiago dira baieztapen horrekin gutxi edo batere ados ez daudenak, oso edo nahiko ados daudela diotenak baino.

Gizonen artean, ia hirutik bik diote beren egoera emozionala hobetu egin dela aita direnetik (baieztapen horrekin oso edo nahiko ados daude). Emakumeen artean, berriz, antzeko portzentajea osatu dute ama direnetik beren egoera emozionalak hobera egin duenarekin oso edo nahiko ados daudenek eta horrekin ez oso ados edo batere ados ez daudela diotenek.

Azkenik, seme-alabak dituztenetik beren bikote-harremana hobetu dela uste duten gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da. Baieztapen horrekin batere ados ez dauden emakumeen ehunekoak bikoiztu egiten du gizonen artean erregistratutakoa (% 35,1 emakumeen artean eta % 18,4 gizonen artean).

2.2.grafikoa.

Seme-alabaren bat duten 25-39 urteko pertsonen adostasun-maila, aita edo ama gisa duten esperientzia pertsonalari buruzko baieztapenekin, sexuaren arabera (%)




Oinarria: Seme-alabak dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Ez dago alde handirik adinaren arabera, baina bai jaiolekuaren arabera. Planteatutako baieztapenekin oso ados daudela dioten ehunekoei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu atzerrian jaiotakoek Euskadin jaiotakoek baino neurri handiagoan baieztatzen dutela beren egoera emozionalak hobera egin duela seme-alabak dituztenetik (% 38,7 eta % 23,5, hurrenez hurren), bai eta beren bikote-harremanak ere hobera egin duela (atzerrian jaiotakoen % 18,7k eta Euskadin jaiotakoen % 6,2k). Nolanahi ere, atzerrian jaiotako pertsonen artean ere gehiago dira guraso direnetik bikote-harremanak hobetu egin direlako ideiarekin gutxi edo batere ados ez daudenak.

Bestalde, zeregin nagusitzat lan ordaindua ez duten pertsonak (horietako gehienak emakumeak) lan egiten dutenek baino neurri handiagoan baieztatzen dute hazkuntzako eta etxeko lanen banaketa ez dela ekitatiboa, amatasunaren edo aitatasunaren erantzukizunen aurrean larrituago sentitzen dira eta ezeztatu egiten dute, neurri handiagoan, beren bikote-harremanak hobera egin duenik seme-alabak dituztenetik.

2.3.grafikoa.

Seme-alabaren bat duten 25-39 urteko pertsonen adostasun-maila, aita edo ama gisa duten esperientzia pertsonalari buruzko baieztapenekin, zeregin nagusiaren arabera (%)



Oinarria: Seme-alabak dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Gainera, ordaindutako lana duten seme-alabak dituzten pertsonen galdetu zaie nola eragiten dien aitatasunak/amatasunak beren lanean eta alderantziz, nola eragiten dion beren lanak aita edo ama gisa duten egoerari.

Lan egiten duten hamar gurasotik lau oso ados daude lanetik eratorritako estresak ama edo aita gisa duen ongizateari eragiten diola esatearekin. Pertsona horiei ideia horrekin nahiko ados daudenak gehitzen badizkiegu, ikusten dugu guraso langileen % 70,3k uste duela bere egoera profesionalak bere ongizate pertsonalari eta familiarrari eragiten diola.


Gutxiago dira hazkuntzaren ondoriozko estresak edo kezkek errendimendu profesionalari eragiten diotela uste dutenak. Hala ere, gurasoen % 20,6 oso ados dago baieztapen horrekin.

Seme-alabak izateak laneko aukerei edo garapen profesionalari kalte egiten diela oso ados dauden gurasoak % 17,5 dira, baieztapen horrekin batere ados ez daudenak baino dezente gutxiago (% 31,7). Beraz, ondoriozta dezakegu lan egiten duten guraso gehienek uste dutela seme-alabak izateak ez dituela zigortzen beren karrera profesionalean. Hala ere, ikusi beharko da zer iritzi duten alderdi horren inguruan lan egiten duten gizonek eta emakumeek.

Azkenik, seme-alabak dituzten eta lan egiten duten pertsonen uste dute beren lanetan eskaintzen dizkieten kontziliazio-neurriak ez direla nahikoak (% 20,1 oso ados daude eskaintako neurriak nahikoak izatearekin, baina gehiago dira, % 29,2 zehazki, batere ados ez daudenak).

2.4. grafikoa

Seme-alabaren bat duten eta lanean ari diren 25-39 urteko pertsonen adostasun-maila, aita edo ama gisa duten esperientzia pertsonalari buruzko baieztapenekin (%)




Oinarria: Seme-alabak dituzten eta lanean ari diren 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Berriz ere, alde nabarmenak daude lan egiten duten emakumeen eta gizonen artean, amatasunak/aitatasunak beren lan- eta familia-eremuan dituen ondorioei dagokienez.

2.5. grafikoa.

Seme-alabaren bat duten eta lanean ari diren 25-39 urteko pertsonen adostasun-maila, aita edo ama gisa duten esperientzia pertsonalari buruzko baieztapenekin, sexuaren arabera (%)



Oinarria: Seme-alabak dituzten eta lanean ari diren 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, emakume langileen ia erdia (% 48,5, eta gizonen artean gutxiago, % 30,1) oso ados dago lanetik eratorritako estresak ama gisa duen ongizateari kalte egiten diola esatean. Emakumeek gizonak baino gehiago diote, halaber, hazkuntzak eragindako estresak


edo kezkek bere errendimendu profesionalari eragiten diotela (ama diren emakume langileen % 23,7 oso ados daude baieztapen horrekin; aita diren gizon langileen artean, % 17,1).

Emakumeek gizonak baino neurri handiagoan sentitzen dute seme-alabak izateak beren lan-aukerari edo garapen profesionalari kalte egiten diela (emakumeen % 21,3 oso ados dago, eta gizonen artean % 13,1). Emakumeek ere gizonak baino proportzio handiagoan uste dute beren lanetan eskaintzen dizkieten kontziliazio-neurriak ez direla nahikoak (seme-alabak dituzten emakume langileen % 34,3 ez dago batere ados eskaintzen zaizkien neurriak nahikoak izatearekin; gizonen kasuan, % 23,4 dira iritzi horretakoak).

Bestalde, Euskadin jaiotako pertsonak atzerrian jaiotakoek baino neurri handiagoan adierazten dute beren lanetik eratorritako estresak ama edo aita gisa duten ongizateari eragiten diola. Euskadin jaio direnek ere neurri handiagoan adierazten dute seme-alabak izateak eragin negatiboa duela haien lan-aukeretan. Atzerrian jaiotako pertsonak, bestalde, hemen jaiotakoek baino neurri handiagoan ukatu egiten dute hazkuntzaren estresak edo kezkek beren garapen profesionalari eragiten diotela, eta gusturago agertzen dira beren lanetan eskaintzen dizkieten kontziliazio-neurriekin. Horrek ez du esan nahi atzerrian jaiotako pertsonak lan-baldintza hobekiak dituztenik, baizik eta eskaintzen zaizkien kontziliazio-aukerari buruzko pertzepzio positiboagoa dutela edo lan-baldintzei edo lan-sustapenerako aukerei dagokienez aurreikuspen txikiagoak dituztela.

2.6. grafikoa.

Seme-alabaren bat duten eta lanean ari diren 25-39 urteko pertsonen adostasun-maila, aita edo ama gisa duten esperientzia pertsonalari buruzko baieztapenekin, jaiolekuaren arabera (%)



Oinarria: Seme-alabak dituzten eta lanean ari diren 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Eraitza nagusiak

Seme-alabak dituzten pertsonen % 64,3ren ustez, bikotekidearekiko hazkuntza-lanen eta etxeko lanen banaketa orekatua da; % 56,5ek dio bere egoera emozionalak hobera egin duela ama edo aita denetik; baina % 30,6k soilik dio bere bikote-harremanak hobera egin duela seme-alabak dituenetik. Erdiak baino gehiagok (% 54,9k) adierazi dute amatasunaren eta aitatasunaren erantzukizunekin gainezka eginda sentitzen direla. Portzentaje horiek planteatutako baieztapen bakoitzarekin oso edo nahiko ados daudela dioten 25-39 urte arteko gurasoei dagozkie.

Etiket kanpo lan egiten duten gurasoen artean, gehienak (% 70,3) oso edo nahiko ados daude lanetik eratorritako estresak aita edo ama gisa duten ongizateari eragiten diola esatearekin, eta ia erdiek (% 46,5ek) diote hazkuntzak eragindako estresak edo kezkek eragina dutela haien errendimendu profesionalean. Bestalde, lanean eskaintzen dizkieten kontziliazio-neurriak nahikoak diren planteatzen denean, gutxiago dira oso edo nahiko ados daudenak (% 44,9) ez oso ados edo batere ados ez daudenak baino (% 52,9). Azkenik, % 38,6k uste du seme-alabak izateak eragin negatiboa duela bere lan-aukeretan edo garapen profesionalean.

Amatasunaren/aitatasunaren esperientzia desberdina da emakumeentzat eta gizonentzat. Amek aitek baino neurri handiagoan adierazten dute hazkuntzako edo etxeko lanen banaketa ez dela orekatua bikoteko bi kideen artean; bikote-harremanak ez duela hobera egin seme-alabak dituztenetik; lanean eskaintzen dizkieten kontziliazio-neurriak ez direla nahikoak; umeak izateak eragin negatiboa duela haien lan-aukeretan edo garapen profesionaleko aukeretan; eta lanetik eratorritako estresak eragina duela ama gisa duten ongizatean. Logikoa da, beraz, emakumeek gizonen baino neurri handiagoan esatea amatasunaren ardurekin edo erantzukizunekin larrituta sentitzen direla.

3. Amatasunaren eta aitatasunaren inguruko kezka seme-alabarik ez duten pertsonen artean

Oraindik seme-alabarik ez duten pertsonak aurrez pentsatutako ideiak dituzte umeak izateak bizitza pertsonalean eragiten dituzten aldaketei buruz. Ideia horiek seme-alabak dituzten pertsonari ikusten eta entzuten dietenean oinarritzen dira, batez ere, baina ideioek ez dituzte pertsona guztiak berdin kezkatzen. Egoera pertsonalak, nortasunak, nahiek eta lehentasunek... eragina dute pertsona bakoitzak umeak izateak ekarriko lizkiokeen aldaketei begira sentitzen duen kezka-mailan. Inkesta honetan, seme-alabarik ez duten pertsonari galdetu zaie zer neurritan kezkatuko lituzketen haurrak edukiz gero gerta litezkeen aldaketa batzuek.


Asko kezkatuko lituzkeela adierazten duten pertsonen ehunekoaren arabera ordenatzen baditugu, ikusten dugu proposatutako aldaketen artean, seme-alabarik ez duten pertsonak gehien kezkatuko lituzkeena, edukiz gero, haientzat denborarik ez izatea izango litzatekeela. % 29,3 asko kezkatuko luke berarentzat denborarik ez izateak.

Gehien kezkatuko lukeen bigarren aldaketa bere osasun fisiko edo mentala kaltetzea izango litzateke. Atzetik, kezka handienetik txikienera, honako hauek leudeke: aita edo ama gisa jarduten ez jakitea, haien bizimodua aldatu beharra, bikote-harremana ahultzea, proiektu profesionalak garatu ezin izatea eta erosteko ahalmena galtzea.

Seme-alabarik ez duten pertsonak gutxien kezkatuko lituzkeena, umeak izateko aukeraren aurrean, lagunartea aldatzea litzateke. Seme-alabarik ez duten lau pertsonatik batek bakarrik (% 9,5ek) dio asko kezkatuko lukeela lagunak aldatu behar izateak.

3.1. grafikoa.

Seme-alabarik ez duten 25-39 urteko pertsonak zein mailatan kezkatuko lituzkeen seme-alabak izanez gero gerta litezkeen hurrengo aldaketetako bakoitzak (%)




Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Kezkaren neurri bat ezartzen badugu aldaketa bakoitzak asko edo nahikoa kezkatuko lituzkeela diotenena eta gutxi edo ezer ez lituzkeela kezkatuko diotenena arteko desberdintasunetatik abiatuta, ikusten da seme-alabarik gabeko pertsonak gehien kezkatuko lituzkeen aldaketa haientzat denbora ez izatea litzatekeela, eta gutxien kezkatuko lituzkeena lagunak aldatu beharra litzateke (Otik gorako balioek adierazten dute gehiago direla gai horiek asko edo nahikoa kezkatzen dituzten pertsonak, gutxi edo batere kezkatzen ez dituztenak baino).

3.2. grafikoa

Seme-alabak izanez gero gerta litezkeen aldaketek asko edo nahikoa kezkatuko lituzkeela dioten pertsonen eta gutxi edo batere ez lituzkeela kezkatuko diotenena arteko aldea (-100/+100 arteko balioa)



Otik gorako balioek adierazten dute gehiago direla planteatutako aldaketa bakoitzak asko edo nahikoa kezkatzen dituen pertsonak gutxi edo ezer kezkatzen ez dituenak baino; aitzitik, Otik beherako balioek adierazten dute aldaketa bakoitzak gutxi edo ezer kezkatzen ez dituen pertsonak gehiago direla kezka handia edo nahikoa dutenak baino.

Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Emakumeek gizonak baino neurri handiagoan adierazten dute kezkatuta daudela proposatutako aldaketa-aukera guztiekin. Izan ere, emakume gehienek diote kezkatuta daudela planteatutako aldaketa guztiekin, lagunen zirkulua aldatu behar izatearekin izan ezik. Gizonen artean, gehienak kezkatzen dituzten aldaketa bakarrak beraientzat denborarik ez izatea eta beren bizimodua aldatu beharra dira.

Gainera, emakumeei gehien kezkatuko liekeena, beren buruarentzako denborarik ez izatearen gainetik, beren osasun fisikoa edo mentala mindu ahal izatea da.

Adinak alde handiak eragiten ditu. 35 urtetik beherakoak gehiago kezkatzen dituzte proposatutako aldaketa guztiek 35 eta 39 urte bitartekoak baino. Are gehiago, lagunen zirkuluaren aldaketarekin izan ezik, 25-34 urteko pertsona gehienak kezkatuta daude planteatutako gainerako aldaketa mota guztiekin. 35-39 urteko pertsonen artean, aldiz, kasu guztietan gehiago dira aldaketek gutxi edo batere kezkatzen dituztela diotenak asko edo nahikoa kezkatzen dituztela diotenak baino.

Oro har, atzerrian jaiotakoak ez daude Euskadin jaiotakoak bezain kezkatuta ama edo aita izateak bizitzan eragin ditzakeen aldaketengatik. Baina zehaztu behar da atzerrian jaio eta seme-alabarik ez duten pertsonen artean gizonen proportzioa handiagoa dela Euskadin jaiotakoen artean baino.

3.1.taula.

Seme-alabarik ez duten 25-39 urteko pertsonak zein mailatan kezkatuko lituzkeen seme-alabak izanez gero gerta litezkeen hurrengo aldaketetako bakoitzak, sexuaren, adin-taldeen eta jaiolekuaren arabera (%)

Seme-alabak izateko aukeraz ari garela, zenbateraino kezkatuko zintuzkete (asko, nahikoa, gutxi edo ezer ez) honako gai hauek?								
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emaku-meak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Euskadi	Atzerria
ASTIRIK ZURETZAT EZ IZATEAK								
Asko + Nahikoa	64,7	72,2	58,0	65,0	71,7	49,6	67,1	47,4
Gutxi + Ezer ez	35,0	27,4	41,6	34,9	27,4	50,4	32,4	52,6
Ez dute erantzun	0,4	0,4	0,4	0,2	0,9	0,0	0,5	0,0
ZURE OSASUN FISIKOA EDO MENTALA KALTETZEAK								
Asko + Nahikoa	59,4	74,7	46,8	63,7	60,3	44,9	60,9	47,9
Gutxi + Ezer ez	40,3	24,9	52,9	36,1	39,0	55,1	38,7	51,8
Ez dute erantzun	0,4	0,4	0,3	0,3	0,7	0,0	0,4	0,3
ZURE BIZIMODUA ALDATU BEHARRAK								
Asko + Nahikoa	55,6	61,2	50,5	56,0	62,4	40,8	57,4	42,1
Gutxi + Ezer ez	44,1	38,4	49,2	43,7	37,1	59,2	42,2	57,9
Ez dute erantzun	0,4	0,4	0,3	0,3	0,5	0,0	0,4	0,0
ZURE BIKOTE-HARREMANA AHULTZEAK								
Asko + Nahikoa	53,2	59,0	48,8	54,9	55,0	44,6	53,9	47,2
Gutxi + Ezer ez	43,7	38,3	47,9	41,9	42,1	52,1	43,2	48,5
Ez dute erantzun	3,1	2,7	3,3	3,3	2,8	3,2	2,9	4,3
GURASO GISA JARDUTEN EZ JAKITEAK								
Asko + Nahikoa	54,4	61,8	48,2	60,3	52,2	41,0	55,3	47,6
Gutxi + Ezer ez	45,0	37,4	51,3	39,3	46,7	58,7	44,0	52,4
Ez dute erantzun	0,6	0,8	0,5	0,5	1,1	0,3	0,7	0,0
EROSTEKO AHALMENA GALTZEAK								
Asko + Nahikoa	49,9	52,5	47,7	52,7	55,4	30,7	50,5	48,0
Gutxi + Ezer ez	49,2	46,3	51,6	46,5	43,1	69,0	48,5	52,0
Ez dute erantzun	0,9	1,2	0,7	0,8	1,5	0,3	1,0	0,0
ZURE PROIEKTU PROFESIONALAK GARATU EZIN IZATEAK								
Asko + Nahikoa	49,3	60,1	40,4	55,2	50,2	30,0	49,9	44,7
Gutxi + Ezer ez	50,1	39,4	58,8	44,0	49,1	70,0	49,4	54,4
Ez dute erantzun	0,6	0,5	0,8	0,8	0,7	0,0	0,6	0,8
ZURE LAGUNARTEA ALDATU BEHARRAK								
Asko + Nahikoa	29,6	30,3	28,8	36,6	25,4	17,1	31,4	18,6
Gutxi + Ezer ez	69,6	69,1	70,2	62,6	73,4	82,9	67,6	81,4
Ez dute erantzun	0,8	0,6	1,0	0,8	1,2	0,0	1,0	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100

Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Kezka handia edo nahikoa sentituko luketenen eta kezka gutxi edo batere ez luketela sentituko diotenen arteko aldea kalkulatzek are nabarmenago uzten ditu kolektiboen arteko aldeak.

3.2.taula

Seme-alabak izanez gero gerta litezkeen aldaketek asko edo nahikoa kezkatuko lituzkeela dioten pertsonen eta gutxi edo batere ez lituzkeela kezkatuko dioten arteko aldea, sexuaren, adin-taldeen eta jaiolekuaren arabera (-100/+100 arteko balioa)

Seme-alabak izateko aukeraz ari garela, zenbateraino kezkatuko zintuzkete (asko, nahikoa, gutxi edo ezer ez) honako gai hauek?*								
(eskala: -100/+100)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Euskadi	Atzerria
Astirik zuretzat ez izateak	29,7	44,8	16,4	30,1	44,3	-0,8	34,7	-5,2
Zure osasun fisikoa edo mentala kaltetzeak	19,1	49,8	-6,1	27,6	21,3	-10,2	22,2	-3,9
Zure bizimodua aldatu beharrak	11,5	22,8	1,3	12,3	25,3	-18,4	15,2	-15,8
Zure bikote-harremana ahultzeak	9,5	20,7	0,9	13,0	12,9	-7,5	10,7	-1,3
Guraso gisa jarduten ez jakiteak	9,4	24,4	-3,1	21,0	5,5	-17,7	11,3	-4,8
Erosteke ahalmena galtzeak	0,7	6,2	-3,9	6,2	12,3	-38,3	2,0	-4,0
profesionalak garatu ezin izateak	-0,8	20,7	-18,4	11,2	1,1	-40,0	0,5	-9,7
Zure lagunartea aldatu beharrak	-40,0	-38,8	-41,4	-26,0	-48,0	-65,8	-36,2	-62,8
*Balioa = (Asko + Nahikoa) - (Gutxi + Ezer ez)								
Orik gorako balioek adierazten dute gehiago direla planteatutako aldaketa bakoitzak asko edo nahikoa kezkatzen dituen pertsonak gutxi edo ezer kezkatzen ez dituenak baino; aitzitik, Orik beherako balioek adierazten dute aldaketa bakoitzak gutxi edo ezer kezkatzen ez dituen pertsonak gehiago direla kezka handia edo nahikoa dutenak baino.								

Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Bestalde, lan egiten duten pertsonak beren buruarentzat denborarik ez izateak kezkatzen ditu gehien; lan egiten ez dutenen artean (batez besteko adin gazteagoa dutenak), aldiz, aita edo ama gisa lan egiten ez jakiteak kezkatzen ditu gehien. Lan egiten ez duten pertsonen ere lan egiten dutenek baino kezka handiagoa sentitzen dute beren proiektu profesionalak garatu ezin izateagatik.

Emantzipatu gabeko pertsonak, batez besteko adin gazteagoa dutenak, gehiago kezkatzen dituzte aita edo ama gisa jarduten ez jakiteak, proiektu profesionalak garatu ezin izateak edo erosteko ahalmena galtzeak. Pertsona horiek ere emantzipatuak baino neurri handiagoan gehiago kezkatuko lituzke beren osasun fisikoa edo mentala kaltetzeak. Eta nahiz eta gutxiengoa izan lagunak aldatu behar izateak kezkatuko lituzkeen pertsonak, ehunekoa zertxobait handiagoa da emantzipatu gabekoen artean emantzipatutakoen artean baino.

Bikotekidearekin bizi diren pertsonen dute kezka handiena seme-alabak izateak bikote-harremanean eragin negatiboa izan lezakeelako. Aldiz, bikotekidearekin bizi diren pertsona horiek dira kezka gutxien adierazten dutenak, seme-alabak edukitzeak erosteko ahalmena galtzea edo lagunartea aldatu beharra ekar lezakeelako.

3.3.taula.

Seme-alabarik ez duten 25-39 urteko pertsonak zein mailatan kezkatuko lituzkeen seme-alabak izanez gero gerta litezkeen hurrengo aldaketetako bakoitzak, zeregin nagusiaren, emantzipazioarekiko egoeraren eta bikotekidearekin bizi izatearen arabera (%)

Seme-alabak izateko aukeraz ari garela, zenbateraino kezkatuko zintuzkete (asko, nahikoa, gutxi edo ezer ez) honako gai hauek?							
(% bertikalak)	Guztira	Zeregin nagusia		Emantzipazioarekiko egoera		Bikotekidearekin bizi izatea*	
		Lanean	Lanik ez	Emantzi-patuta	Emantzi-patu gabe	Bai	Ez
ASTIRIK ZURETZAT EZ IZATEAK							
Asko + Nahikoa	64,7	64,8	63,2	66,0	62,7	66,5	65,1
Gutxi + Ezer ez	35,0	34,8	36,2	33,7	36,8	33,2	34,5
Ez dute erantzun	0,4	0,4	0,5	0,3	0,5	0,3	0,5
ZURE OSASUN FISIKOA EDO MENTALA KALTETZEAK							
Asko + Nahikoa	59,4	59,5	58,4	57,4	62,1	58,4	55,8
Gutxi + Ezer ez	40,3	40,1	41,1	42,3	37,4	41,5	43,6
Ez dute erantzun	0,4	0,3	0,5	0,3	0,5	0,1	0,6
ZURE BIZIMODUA ALDATU BEHARRAK							
Asko + Nahikoa	55,6	55,8	54,2	56,0	54,9	55,2	57,5
Gutxi + Ezer ez	44,1	44,0	44,7	43,7	44,7	44,6	42,0
Ez dute erantzun	0,4	0,2	1,1	0,3	0,4	0,2	0,5
ZURE BIKOTE-HARREMANA AHULTZEAK							
Asko + Nahikoa	53,2	53,9	48,8	54,9	50,8	58,5	48,5
Gutxi + Ezer ez	43,7	43,1	47,4	42,8	44,9	41,4	45,4
Ez dute erantzun	3,1	3,0	3,8	2,3	4,3	0,1	6,1
GURASO GISA JARDUTEN EZ JAKITEAK							
Asko + Nahikoa	54,4	52,5	66,3	51,5	58,3	52,6	49,6
Gutxi + Ezer ez	45,0	47,0	31,9	47,8	41,2	46,5	50,0
Ez dute erantzun	0,6	0,5	1,8	0,7	0,5	0,8	0,5
EROSTEKO AHALMENA GALTZEAK							
Asko + Nahikoa	49,9	49,7	51,0	46,4	54,8	43,8	50,8
Gutxi + Ezer ez	49,2	49,6	46,3	52,7	44,3	55,3	48,1
Ez dute erantzun	0,9	0,6	2,7	0,9	0,9	0,9	1,1
ZURE PROIEKTU PROFESIONALAK GARATU EZIN IZATEAK							
Asko + Nahikoa	49,3	48,5	54,5	46,4	53,2	45,6	47,9
Gutxi + Ezer ez	50,1	50,9	45,0	53,0	46,1	54,1	51,0
Ez dute erantzun	0,6	0,7	0,5	0,6	0,7	0,3	1,1
ZURE LAGUNARTEA ALDATU BEHARRAK							
Asko + Nahikoa	29,6	29,2	31,7	27,4	32,5	24,5	32,6
Gutxi + Ezer ez	69,6	69,9	67,5	72,2	66,1	75,3	66,7
Ez dute erantzun	0,8	0,8	0,9	0,4	1,4	0,2	0,7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
*Emantzipatutako pertsonak bakarrik hartzen dira kontuan							

Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Berriz ere azaltzen da aldaketa horiek asko edo nahikoa kezkatuko lituzketen eta gutxi edo batere kezkatuko ez lituzketen pertsonen ehunekoen arteko aldea.

3.4.taula

Seme-alabak izanez gero gerta litezkeen aldaketek asko edo nahikoa kezkatuko lituzkeela dioten pertsonen eta gutxi edo batere ez lituzkeela kezkatuko dioten arteko aldea, zeregin nagusiaren, emantzipazioarekiko egoeraren eta bikotekidearekin bizi izatearen arabera (-100/+100 arteko balioa)

Seme-alabak izateko aukeraz ari garela, zenbateraino kezkatuko zintuzkete (asko, nahikoa, gutxi edo ezer ez) honako gai hauek?*							
(eskala: -100/+100)	Guztira	Zeregin nagusia		Emantzipazioarekiko egoera		Bikotekidearekin bizi izatea**	
		Lanean	Lanik ez	Emantzi-patuta	Emantzi-patu gabe	Bai	Ez
Astirik zuretzat ez izateak	29,7	30,0	27,0	32,3	25,9	33,3	30,6
Zure osasun fisikoa edo mentala kaltetzeak	19,1	19,4	17,3	15,1	24,7	16,9	12,2
Zure bizimodua aldatu beharrak	11,5	11,8	9,5	12,3	10,2	10,6	15,5
Zure bikote-harremana ahultzeak	9,5	10,8	1,4	12,1	5,9	17,1	3,1
Guraso gisa jarduten ez jakiteak	9,4	5,5	34,4	3,7	17,1	6,1	-0,4
Erostea ahalmena galtzeak	0,7	0,1	4,7	-6,3	10,5	-11,5	2,7
Zure proiektu profesionalak garatu ezin izateak	-0,8	-2,4	9,5	-6,6	7,1	-8,5	-3,1
Zure lagunartea aldatu beharrak	-40,0	-40,7	-35,8	-44,8	-33,6	-50,8	-34,1
*Balioa = (Asko + Nahikoa) - (Gutxi + Ezer ez)							
Orik gorako balioek adierazten dute gehiago direla planteatutako aldaketa bakoitzak asko edo nahikoa kezkatzen dituen pertsonak gutxi edo ezer kezkatzen ez dituenak baino; aitzitik, Orik beherako balioek adierazten dute aldaketa bakoitzak gutxi edo ezer kezkatzen ez dituen pertsonak gehiago direla kezka handia edo nahikoa dutenak baino.							
**Emantzipatutako pertsonak bakarrik hartzen dira kontuan.							

Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Emaiza nagusiak

Gaur egun seme-alabarik ez duten pertsonen amatasunari eta aitatasunari buruzko ikuspegia hobeto ulertze aldera, egoera hipotetiko batzuk planteatu dizkiegu, eta egoera horiek izanez gero, bakoitzak pertsonalki zenbat kezkatuko lituzkeen galdetu diegu.

Seme-alabak izateko aukerari dagokionez, oraindik haur bat ere ez duten pertsonen % 64,7 asko edo nahikoa kezkatuko luke beretzat denborarik ez izateak; % 59,4 bere osasun fisiko edo mentala ahultzeak asko edo nahikoa kezkatuko luke; % 55,6 bere bizimodua aldatu behar izateak; % 54,4 ama edo aita gisa jarduten ez jakiteak; % 53,2 bere bikote-harremana ahultzeak; % 49,9 eroste ahalmena galtzeak; % 49,3 bere proiektu profesionalak ezin garatzeak; eta dezente gutxiago (% 29,6) bere lagun-taldea aldatzeak.

Gai horiek guztiek askoz gehiago kezkatzen dituzte emakumeak gizonak baino. 35 urtetik beherako pertsonak eta Euskadin jaiotakoak ere gehiago kezkatzen dituzte balizko aldaketa horiek. 35-39 urtekoen artean eta atzerrian jaiotakoen artean, gehiago dira amatasunak edo aitatasunak eragin ditzakeen aldaketengatik kezka gutxi edo batere ez dutenak, kezka handia edo nahikoa sentitzen dutenak baino.

4. Seme-alabak izateko nahia eta ematen zaion garrantzia

Seme-alabak eduki nahi ote diren publikoki planteatzea pentsaezina zen duela ez hainbeste urte. Ezkonduentzat seme-alabak izateko agindu sozial eta erlijiosoa zegoen, eta ezkongabeentzat, berriz, "bekatua" eta estigma soziala. Gaur egun, aldiz, pertsonak, beren egoera zibila edozein dela ere, seme-alabak izan nahi dituzten, noiz eduki nahi dituzten eta zenbat izan nahi dituzten planteatzen dute, nahiz eta beren desioak beti errealtatearekin bat ez etorri.

Arrazoi desberdinek baldintzatzen dute seme-alabak izateko edo ez izateko gogoak. Haurrak izateak dakartzan kostuen eta onuren balorazioa egin daiteke. Kostuak ekonomikoak, denborazkoak, harremanetakoak, aukeretakoak... izan daitezke, eta onurak, berriz, emozionalagoak izaten dira (afektua, konpainia, zahartzaroan laguntzeko edo zaintzeko itxaropenak, bikotekidearekiko loturak estutzea, etab.). Seme-alabak izateko gogoak adin batera iristean ere sor daiteke, edo, emakume askoren kasuan, ama izateko urte emankor gutxi daudela kalkulatzaren denean.

Pertsona batzuek "amatasun- edo aitatasun-sena" deritzona senti dezakete, baina feminista batzuek, Judith Butlerrek adibidez, zalantzan jartzen dute amatasun-sen horren ideia, eta amatasuna ez dela emakumeei berez dagokien zerbait argudiatzen dute. Egile horrek dio gizarte-erakuntza bat dela, eta balio izan duela genero-rolak justifikatzeko eta iraunarazteko, emakumeen mende jartzeko eta familia-egitura tradizionalak indartzeko. Haren arabera, amatasunari lotutako esperientziak, rolak eta aurreikuspenak garai eta leku bakoitzeko kultura- eta gizarte-arauek moldatzen dituzte. Dena dela, senez edo gizarte-konstruktuz, egia da emakume (eta gizon) askok erabakitzen dutela ama edo aita izatea, erabaki horretan arrazoizko kalkulurik egin gabe, adin jakin batera iritsi ondoren.

Jarraian, kalkulatu dugu oraindik seme-alabarik ez duten zenbat pertsonak nahi duten aita edo ama izan bizitzako uneraren batean. Era berean, seme-alabak izateari ematen zaion garrantzia ikusiko dugu eta garrantzi horrek desioarekin duen harremanari erreparatu diogu.

4.1. Seme-alabarik ez duten 25-39 urteko pertsonen banaketa, guraso izateko nahiaren arabera


Inkesta honetan, seme-alabarik ez duten pertsonen galdetu zaie noizbait eduki nahi dituzten, denbora-eperik planteatu gabe.

Zehaztu behar da seme-alabarik ez duten pertsona horien profila lagin osoarena baino gazteagoa dela; erdiak baino gehiagok 30 urte baino gutxiago dituzte, eta heren bat baino zertxobait gehiago ez dago oraindik emantzipatuta.

Seme-alabarik ez duten hiru pertsonatik bik (% 67,7k) adierazi dute bizitzako uneraren batean haurrak izatea gustatuko litzaiekeela. Beste % 14,6k adierazi du ez litzaiekeela gustatuko umerik izatea, eta gainerako % 17,8k ez daki, esan du ez duela inoiz halakorik planteatu, eta ez du bere burua gai ikusten inkesta egiteko unean erantzun bat emateko.

4.1.grafikoa.

Gaur egun seme-alabarik ez duten Euskadiko 25-39 urteko pertsonen egunen batean seme-alabak izan nahi izatea (%)




Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Adinean aurrera egin ahala, handitu egiten da seme-alabarik izan nahi ez dutela dioten ehunekoa; nolanahi ere, txikia da ehuneko hori. Aitzitik, urteak bete ahala, jaitsi egiten da gai hori inoiz planteatu ez dutela dioten pertsonen ehunekoa. Beraz, ondoriozta daiteke adinak gora egin ahala gai hau planteatu duten seme-alabarik gabeko pertsonen proportzioak ere gora egiten duela, eta, kasu batzuetan, umerik ez izateko erabakia hartu dela.

4.2.grafikoa.

Gaur egun seme-alabarik ez duten Euskadiko 25-39 urteko pertsonen egunen batean seme-alabak izan nahi izatea, sexuaren, adin-taldearen eta jaiolekuaren arabera (%)



Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Emakumeen artean, seme-alabarik izan nahi ez dutenen ehunekoa (% 16,2) gizonen artean izandakoa baino handixeagoa da (% 12,6). Bestalde, atzerrian jaiotakoek Euskadin jaiotakoek baino neurri handiagoan adierazten dute egunen batean guraso izan nahi dutela.

Zehaztu behar da seme-alabak izateko nahia ez dela aldaezina. Pertsona batzuek oso argi dute aita edo ama izan nahi dutela, nahiz eta, agian, bizitzak zapuztu desio hori. Beste batzuek beren lehentasuna aldatzen dute, beren bizi-egoeraren arabera. Eta beste batzuek seme-alabarik ez izateko erabakia adierazten dute; hala ere, horietako batzuek iritzia alda dezakete, beren egoera aldatzen bada.

“La incertidumbre debido a la situación actual en el mundo: guerra, crisis climática, inestabilidad política hacen que de tanto en tanto me plantee si quiero traer hijos a este mundo”. (Emakumea, 28 urtekoa, seme-alabarik gabe, egunen batean ama izan nahi duela adierazi du)

4.2. Seme-alabak izateari emandako garrantzia

Tradizioz, garrantzi handia eman zaio seme-alabak izateari. Familia bat seme-alabak izatetatik aurrera hartzen zen familiatzat; eta, izatez, "familia" terminoaren adieretako bat, Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, "seme-alabak" da. Hala ere, bizitzeko eta familia ulertzeko modu berriek eta laikotasun gero eta handiagoak eragin dute haurrak izateko gizarte-aginduak pisua galtzea.

2024an, Euskadiko 25-39 urteko biztanleriak, hau da, seme-alabak izateko edo hori planteatzeko adinean dagoen biztanleriak, 7,2ko garrantzia ematen dio, 0-10 eskalan, seme-alabak izateari.

4.1.taula.

Euskadiko 25-39 urteko pertsonak seme-alabak izateari ematen dioten garrantzi-maila, sexuaren adin-taldean eta seme-alabak izatearen arabera

Otik 10erako eskala erabiliz, zeinean 0a “garrantzirik ez” eta 10a “oso garrantzitsua” diren, zer garrantzi ematen diozu zure bizitzan seme-alabak izateari?								
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Seme-alabak izatea	
		Emaku-meak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Bai*	Ez
0	7,7	7,5	7,6	10,1	9,5	4,0	0,5	12,5
1	1,5	1,0	1,9	2,6	1,0	1,0	0,0	2,5
2	2,4	1,8	3,1	3,5	2,9	1,0	0,1	4,0
3	2,7	2,8	2,5	4,3	2,5	1,3	0,4	4,1
4	2,3	2,3	2,3	2,5	3,0	1,4	0,4	3,5
5	8,2	7,4	8,8	10,7	10,0	4,3	2,6	11,8
6	5,6	5,7	5,5	8,4	4,2	4,5	2,5	7,7
7	10,2	8,2	12,2	14,8	9,4	6,7	3,9	14,3
8	17,0	16,6	17,6	16,2	19,5	15,5	16,6	17,3
9	12,6	12,4	13,0	11,3	11,3	14,8	15,1	11,0
10	29,4	33,7	25,5	14,9	26,2	45,3	57,8	10,9
Ez dute erantzun	0,4	0,8	0,2	0,6	0,5	0,2	0,1	0,7
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Batezbestekoa (0-10)		7,2	7,4	7,0	6,2	6,9	8,2	9,1
*Kolektibo horretan bere lehen seme-alabaren zain daudenak ere kontuan hartu dira								

Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Balio orokorra 7,2 bada ere, alde nabarmenak daude adinaren eta, batez ere, seme-alabak izatearen edo ez izatearen arabera. Adinak gora egin ahala, seme-alabak izateari emandako garrantziak ere gora egiten du, eta jauzi handiena 35 urte baino gehiago edo gutxiago dituztenen artean gertatzen da (35-39 urteko taldean, ia erdiak 10 puntuko garrantzia ematen dio seme-alabak izateari).

Bestalde, seme-alabak dituzten pertsonen erdiek baino gehiagok (eta horien artean lehen umearen zain daudenak kontuan hartu dira), % 57,8k, hain zuzen ere, garrantzi handiena (10 puntu) ematen diote seme-alabak izateari, eta, ondorioz, horien batez bestekoa askoz handiagoa da haurrik ez dutenen artean erregistratutakoa baino (9,1 eta 5,9, hurrenez hurren).

Sexuaren arabera aldea ez dira hain nabarmenak batez bestekoari erreparatzen badiogu; emakumeek gizonek baino 0,4 puntu gehiago ematen dizkiote seme-alabak izateari (7,4 emakumeen artean eta 7,0 gizonen artean). Baina seme-alabak izateari garrantzi handiena (10 puntu) eman dioten emakumeen eta gizonen ehunekoari erreparatuz gero, aldeak nabarmenagoak dira: emakumeen % 33,7 eta gizonen % 25,5.

Atzerrian jaioetakoek Euskadin jaioetakoek baino garrantzi handiagoa ematen diote seme-alabak izateari; 0-10 eskalako batez besteko puntuazioak 8,0 eta 7,0 dira, hurrenez hurren. Eta portzentajeen banaketari erreparatzen badiogu, aldeak ere nabarmenagoak dira. Atzerrian jaioetakoek artean, erdiek baino gehiagok (% 53,0) 10 puntuko garrantzia ematen diote seme-alabak izateari; Euskadin jaioetakoek artean, berriz, 10 puntu ematen dioten portzentajea % 24,8ra murrizten da.

4.2.taula

Euskadiko 25-39 urteko pertsonek seme-alabak izateari ematen dioten garrantzi-maila, jaiolekuaren arabera

Otik 10erako eskala erabiliz, zeinean 0a "garrantzirik ez" eta 10a "oso garrantzitsua" diren, zer garrantzi ematen diozu zure bizitzan seme-alabak izateari?			
(% bertikalak)	Guztira	Jaiolekua	
		Euskadi	Atzerria
0	7,7	7,8	7,5
1	1,5	1,7	0,4
2	2,4	2,7	1,8
3	2,7	2,9	2,0
4	2,3	2,4	1,8
5	8,2	8,7	4,8
6	5,6	6,0	3,4
7	10,2	10,9	6,2
8	17,0	18,3	10,9
9	12,6	13,4	7,5
10	29,4	24,8	53,0
Ez dute erantzun	0,4	0,4	0,7
Guztira	100	100	100
Batezbestekoa (0-10)	7,2	7,0	8,0

Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Seme-alabak izateari ematen zaion garrantziak haurrak izateko nahiari buruzko informazioa ematen digu. Guraso ez diren pertsonen artean, seme-alabak izan nahi dituztela diotenek 10etik 7,5eko garrantzia ematen diote gai horri. Umerik izan nahi duten zalantzan jartzen duten pertsonak, inoiz pentsatu ez dutenez, garrantzi txikia ematen diote (3,8), eta horrek adierazten du zergatik ez zuten inoiz planteatu. Eta seme-alabarik izan nahi ez dutela dioten pertsonak garrantzi oso txikia ematen diote (1,1); kolektibo horretan, erdiek baino gehiagok, zehazki % 61,0k, Oko garrantzia ematen diote seme-alabak izateari 0-10 eskalan.

4.3. taula

Euskadiko 25-39 urteko pertsonak seme-alabak izateari ematen dioten garrantzi-maila, seme-alabak izateko nahiaren arabera

0tik 10erako eskala erabiliz, zeinean 0a "garrantzirik ez" eta 10a "oso garrantzitsua" diren, zer garrantzi ematen diozu zure bizitzan seme-alabak izateari?					
(% bertikalak)	Guztira	Seme-alabak dituzte edo lehen seme-alabaren zain daude	Ez dute seme-alabarik, baina izan nahi dituzte	Ez dute seme-alabarik eta ez dakite izan nahi duten, ez dute horretan pentsatu	Ez dute seme-alabarik eta ez dute izan nahi
0	7,7	0,5	1,7	13,8	61,0
1	1,5	0,0	0,0	6,6	8,9
2	2,4	0,1	0,7	9,8	11,9
3	2,7	0,4	1,1	13,7	6,6
4	2,3	0,4	1,7	8,7	5,2
5	8,2	2,6	9,6	26,4	4,1
6	5,6	2,5	9,4	6,9	0,6
7	10,2	3,9	19,2	7,2	0,0
8	17,0	16,6	24,7	2,5	0,5
9	12,6	15,1	16,0	0,3	0,4
10	29,4	57,8	15,5	2,1	0,0
Ez dute erantzun	0,4	0,1	0,3	1,9	0,7
Guztira	100	100	100	100	100
Batezbestekoa (0-10)	7,2	9,1	7,5	3,8	1,1

Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak


4.3. Iritzia aldatu ahal izatea seme-alabarik izan nahi ez dutenen artean

Inkesta honetan seme-alabarik eduki nahi ez dutela adierazi duten pertsonen galdetu diegu ea iritziz aldatuko luketen haien egoera aldatuz gero. Hamarretik hiruk (% 29,9k) berriz planteatzea lezaketela diote, eta beste % 26,5ek ez dakite. % 43,6k, aldiz, seme-alabarik ez izateko erabakia irmoa dela adierazi du.

Erabaki irmoa dela berresten duten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da (seme-alabarik ez izateaz gain, eduki nahi ez dutenen % 46,8 eta % 39,5, hurrenez hurren).

Gráfico 4.3.

Seme-alabak izateari buruzko iritzia aldatzeko aukera, guraso ez diren eta izan nahi ez duten Euskadiko 25-39 urteko pertsonen aldetik (%)



Oinarria: Seme-alabarik ez duten eta eduki nahi ez duten 25-39 urteko pertsonak

Seme-alabarik ez izateko erabakia irmoa dela baieztatzen duten 25-39 urteko pertsonak gaur egun umerik ez duten adin horretako Euskadiko biztanleria osoaren % 6,3 dira. Zehazkiago, seme-alabarik ez duten emakumeen % 7,6 dira, eta seme-alabarik ez duten gizonen % 5,0.

Bestalde, beren egoera aldatuz gero haurrik ez izateko erabakia berriz planteatu lezaketela adierazi duten pertsonen modu irekian galdetu zaie zer zirkunstantzia aldatu beharko liratekeen seme-alabarik ez izateko erabakia aldatzeko. Pertsona horiek berez aipatu dute hainbat alderdiren arteko nahasketa, eta horien artean nagusi dira egoera ekonomikoa, lanekoa, kontziliazioarako aukerak eta etxebizitza eskuratzeko aukerak aldatzea.

“El hecho de tener un trabajo estable y fijo, o de tener una remuneración alta que no sea solo para pagar facturas... Si apenas puedo ahorrar para mí misma, como para poder pagar los gastos derivados de un bebé”. (Emakumea, 33 urtekoa)

“Tener casa propia... dinero para contratar a alguien; y más estabilidad profesional...”. (Emakumea, 33 urtekoa)

“Holgura económica, poder comprar una casa, trabajo flexible”. (Emakumea, 30 urtekoa)

“Que la vida no estuviese tan cara, que hubiese una mayor posibilidad de conciliación laboral”. (Emakumea, 34 urtekoa)

“Mi economía, la situación laboral y económica”. (Emakumea, 26 urtekoa)

“Emanciparme y tener estabilidad económica”. (Gizona, 25 urtekoa)

“Mayor poder adquisitivo, empleo estable y bien remunerado, menor jornada laboral”. (Gizona, 28 urtekoa)

“Un trabajo con mayores ingresos”. (Gizona, 30 urtekoa)

“Batez ere benetako kontziliazioa...Gastu publiko handiagoak eta errenta banaketa hobeak ere lagunduko luke, baina batez ere denbora gehiago izateak”. (Emakumea, 27 urtekoa)

“Erreztasun gehiago izatea zaintzarako (baja luzeagoa)”. (Gizona, 33 urtekoa)

Seme-alabak izan nahi dituen bikote egonkor bat izatea ere aipatu dute.

"Bikotekide egonkor bat izateak eta nire bikotekideak seme-alabak eduki nahi izateak". (Emakumea, 29 urtekoa)

"Conocer a alguien y que para esa persona tener hijos sea una necesidad a la hora de crear un proyecto de vida". (Gizona, 28 urtekoa)

"Bizitza aldaketa (bikotea...)". (Emakumea, 27 urtekoa)

"Una pareja que sí los quiera". (Emakumea, 28 urtekoa)

Beste pertsona batzuek adoptatzeko erraztasun gehiago eskatzen dituzte.

"No quiero tener hijos/as biológicos/as. Si la adopción fuera más sencilla tal vez me lo plantearía más adelante". (Emakumea, 31 urtekoa)

"Siendo un varón homosexual que no quiere tener descendencia por gestación subrogada en el extranjero, que el proceso de adopción fuese más sencillo y menos lento". (Gizona, 30 urtekoa)

Eta badira mentalitate-aldaketa baztertzen ez dutenak, urteak bete ahala.

"Que aparezca el reloj biológico". (Emakumea, 35 urtekoa)

"Que de repente me apeteciera". (Gizona, 38 urtekoa)

"Madurez". (Emakumea, 29 urtekoa)

"Siempre se puede cambiar de opinión". (Gizona, 39 urtekoa)

Nolanahi ere, pertsona askok aurreko alderdietako batzuen konbinazioa aipatzen dute.

"Un trabajo y sueldo mejor, tener pareja, una vivienda fija y estable. Recursos económicos y tiempo". (Emakumea, 30 urtekoa)

"Tener pareja, ganar más dinero". (Gizona, 37 urtekoa)

"Pareja estable, economía estable, vivienda en propiedad". (Emakumea, 25 urtekoa)

"Egoera ekonomikoa, lan egonkorra, bizitza proiektu bateratua...". (Emakumea, 27 urtekoa)

"Situación laboral, sentimental, de vivienda y de plan de vida futura". (Gizona, 27 urtekoa)

Eraitza nagusiak

Gaur egun seme-alabarik ez duten 25-39 urteko hiru pertsonatik bik adierazi dute bizitzako uneren batean eduki nahiko lituzketela (% 67,7). Beste % 17,8k ez daki, ez du planteatu, eta gainerako % 14,6k adierazi du ez duela seme-alabarik izan nahi (% 16,2 emakumeen kasuan eta % 12,6 gizonen kasuan).

Seme-alabarik izan nahi ez dutela diotenei galdetu zaie ea iritzia alda lezaketen haien egoera aldatuko balitz. % 29,9k adierazi du birplanteatu ahal izango lukeela bere egoera pertsonala aldatuko balitz eta, batez ere, lan-egoera, egoera ekonomikoa, etxebizitza eskuratzeko aukera edo kontziliazio-aukerak hobetuko balira. Era berean, umeak izan nahi dituen bikotekide egonkor bat izango balute edo oraingoz ez duten ama edo aita izateko nahia sortuko balitz iritziz alda lezaketela adierazi dute batzuek. Seme-alabarik izan nahi ez dutela diotenen artean, % 26,5ek ez daki iritzia aldatuko lukeen egoera aldatuko balitz. Baina pisu handieneko

taldea umerik ez izateko erabakia irmoa dela diotenek osatzen dute (% 43,6). Seme-alabarik ez duten 25-39 urteko pertsonen guztizkoari dagokionez, azken talde hori, hau da, inoiz ere umerik izan nahi ez dutela berresten duen taldea, % 6,3 da (% 7,6 emakumeen kasuan eta % 5,0 gizonen kasuan).

Seme-alabak izateari ematen zaion garrantzia oso desberdina da, edukitzearen eta eduki nahi izatearen arabera. Haurrak dituzten pertsonen 10etik 9,1eko garrantzia ematen diote seme-alabak izateari. Haurrik ez duten baina egunen batean eduki nahi dituzten pertsonen artean, 10etik 7,5ekoa da garrantzia. Seme-alabarik eduki nahi duten ala ez argi ez dutenen artean, garrantzia 3,8ra jaisten da. Azkenik, umerik izan nahi ez dutela adierazi duten pertsonen 1,1eko garrantzia ematen diote seme-alabak izateari.

5. Seme-alabarik eduki nahi ez izateko arrazoiak

Aurreko kapituluan ikusi dugunez, gaur egun seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonen % 14,6k adierazi du etorkizunean ere ez dituela eduki nahi. Jarraian, ikusiko dugu zer argudioekin bat egiten duten umerik eduki nahi ez izateko arrazoiak azaltzeko, eta ikusiko dugu, halaber, zer zirkunstantzia edo egoerak eragin dezaketen ondorengorik ez izateko erabaki horretan.

5.1. Seme-alabarik ez izateko erabakian hainbat arrazoik duten pisua

Seme-alabarik eduki nahi ez izateko arrazoiak aztertzeko, 12 arrazoiren zerrenda bat aurkeztu diegu, eta horietako bakoitzak 0-10 arteko puntuazioa emateko eskatu diegu, seme-alabarik ez izateko erabakian duten garrantziaren arabera.

Pertsona horiek emandako erantzunak oinarri hartuta, ikusten dugu seme-alabarik ez izatea erabakitzeko arrazoi nagusiak, hau da, pisu handiena dutenak, hauexek direla: bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi dutela (10etik 7,6), eta nahiago dutela bakarrik edo bikotekidearekin bizi, baina, nolanahi ere, seme-alabarik gabe (7,5).

5.1. grafikoa

Gaur egun seme-alabarik ez duten eta etorkizunean ere eduki nahi ez duten 25-39 urteko pertsonen artean, seme-alabarik ez izateko erabakian arrazoi hauetako bakoitzak duen eragina (0-10 arteko batezbestekoak)



Oinarria: Seme-alabarik ez duten eta eduki nahi ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Bost puntu baino gehiagoko pisuarekin honako arrazoi hauek ere badaude: uste dute seme-alabak ondo zaintzeak erantzukizun handiegia dakarrela (6,8), seme-alaben hazkuntza ekonomikoki oso garestia dela (6,3) eta, gaur egun gauzak dauden bezala (gerrak, klima-aldaketa, etab.), hobe dela haurrak mundura ez ekartzea (6,1).

Bost puntu baino pisu txikiagoekin beste argudio batzuk daude, hala nola ez zaizkiela gustatzen haurrak (4,3), seme-alabak oztopo direla karrera profesionala garatzeko (4,1), ez dutela familia-eredu patriarkala erreproduzitu nahi (3,4), aurreikusten dutela seme-alabak izateak ondorio kaltegarriak izango lituzkeela haien osasunean (2,9) edo ez dutela bikotekide egonkorrik eta ez dutela beraiek bakarrik seme-alabarik izan nahi (2,0).

Azkenik, gutxien pisatzen duten arrazoiak dira ezin dutela seme-alaba biologikorik izan eta ez dutela adoptatu nahi (1,5) edo bikotekideak ez duela nahi (1,7).

Bestalde, aurreko arrazoiez gain, pertsona batzuek (zehazki, umerik izan nahi ez dutenen % 26,8k) beste arrazoi batzuk adierazi dituzte berez, edo emandako arrazoi batzuk indartu dituzte.

Idatzitako arrazoiaren artean, honako hauek nabarmentzen dira: ez dutela nahi, beren bizi-proiektuan ez direla seme-alabak sartzen edo ez dutela amatasun- edo aitatasun-senik.

“Aurreko arrazoietatik aparte, sinpleki, ez dudalako nahi. Ez da nire bizitza-proiektuan sartzen den zerbait”. (Pertsona ez bitarra, 26 urtekoa)

“El estilo de vida que me gusta tener no es igual de viable con hijos, y tenerlos no es tan importante para mí como la vida que me gusta tener”. (Gizona, 28 urtekoa)

“Actualmente no estoy dispuesta a sacrificar mi estilo de vida por hijos”. (Emakumea, 29 urtekoa)

“Demasiada renuncia en la vida y no estoy dispuesta”. (Emakumea, 35 urtekoa)

“Para mí mi independencia es fundamental”. (Emakumea, 32 urtekoa)

“No tengo necesidad”. (Emakumea, 31 urtekoa)

“Nunca he querido tener hijos o hijas”. (Emakumea, 34 urtekoa)

“Tener hijos te hace renunciar a tu individualidad y a tu vida propia para centrarte únicamente en la suya”. (Gizona, 27 urtekoa)

“Bastante tengo con lo mío. No tengo innato el sentimiento de tener hijos”. (Hombre, 28 años)

“No tengo instinto maternal”. (Emakumea, 35 urtekoa)

“No me apetece, no me hace ilusión”. (Gizona, 38 urtekoa)

“Está sobrevalorado”. (Emakumea, 29 urtekoa)

Halaber, zailtasun ekonomikoak, lanekoak, emantzipatzeko eta kontziliatzeko arazoak aipatu dituzte, berriro ere. Seme-alabak haztea erantzukizun handitzat jotzen da, eta ondo egin beharreko zerbait dela diote edo, bestela, hobe ez egitea.

“No es compatible tener un hijo con los trabajos que tenemos mi pareja y yo. Para no poder dedicarle el tiempo que necesita y tenerlo mal atendido prefiero no traer hijos”. (Emakumea, 27 urtekoa)

“Ez dudalako egonkortasun ekonomikorik, eta ez dakidalako etorkizunean nire egoera nolakoa izango den”. (Emakumea, 29 urtekoa)

“Ez dut bideragarria ikusten lanarekin”. (Gizona, 33 urtekoa)

“Porque si no te puedes ni permitir una casa como para tener un hijo”. (Emakumea, 30 urtekoa)

“Denbora asko eskatzen du eta ez daukat denbora nahikorik”. (Emakumea, 27 urtekoa)

“No quiero esa responsabilidad”. (Emakumea, 38 urtekoa)

Emakumeek eta gizonek aurkeztutako arrazoi bakoitzari ematen dizkioten puntuazioak aztertzen baditugu, ikusiko dugu bi kasuetan pisu handiena dutenak bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi izatea eta seme-alabarik gabe bizi nahi izatea direla, nahiz eta zehaztu behar den azken horrek duela pisu handiena gizonen artean. Gainera, emakumeen artean seme-alabak ondo zaintzeak erantzukizun handiegia dakarrela pentsatzeak ere 7 puntu baino gehiago jaso ditu.

Oro har, seme-alabarik ez izateko erabakian edo nahian, emakumeek gizonek baino pisu handiagoa ematen diote bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi izateari, erantzukizun handiegia izateari, hazkuntza ekonomikoki oso garestia izateari, seme-alabak lanbide-ibilbidea garatzeko oztopo izateari eta familia-eredu patriarkala erreproduzitu nahi ez izateari, baina aldea nabarmenagoa da honako argudio honi dagokionez: gaur egun gauzak dauden bezala, hobe dela haurrak mundura ez ekartzea (emakumeek 10etik 6,8ko pisua ematen diote, eta gizonek, berriz, 5,3ko pisua). Emakumeek gizonek baino pisu handiagoa ematen diete, halaber, seme-alabak izateak osasunean izango lituzkeen ondorio negatiboak.

Adin-taldearen arabera analisiak (eta horretarako 30-39 urteko pertsonak batuko ditugu, laginean seme-alabarik ez duten eta izan nahi ez duten adin horretako pertsonen kopurua txikia baita) erakusten du, bai 30 urtetik beherakoaren artean, bai adin-muga hori gainditzen dutenen artean, bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi izatea eta seme-alabarik gabe bizi nahi izatea direla bi arrazoi nagusiak.

Oro har, 25-29 urteko pertsonen pisu altuagoak ematen dizkiete aurkeztu zaizkien argudio guztiei, salbu eta bikotekideak umerik izan nahi ez duela, edo ezin dutela seme-alaba biologikorik izan eta ez dutela adopzioa jo nahi. Alderik nabarmenena (1,5 puntuko aldea) seme-alaben hazkuntza ekonomikoki oso garestia delako argudioari dagokiona da.

Ezin da datu esanguratsurik eman jaiolekuaren arabera; izan ere, atzerrian jaio diren eta seme-alabarik ez duten eta izan nahi ez duten pertsonen kopurua txikia da, eta, beraz, haien erantzunek ez lukete beharrezko estatistika-zorroztasunik.

5.1.taula.

Seme-alabarik ez izateko erabakian arrazoi hauetako bakoitzak duen eragina, sexuaren eta adin-taldearen arabera (0-10 arteko batezbestekoak)

Zergatik ez duzu seme-alabarik izan nahi? Zenbateko pisua du, 0tik 10era, arrazoi hauetako bakoitzak seme-alabarik ez izateko zure erabakian?					
(0-10 arteko batezbestekoak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak	
		Emakumeak	Gizonak	25-29 urte	30-39 urte
Bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi duzulako	7,6	7,9	7,3	7,9	7,5
Bakarrik edo bikotekidearekin bizitzea nahiago duzulako, baina, nolanahi ere, seme-alabarik gabe	7,5	7,5	7,6	7,9	7,3
Seme-alabak ondo zaintzeak erantzukizun handiegia dakarrelako	6,8	7,1	6,5	7,1	6,7
Seme-alabak haztea ekonomikoki oso garestia delako	6,3	6,8	5,8	7,2	5,7
Gauzak dauden bezala (gerrak, klima-aldaketa, etab.) hobe delako ez ekartzea haurrik mundura	6,1	6,8	5,3	6,6	5,7
Haurrak ez zaizkizulako gustatzen	4,3	4,5	4,1	4,9	3,9
Seme-alabak oztopo direlako zure ibilbide profesionala garatzeko	4,1	4,8	3,8	4,5	3,8
Ez duzulako familia-eredu patriarkala erreproduzitu nahi	3,4	3,5	3,0	3,9	3,1
Seme-alabak izateak ondorio kaltegarriak izango lituzkeelako zure osasunean	2,9	3,8	1,7	3,0	2,7
Ez duzulako bikotekide egonkorrik eta ez duzu seme-alabarik bakarrik izan nahi	2,0	1,5	2,5	2,1	1,8
Zure bikotekideak ez duelako nahi	1,7	1,8	1,6	1,2	2,1
Ezin duzulako seme-alabarik izan nahi eta ez duzulako adoptatu nahi	1,5	1,2	1,8	1,2	1,7

Oinarria: Seme-alabarik ez duten eta eduki nahi ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Batez besteko pisu handiena lortu duten hiru arrazoiei emakumeek eta gizonak emandako erantzunen portzentajezko banaketari erreparatzen badiogu, ikusten dugu emakumeek gizonak baino proportzio handiagoan ematen dietela pisu handiena (10 puntu) planteatutako hiru argudio horiei: bizitza beste proiektu batzuetan eman nahi dutela, bakarrik edo bikotean bizi nahi dutela, baina seme-alabarik gabe, edo uste dutela umeak ondo zaintzeak erantzukizun handiegia dakarrela.

Zehazki, bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi izateari dagokionez, ama ez diren eta izan nahi ez duten emakumeen % 42,8k 10 puntuko garrantzia ematen diote argudio horri; gizonen kasuan, % 28,6k. Bakarrik edo bikotekidearekin bizi nahi izateari dagokionez, seme-alabarik izan nahi ez duten emakumeen % 41,5ek 10 puntuko pisua eman diote arrazoi horri; 10 puntu eman dizkieten gizonak % 34,2 izan dira. Seme-alabak ondo zaintzeak erantzukizun handiegia dakarrela kontuan hartuta, seme-alabarik izan nahi ez duten emakumeen % 34,0k ematen dio argudio horri garrantzi handiena, eta gizonen artean, berriz, gutxiago dira (% 20,6) 10 ematen diotenak.

5.2.taula.

Seme-alabarik ez izateko erabakian arrazoi hauetako bakoitzak duen eragina, sexuaren arabera (%)

Zergatik ez duzu seme-alabarik izan nahi? Zenbateko pisua du, 0tik 10era, arrazoi hauetako bakoitzak seme-alabarik ez izateko zure erabakian?									
	BIZITZA BESTE PROIEKTU BATZUETARA BIDERATU NAHI DUZULAKO			BAKARRIK EDO BIKOTEKI-DEAREKIN BIZITZEA NAHIAGO DUZULAKO, NOLANAHI ERE, SEME-ALABARIK GABE			SEME-ALABAK ONDO ZAINTEAK ERANTZUKIZUN HANDIEGIA DAKARRELAKO		
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
		Emaku-meak	Gizonak		Emaku-meak	Gizonak		Emaku-meak	Gizonak
0	4,1	5,5	2,3	5,8	6,1	5,1	9,4	9,8	8,9
1	0,9	0,6	1,3	1,4	2,8	0,0	1,3	1,4	1,3
2	1,4	0,0	2,9	1,4	0,0	3,0	1,8	1,3	2,5
3	3,1	1,6	4,8	3,2	5,6	0,9	5,8	3,8	8,3
4	1,0	1,1	0,9	3,2	1,3	4,0	1,7	2,9	0,0
5	11,3	10,9	12,5	8,8	8,8	8,5	9,3	6,6	11,4
6	5,4	1,5	9,7	4,2	4,2	4,6	5,2	4,4	6,3
7	9,2	11,9	7,0	5,0	3,4	6,4	11,5	12,1	11,6
8	15,3	11,2	17,7	17,3	16,9	18,7	15,1	11,6	19,1
9	12,2	12,1	12,4	12,3	9,4	14,7	11,1	12,2	9,1
10	35,8	42,8	28,6	37,5	41,5	34,2	27,2	34,0	20,6
Ez dute erantzun	0,4	0,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,5	0,0	1,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Batezbestekoa (0-10)	7,6	7,9	7,3	7,5	7,5	7,6	6,8	7,1	6,5

Oinarria: Seme-alabarik ez duten eta eduki nahi ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Gizonen eta emakumeen arteko aldeak nabarmenak dira, berriz ere, honako argudio hauei 10 puntuko garrantzia eman diotenen portzentajeei erreparatzen badiegu: gauzak dauden bezala egonda, hobe da haurrak mundura ez ekartzea (emakumeen % 36,9k eta gizonen % 21,5ek) edo haurrak ez zaizkiela gustatzen (emakumeen % 22,0k eta gizonen % 14,1ek).

Seme-alaben hazkuntza ekonomikoki oso garestia delako argudioari dagokionez, aldeak nabarmenagoak dira argudio horrek beren erabakian inolako pisurik ez duela adierazi dutenei erreparatzen badiegu. Gizonen % 17,0k 0 puntu eman dizkio argudio horri; emakumeen artean, % 9,9k.

Halaber, gauzak dauden bezala egonda, haurrak mundura ez ekartzea hobe dela dioten argudioaren kasuan, gizonen emakumeek baino portzentaje handiagoak dituzte 0 puntu eman dizkiotenei erreparatuz gero (gizonen % 22,3k eta emakumeen % 11,3k). Izan ere, argudio horri 0 puntuko pisua eman dioten gizonak gehiago dira 10 puntu eman dizkiotenak baino.

5.3.taula.

Seme-alabarik ez izateko erabakian arrazoi hauetako bakoitzak duen eragina, sexuaren arabera (%)

Zergatik ez duzu seme-alabarik izan nahi? Zenbateko pisua du, 0tik 10era, arrazoi hauetako bakoitzak seme-alabarik ez izateko zure erabakian?									
	SEME-ALABAK HAZTEA EKONOMIKOKI OSO GARESTIA DELAKO			GAUZAK DAUDEN BEZALA (GERRAK, KLIMA-ALDAKETA ETAB.) HOBE DELAKO EZ EKARTZEA HAURRIK MUNDURA			HAURRAK EZ ZAIZKIZULAKO GUSTATZEN		
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
		Emaku- meak	Gizonak		Emaku- meak	Gizonak		Emaku- meak	Gizonak
0	13,9	9,9	17,0	16,2	11,3	22,3	34,2	33,8	33,8
1	1,0	0,8	1,1	1,5	2,1	0,9	3,9	3,7	3,7
2	2,0	3,1	1,0	4,7	3,0	5,4	5,0	4,2	6,3
3	5,4	3,8	7,5	6,5	6,3	7,2	5,7	6,0	5,6
4	4,9	1,6	7,3	2,9	2,7	3,2	3,9	3,3	3,9
5	10,2	11,4	9,6	8,8	7,4	10,8	8,1	5,2	11,7
6	7,2	5,4	9,4	6,7	3,8	9,2	6,7	8,2	5,5
7	8,9	10,3	7,1	6,6	6,2	6,7	3,9	3,8	3,5
8	12,9	16,3	9,6	8,5	8,1	7,4	4,8	4,5	5,5
9	8,3	9,8	5,7	8,6	11,5	5,4	5,6	5,2	6,4
10	24,7	27,6	23,4	28,7	36,9	21,5	18,2	22,0	14,1
Ez dute erantzun	0,7	0,0	1,4	0,3	0,6	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Batezbestekoa (0-10)	6,3	6,8	5,8	6,1	6,8	5,3	4,3	4,5	4,1

Oinarria: Seme-alabarik ez duten eta eduki nahi ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Seme-alabak garapen profesionalerako oztopo direla edo seme-alabak izateak haien osasunean ondorio negatiboak izango lituzkeela pentsatzea garrantzi handiagoko argudioak dira emakumeentzat, eta horrela ikusten da bi arrazoi horiei 10 puntuko pisua eman dietenen ehunekoei erreparatzen badiugu.

Aitzitik, familiaren eredu patriarkala erreproduzitu nahi ez dutela edo seme-alabak izateak osasunean ondorio kaltegarriak izango lituzkeela dioten argudioei 0 puntu eman dietenei erreparatzen badiugu, ikusten dugu gizonen ehunekoei emakumeenak baino dezente handiagoak direla. Gizonen artean, erdiak baino gehiagok (% 56,1ek), 0 puntu eman dizkiete seme-alabak izateak osasunean izango lituzkeen ondorio negatiboak, eta beste % 45,0k familia eredu patriarkala erreproduzitu nahi ez izateari ere 0 eman dio.

Planteatutako gainerako argudioek (bikotekide egonkorrik ez dutela eta beraiek bakarrik umerik izan nahi ez dutela, bikotekideak haurrik izan nahi ez duela, eta ezin dutela seme-alaba biologikorik izan eta adoptatu nahi ez dutela) pisu txikia izan dute, bai emakumeen artean, bai gizonen artean (batez bestekoak 3tik beherakoak dira kasu guztietan), beraz, argudio horiei dagozkien portzentajeen banaketan ez dugu sakonduko.

5.4.taula.

Seme-alabarik ez izateko erabakian arrazoi hauetako bakoitzak duen eragina, sexuaren arabera (%)

Zergatik ez duzu seme-alabarik izan nahi? Zenbateko pisua du, 0tik 10era, arrazoi hauetako bakoitzak seme-alabarik ez izateko zure erabakian?									
	SEME-ALABAK OZTOPO DIRELAKO ZURE IBILBIDE PROFESIONALA GARATZEKO			EZ DUZULAKO FAMILIA-EREDU PATRIARKALA ERREPRODUZITU NAHI			SEME-ALABAK IZATEAK ONDORIO KALTEGARRIAK IZANGO LITUZKEELAKO ZURE OSASUNEAN		
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
		Emaku-meak	Gizonak		Emaku-meak	Gizonak		Emaku-meak	Gizonak
0	28,8	31,4	27,2	38,6	34,8	45,0	44,5	35,4	56,1
1	4,0	5,1	3,2	4,1	6,5	1,8	5,7	5,3	6,5
2	6,7	3,5	9,8	7,2	9,2	5,5	7,6	7,6	7,3
3	8,4	5,7	11,7	4,4	2,5	6,7	7,5	4,1	11,4
4	3,1	3,4	2,1	5,4	3,3	7,9	2,1	2,0	2,4
5	11,4	10,6	11,6	8,6	10,2	7,5	7,1	10,8	3,7
6	9,1	9,8	9,0	5,0	6,9	3,3	5,5	7,6	2,7
7	8,9	4,1	12,3	3,8	4,7	3,2	4,2	5,0	2,3
8	5,4	7,4	2,9	6,4	6,2	4,4	6,0	7,9	2,5
9	4,6	4,9	4,7	3,9	2,8	4,0	3,1	3,2	3,2
10	9,2	14,3	4,6	9,5	9,2	8,0	5,7	11,0	0,0
Ez dute erantzun	0,5	0,0	1,0	3,2	3,7	2,9	1,0	0,0	2,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Batezbestekoa (0-10)	4,1	4,3	3,8	3,4	3,5	3,0	2,9	3,8	1,7

Oinarria: Seme-alabarik ez duten eta eduki nahi ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

5.2. Seme-alabak izateko asmoa kenarazi dezaketen alderdi batzuk

Zenbait argudiok seme-alabarik ez izateko erabakian izan dezaketen pisuaz gain, badira hainbat zirkunstantzia umerik ez izateko erabakian ere eragina izan dezaketenak. Lehen ikusi dugun bezala, haurrak izateak hainbat aldaketa dakartza bizitzan, eta horiek ez dituzte pertsona guztiak berdin kezkatzen. Pentsa daiteke pertsona batzuk ez liratekeela prest egongo aldaketa horiek onartzeko, eta horrek seme-alabarik ez izateko nahia ekarriko lukeela. Hipotesi hori baliozkotzeko, oraindik umerik ez duten pertsonen artean, seme-alabak izateko nahia aztertu dugu, proposatutako aldaketa bakoitzarekiko duten kezka-mailaren arabera.

Datuek erakusten dute gai horiek asko edo nahikoa kezkatzen dituzten pertsonak seme-alabak izateko gogo txikiagoa dutela kezka gutxi edo batere kezkarik ez dutela dioten pertsonak baino.

Seme-alabarik izan nahi ez dutela gehien adierazten duten pertsonak (% 20,5) beren bizimodua aldatu beharrak asko edo nahikoa kezkatzen dituenak dira. Beren buruarentzat denborarik ez izateak edo erosteko ahalmena galtzeak kezka handia edo nahikoa eragiten dien pertsonen artean, seme-alabarik izan nahi ez dutenen ehunekoak ere % 18tik gorakoak dira.

Nolanahi ere, aipatu behar da, bai aipatutako aldaketekin oso edo nahiko kezkatuta dauden pertsonen artean, bai bizitzan gerta litezkeen aldaketa horiek gutxi edo batere kezkatuko ez

lituzketen pertsonen artean, gehienek beren bizitzako uneren batean seme-alabak izateko nahia adierazten dutela.

5.5.taula.

Gaur egun seme-alabarik ez duten Euskadiko 25-39 urteko pertsonen egunen batean seme-alabak izan nahi izatea, seme-alabak izanez gero beraien bizitzan gerta litezkeen hainbat aldaketak sortzen duten kezkaren arabera (% horizontalak)

Gustatuko litzaizuke zure bizitzako uneren batean seme-alabak izatea?					
(% horizontalak)		SEME-ALABAK IZATEKO GOGOIA			
SEME-ALABAK IZANEZ GERO GERTA LITEZKEEN ALDAKETAK	ALDAKETA HORIEK SORTZEN DUTEN KEZKA-MAILA	Bai	Ez	Ez dakizu, ez duzu horretan pentsatu	Guztira
Astirik zuretzat ez izatea	Asko edo nahikoa	58,3	18,9	22,8	100
	Gutxi edo ezer ez	85,2	6,5	8,3	100
Zure osasun fisikoa edo mentala kaltetzea	Asko edo nahikoa	61,9	16,7	21,3	100
	Gutxi edo ezer ez	76,2	11,2	12,5	100
Zure bizimodua aldatu beharra	Asko edo nahikoa	55,0	20,5	24,6	100
	Gutxi edo ezer ez	83,6	7,0	9,3	100
Zure bikote-harremana ahultzea	Asko edo nahikoa	66,9	14,2	18,9	100
	Gutxi edo ezer ez	68,7	14,5	16,8	100
Guraso gisa jarduten ez jakitea	Asko edo nahikoa	65,1	15,2	19,7	100
	Gutxi edo ezer ez	71,0	13,4	15,5	100
Erosteke ahalmena galtzea	Asko edo nahikoa	56,1	18,3	25,5	100
	Gutxi edo ezer ez	79,8	10,4	9,8	100
Zure proiektu profesionalak garatu ezin izatea	Asko edo nahikoa	60,0	17,0	23,0	100
	Gutxi edo ezer ez	75,3	12,2	12,6	100
Zure lagunartea aldatu beharra	Asko edo nahikoa	58,7	17,0	24,3	100
	Gutxi edo ezer ez	71,4	13,5	15,1	100

Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Seme-alabak edukiz gero gerta litezkeen aldaketa horiek asko edo nahikoa kezkatzen dituztela adierazten duten pertsonen soilik erreparatzen badiegu, eta emakumeen eta gizonen erantzunen arteko bereizketa egiten badugu, ikusiko dugu, oro har, emakumeek gizonen baino neurri handixeagoan diotela seme-alabarik izan nahi ez dutela, eta gizonen, berriz, emakumeen baino neurri handiagoan erantzuten dutela ez dutela horretan inoiz pentsatu.

Desberdintasun nabarmenenak bikote-harremana ahultzearekin, osasun fisiko edo mentala kaltetzearekin edo guraso gisa jarduten ez jakitearekin lotuta daude. Kezka edo beldur horiek direla eta, seme-alabak izateko gogo txikiagoa adierazten dute emakumeek gizonen baino. Bestalde, umerik izan nahi ez dutenen ehunekoak handixeagoak dira, berriro ere, emakumeen artean gizonen artean baino, balizko aldaketa hauei dagokienez: bizimodua aldatu beharra, proiektu profesionalak garatu ezin izatea edo erosteke ahalmena galtzea.

5.6.taula.

Gaur egun seme-alabarik ez duten eta, izanez gero, beraien bizitzan gerta litezkeen hainbat aldaketak asko edo nahikoa kezkatuko lituzkeen 25-39 urteko pertsonen egunen batean seme-alabak izan nahi izatea, sexuaren arabera (% horizontalak)

Gustatuko litzaizuke zure bizitzako uneren batean seme-alabak izatea?					
(% horizontalak)		SEME-ALABAK IZATEKO GOGOIA			
SEME-ALABAK IZANEZ GERO ASKO EDO NAHIKOA KEZKATUKO LUKETEN ALDAKETAK	SEXUA	Bai	Ez	Ez dakizu, ez duzu horretan pentsatu	Guztira
Astirik zuretzat ez izateak asko edo nahikoa kezkatzen du	Emakumeak	59,3	19,3	21,4	100
	Gizonak	58,3	17,5	24,2	100
Zure osasun fisikoa edo mentala kaltetzeak asko edo nahikoa kezkatzen du	Emakumeak	61,6	18,5	19,9	100
	Gizonak	63,3	13,4	23,4	100
Zure bizimodua aldatu beharrak asko edo nahikoa kezkatzen du	Emakumeak	55,0	21,8	23,2	100
	Gizonak	56,0	18,1	25,8	100
Zure bikote-harremana ahultzeak asko edo nahikoa kezkatzen du	Emakumeak	65,6	17,1	17,3	100
	Gizonak	68,6	10,8	20,6	100
Guraso gisa jarduten ez jakiteak asko edo nahikoa kezkatzen du	Emakumeak	64,5	16,9	18,6	100
	Gizonak	66,6	12,5	20,9	100
Erosteko ahalmena galtzeak asko edo nahikoa kezkatzen du	Emakumeak	56,5	19,8	23,7	100
	Gizonak	56,6	16,2	27,3	100
Zure proiektu profesionalak garatu ezin izateak asko edo nahikoa kezkatzen du	Emakumeak	61,5	18,3	20,2	100
	Gizonak	59,0	14,7	26,3	100
Zure lagunartea aldatu beharrak asko edo nahikoa kezkatzen du	Emakumeak	62,3	15,2	22,5	100
	Gizonak	56,9	16,8	26,3	100

Oinarria: Seme-alabarik ez duten eta proposatutako aldaketa bakoitzak asko edo nahikoa kezkatuko lituzkeen 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

5.3. Ama izan ondoren bikotean izaten den rolen banaketari buruzko ideien eragina emakumeek seme-alabak izateko duten nahian

A priori, pentsa dezakegu bikotearen barruko rolen negoziazioak edo rolen banaketa hori nolakoa izango litzatekeen adierazten duten ideiek eragin zuzena dutela amatasunari edo aitatasunari buruzko erabakietan. Hazkuntzan edo etxean zama handiagoa hartu beharko luketela edo lanbide-helburuei uko egin beharko lieketela uste duten emakumeek pizgarri gutxiago sumatu ditzakete seme-alabak izateko. Aitzitik, zereginak berdintasunez banatzeko edo lanbideari uko egite gutxiago pairatzeko itxaropena dagoenean, baliteke seme-alabak izateko prestasun handiagoa egotea.

Jarraian, ikusiko dugu seme-alabak izateak bikoteko kideen arteko rolen banaketan dituen ondorioei buruzko ideiek eragina ote duten seme-alabak izateko nahian.

Horretarako neurtu dugu emakumeek haurrak izateko duten nahia honako ideia hauekiko adostasunaren arabera: seme-alabak izateak etxean lan-karga handiagoa eta lanbidean uko egite handiagoa dakarkiola emakumeei gizonen baino, bai eta emakumeak gizonak baino gehiago inplikatzeko direla seme-alaben hazkuntzan ere. Emaitez erakusten dute ideia horiekin oso edo

nahiko ados dauden emakumeek umeak izateko gogo txikiagoak dituztela, ideia horiekin ez oso ados edo batere ados ez daudenek baino.

5.7.taula

Egunen batean seme-alabak izateko nahia, ama ez diren 25-39 urteko emakumeen aldetik, seme-alabak izan ondoren bikotekideen arteko rolen banaketari buruzko ideiekin duten adostasun-mailaren arabera (%)

Gustatuko litzaizuke zure bizitzako uneraren batean seme-alabak izatea?*							
(% bertikalak)	Guztira	Seme-alabak izateak ekar ditzakeen ondorioei buruzko iritziak					
		Etxeko lan-karga handiagoa emakumeentzat gizonentzat baino		Uko profesional handiagoa emakumeentzat gizonentzat baino		Emakumeek gizonak baino gehiago inplikatzeko dira seme-alaben hazkuntzan	
		Oso ados + nahiko ados	Ez oso ados + batere ados ez	Oso ados + nahiko ados	Ez oso ados + batere ados ez	Oso ados + nahiko ados	Ez oso ados + batere ados ez
Bai	66,0	64,1	78,9	65,8	68,8	64,8	73,3
Ez	16,2	17,2	8,9	16,7	11,1	17,7	7,3
Ez dakizu, ez duzu horretan pentsatu	17,8	18,6	12,2	17,5	20,1	17,5	19,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

*Datu hauek seme-alabarik ez duten emakumeei dagozkie

Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko emakumeak

Emitza nagusiak

Seme-alabarik ez duten 25-39 urteko pertsonen % 14,6k adierazi dute ez dituztela izan nahi. Zergatik ote den hori aztertzeko, ikertzaileek hainbat arrazoren zerrenda bat proposatu die eta zerrenda horretan agertzen den arrazoi bakoitzak zenbateko pisua duen (0 eta 10 eskalan) haien erabakian adieraz dezaten eskatu zaie.

Seme-alabarik ez izateko erabakian eragin handiena duen arrazoa bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi izatea da, 10etik 7,6 puntuko garrantzia edo eragina izanik. Eta bigarrena da bakarrik edo bikotekidearekin bizitzea (baina, edonola ere, umerik gabe) nahiago izatea. Arrazoi horrek 7,5eko puntuazioa jaso du.

Bost puntu baino gehiago (0-10 eskalan) jaso dituzte honako arrazoi hauek ere: seme-alabak ondo zaintzeak erantzukizun handiegia dakarrela (6,8), seme-alaben hazkuntza, ekonomikoki, oso garestia dela (6,3), eta, gaur egun gauzak dauden bezala (gerrak, klima-aldaketa, etab.), hobe dela haurrak mundura ez ekartzea (6,1).

Gainerako arrazoiak ez dira 10etik 5era iristen, seme-alabarik ez izateko erabakian duten eragin-mailari dagokionez. Hauexek dira arrazoi horiek: haurrak ez zaizkiola gustatzen (4,3), haurrak lanbide-karrera garatzeko oztopo direla (4,1), familia-eredu patriarkala errepikatu nahi ez duela (3,5), umeak izateak bere osasunean ondorio kaltegarriak izango lituzkeela (2,9), bikotekide egonkorrik ez duela eta bakarrik eduki nahi ez dituela (2,0), bikotekideak ez duela nahi (1,7) edo ezin dutela seme-alaba biologikorik izan eta ez dutela adoptatu nahi (1,5).

Beste arrazoi batzuk berez eman dituztenek adierazi dute ez dutela amatasun- edo aitatasun-senik, beren bizi-proiektuan ez direla haurrak sartzen, eta/edo hainbat zailtasun dituztela: ekonomikoak, lanekoak, emantzipatzeko edo kontziliatzeko zailtasunak.

Bestalde, seme-alabak izanez gero, beren bizimodua aldatu beharrak, bere buruarentzako denborarik ez izateak edo erosteko ahalmena galtzeak asko edo nahikoa kezkatuko lituzkeen pertsonak gainerakoek baino neurri handiagoan adierazten dute ez dutela haurrik izan nahi (% 18tik gorako ehunekoekin).

Seme-alabarik ez duten emakumeen artean, gaur egun ere, haurrak izateak lan-karga handiagoa dakarkiola etxean emakumeei gizonak baino, eta emakumeak gizonak baino gehiago inplikatzeko direla seme-alaben hazkuntzan dioten ideiekin oso edo nahiko ados daudenek iritzi horiekin bat ez datozenek baino neurri handiagoan adierazten dute seme-alabarik ez izateko erabakia.

6. Seme-alabak eduki nahi izateko motibazioak

Inkesta honetan argi geratu da seme-alabarik ez duten 25-39 urteko pertsona gehienek beren bizitzako unerren batean eduki nahi dituztela. Jarraian, pertsonak seme-alabak izatera eramaten dituzten motibazioak aztertuko ditugu. Horretarako, kontuan izango ditugu bai umeren bat dutenen iritzia, bai etorkizunean eduki nahi dituztela adierazten dutenenak.


6.1. Hainbat arrazoren pisua seme-alabak izateko erabakian

Seme-alabarik izan nahi ez duten pertsonen zergatik ez duten nahi galdetu zaie bezala, seme-alabaren bat duten pertsonen, bai eta seme-alabak izateko nahia adierazten dutenei ere, galdetu zaie zer arrazoi dauden nahi horren atzean. Horretarako, zortzi arrazoi desberdin proposatu dizkiegu, eta 0tik 10era puntuatzeko eskatu diegu, kontuan hartuta 0ak esan nahi duela arrazoi horrek ez diola batere eragiten, eta 10ak eragin handia duela.

Bai seme-alabaren bat dutenek bai seme-alabarik ez duten baina bizitzako unerren batean eduki nahi dituzten pertsonen gehien argudiatzen duten arrazoiak da seme edo alaba batek bizitza aberasten duela (oro har, 10etik 8,2ko puntuazioa lortzen du arrazoi horrek). Bigarren arrazoi nabarmenena haurrak asko gustatzen zaizkiela da (7,7), eta hirugarren arrazoi aipatuena da seme-alabak izateko sen biologikoa sentitu edo sentitzen dutela (7,1).

6.1.taula

Gaur egun seme-alabak dituzten edota etorkizunean izan nahi dituzten 25-39 urteko pertsonen artean, seme-alabak izateko erabakian edo nahian arrazoi hauetako bakoitzak duen eragina (0-10 arteko batezbestekoak)



Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

0-10 eskalan, 5 puntutik gorako puntuazioekin argumentu hauek ere aurkitzen ditugu: bere familia-eredu idealean seme-alabak sartzen direla (6,5), eta uste dutela ama edo aita badira zoriontsuagoa izango direla edo beren bizitzekin gusturago egongo direla (6,4).


Seme-alabak dituzten pertsonen artean, bikotekideak asko desiratzen zuela argudiatzeak ere 5 puntutik gorako pisua du, baina seme-alabarik ez dutenen artean, aldiz, ez; bi taldeen batez bestekoa 5,3koa da.

Nagusi denean konpainia edo arduratuko den norbait nahi izatea, edo familiaren abizena edo jabetzak mantendu nahi izatea, pisu gutxiko arrazoiak dira (3,8 eta 3,1, hurrenez hurren).

Seme-alabarik ez duten baina egunen batean eduki nahiko lituzketen pertsonen erantzunak seme-alabaren bat duten pertsonen dagozkienekin alderatzen baditugu, ikusten dugu azken horiek (hau da, guraso direnek) neurri handiagoan adierazten dutela ume batek bizitza aberasten duela, seme-alabak izateko sen biologikoa sentitu zutela, bere familia-eredu idealean seme-alabak daudela, ama edo aita izanda zoriontsuagoak izango lirатеkeela edo beren bizitzarekin gusturago egongo lirатеkeela uste zutela, bikotekideak asko desiratzen zuela, edo haurrak asko gustatzen zaizkiela.

6.2.grafikoa.

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonen eta seme-alabaren bat duten adin bereko pertsonen arteko alderaketa, honako arrazoi hauetako bakoitzak seme-alabak izateko erabakian edo nahian duen eraginari dagokionez (0-10 arteko batezbestekoak)



Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Arrazoi aipagarrienak, beraz, seme-alabak edukitzeak dakartzan onura emozionalei buruzkoak dira, bai eta seme-alabak izateko senari buruzkoa ere (sen naturala edo sozialki eraikia). Familia idealak haurrak barne hartzeari edo seme-alabek zoriontasuna ekartzeari buruzko eredu kulturalak ere nahiko barneratuta daude.

Gainera, pertsona batzuek berez beste arrazoi batzuk aipatu dituzte, hala nola amatasunaren/aitatasunaren esperientzia bizitzeko nahia, ezagutzak edo balioak transmititzeko

nahia, ingurune hurbilaren eragina edo presioa, beren ustez igaro beharreko bizitzaren etapa bat dela, izan zutena baino familia hobea osatu nahi dutela, etab. Arrazoi horiek entzuten dira bai seme-alabak dituztenen artean bai, oraindik guraso ez badira ere, egunen batean seme-alabak eduki nahi dituzten artean. Gainera, guraso direnen kasuan, planifikatu gabeko seme-alabak izan direla ere aipatu dute. Jarraian, inkestatutako pertsonen modu espontaneoan adierazitako arrazoien adibide batzuk azalduko ditugu.

“Desde muy pequeña soñaba con tener niños, para mi es lo mejor que he podido hacer, conlleva mucho sacrificio, pero también una gratitud enorme”. (Emakumea, 32 urtekoa, seme-alabak ditu)

“Simplemente queríamos y creíamos que era el momento”. (Gizona, 39 urtekoa, seme-alabak ditu)

“Sentí el momento (reloj biológico) de querer tener una familia y cambiar mi modelo de vida”. (Emakumea, 36 urtekoa, seme-alabak ditu)

“No sé si es el ‘reloj biológico’. Simplemente, sé que quiero ser madre algún día. Lo tengo seguro desde siempre”. (Emakumea, 27 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Nire bizitzan bizi dezakedan esperientzia bat dela uste dudalako eta ez dudalako esperientzia hori galdu nahi”. (Emakumea, 27 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“He sido hija única y siempre he echado de menos tener un hermano/a en el que apoyarme y tal. Me he sentido siempre muy sola y por eso he querido tener varios hijos para que no se sientan solos”. (Emakumea, 39 urtekoa, seme-alabak ditu)

“Quisiera darle la infancia que yo nunca tuve”. (Emakumea, 25 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Garapen pertsonala. Ume bat edukitzea da zure pertsona hobetzea. Bizitza osatzeko”. (Gizona, 31 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Guraso apartak izango ginatkelako”. (Emakumea, 26 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Deseo de acompañar, educar, compartir valores, poder hacer feliz a un niño tanto como lo he sido, formar una familia”. (Emakumea, 31 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Maitasuna zabaltzea”. (Emakumea, 38 urtekoa, seme-alabak ditu)

“Por tener a alguien por quien vivir o trabajar”. (Emakumea, 39 urtekoa, seme-alabak ditu)

“Por la sociedad que te lo impone. Hoy en día si volviera a nacer no los tendría. (los quiero mogollón a mis hijos, pero es muy duro)”. (Emakumea, 38 urtekoa, seme-alabak ditu)

“Seme-alabak dituzten adiskide/gertukoen eraginagaitik, eginbeharra dela ustearazten dizu”. (Gizona, 33 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Porque mi padre quiere tener un nieto”. (Emakumea, 35 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Por hacer abuelos a los aitas”. (Gizona, 36 urtekoa, seme-alabak ditu)

“Me da mucho miedo arrepentirme de no haberlos tenido”. (Emakumea, 30 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Fue de imprevisto”. (Emakumea, 31 urtekoa, seme-alabak ditu)

“No se podía abortar en mi país”. (Emakumea, 35 urtekoa, atzerrian jaioa, seme-alabak ditu)

Sexuaren, adinaren edo jaiolekuaren arabera alderdiak erreparatu behar dira, ikusiko dugu kolektibo guztietan garrantzi handiena duen arrazoiak seme-alabek bizitza aberasten dutela dela. Baina badira nabarmenak merezi duten desberdintasun batzuk.

Emakumeek gizonak baino gehiago aipatzen dute sen biologikoa seme-alabak izateko motibazio gisa. Gizonak emakumeek baino neurri handiagoan adierazten dute umeak izanez gero zoriontsuagoak izango direla edo bizitzarekin gusturago egongo direla uste dutela, beren familia-eredu idealean seme-alabak sartzen direla eta bikotekideak asko desiratzen duela. Gainera, emakumeek baino neurri handiagoan aipatzen dute (hala ere, 10etik 5era iritsi gabe) adinekoak direnean konpainia edo haietaz arduratuko den norbait nahi dutela, baita abizena edo familia-jabetzak mantendu nahi dituztela ere.

Adinean aurrera egin ahala, sen biologikoari eta bikotekideak hala nahi izateari ematen zaion eragin-mailak ere gora egiten du. Beste motibazio batzuek ere puntuazio handiagoak dituzte adinean gora egin ahala, baina aldeak ez dira hain nabarmenak.

6.1.taula.

Gaur egun seme-alabak dituzten edota etorkizunean izan nahi dituzten 25-39 urteko pertsonen artean, seme-alabak izateko erabakian edo nahian arrazoi hauetako bakoitzak duen eragina, sexuaren, adin-taldearen eta jaiolekuaren arabera (0-10 arteko batezbestekoak)

Zergatik izan nahi dituzu seme-alabak? Zergatik erabaki duzu seme-alabak izatea?								
Erabili 0tik 10era bitarteko eskala bat, non 0 "ezer ez" eta 10 "asko" diren, adierazteko seme-alabak izateko arrazoi hauetako bakoitzak zuri zein neurritan eragiten dizun.								
(0-10 arteko batezbestekoak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Euskadi	Atzerria
Uste duzulako seme edo alaba batek bizitza aberasten duela	8,2	8,1	8,3	8,0	8,1	8,4	8,1	8,4
Haurrak asko gustatzen zaizkizulako	7,7	7,7	7,6	7,3	7,6	7,9	7,5	8,2
Seme-alabak izateko sen biologikoa sentitzen duzulako	7,1	7,6	6,7	6,5	7,1	7,6	7,0	7,6
Zure familia-eredu idealean seme-alabak daudelako	6,5	6,3	6,8	6,3	6,3	6,9	6,3	7,4
izango zarela edo zure bizitzarekin gusturago egongo zarela uste duzulako	6,4	6,0	6,8	6,1	6,2	6,7	6,2	7,1
Badakizulako zure bikotekideak seme-alabak izan nahi dituela	5,3	4,7	5,8	4,4	5,0	6,0	5,2	5,8
Zahartzen zarenean konpainia edo zutaz arduratuko den norbait izan nahi duzulako	3,8	3,5	4,1	4,0	3,6	3,7	3,6	4,6
Familiaren abizena edo ondasunak mantendu nahi dituzulako	3,1	2,4	3,9	3,2	2,9	3,3	2,9	4,5

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Atzerrian jaio diren pertsonak Euskadin jaioetakoak baino puntuazio altuagoak ematen dizkiete proposatutako arrazoi guztiei. Aldeak bereziki nabarmenak dira honako arrazoi hauen kasuan: bere

familia-eredu idealean seme-alabak daudela, aita edo ama izanda zoriontsuagoak izango direla edo beren bizitzarekin poztasun handiagoa sentituko dutela uste dutela, adinekoak direnean konpainia edo haietaz arduratuko den norbait nahi dutela, eta, azkenik, abizena edo familia-jabetzak mantendu nahi dituztela (hala ere, azken bi arrazoi horiek atzerrian jaiotakoen artean ere ez dira 5era iristen).

Jarraian, seme-alabak izateak sexuaren, adinaren edo jaiotzekuaren arabera hautemandako alde horietan eragiten duen ikusiko dugu.

6.2.taula.

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonen eta seme-alabaren bat duten adin bereko pertsonen arteko alderaketa, honako arrazoi hauetako bakoitzak seme-alabak izateko erabakian edo nahian duen eraginari dagokionez, sexuaren arabera (0-10 arteko batezbestekoak)

Zergatik izan nahi dituzu seme-alabak? Zergatik erabaki duzu seme-alabak izatea? Erabili Otik 10era bitarteko eskala bat, non 0 "ezer ez" eta 10 "asko" diren, adierazteko seme-alabak izateko arrazoi hauetako bakoitzak zuri zein neurritan eragiten dizun.						
(0-10 arteko batezbestekoak)	SEME-ALABAK DITUZTE			EZ DUTE SEME-ALABARIK		
	Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
		Emaku-meak	Gizonak		Emaku-meak	Gizonak
Uste duzulako seme edo alaba batek bizitza aberasten duela	8,5	8,4	8,6	7,9	7,7	8,1
Haurrak asko gustatzen zaizkizulako	7,9	7,9	8,0	7,4	7,5	7,3
Seme-alabak izateko sen biologikoa sentitzen duzulako	7,7	8,1	7,2	6,6	7,0	6,3
Zure familia-eredu idealean seme-alabak daudelako	6,8	6,7	7,0	6,3	5,0	6,6
Ama/aita izanda zoriontsuagoa izango zarela edo zure bizitzarekin gusturago egongo zarela uste duzulako	6,8	6,4	7,2	6,0	5,5	6,4
Badakizulako zure bikotekideak seme-alabak izan nahi dituela	5,9	5,1	6,9	4,6	4,2	5,0
Zahartzen zarenean konpainia edo zutaz arduratuko den norbait izan nahi duzulako	3,5	3,3	3,8	4,0	3,7	4,3
Familiaren abizena edo ondasunak mantendu nahi dituzulako	2,9	2,3	3,7	3,4	2,4	4,1

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Emakumeek gizonen baino gehiago aipatzen dute seme-alabak izateko sen biologikoa, baina batez ere ama diren emakumeek. Arrazoi horrek 10etik 8,1 puntuko eragina izan zuen ama diren emakumeengan eta 7,2ko eragina aita diren gizonengan (gizonen kasuan ere arrazoi horren eraginak gora egin du seme-alabak izanez gero).

Seme-alabak dituzten gizonen artean, bikotekideak asko nahi izateak 10etik 6,9ko eragina izan du, beste arrazoi batzuei emandakoa baino txikiagoa, baina seme-alabak dituzten emakumeek aipatutakoa baino ia bi puntu handiagoa.

Eta seme-alabarik ez duten gizonen artean, beren familia-eredu idealean seme-alabak egoteari emandako puntuazioa seme-alabarik gabeko emakumeen artean erregistratutakoa baino askoz ere handiagoa da (guraso direnen artean, gizonen eta emakumeen arteko aldea askoz ere txikiagoa da, arrazoi horri dagokionez).

Euskadin jaiotakoen eta atzerrian jaiotakoen arteko alde batzuk areagotu egiten dira seme-alabarik duten ala ez duten kontuan hartzen dugunean.

6.3.taula

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonen eta seme-alabaren bat duten adin bereko pertsonen arteko alderaketa, honako arrazoi hauetako bakoitzak seme-alabak izateko erabakian edo nahian duen eraginari dagokionez, jaiolekuaren arabera (0-10 arteko batezbestekoak)

Zergatik izan nahi dituzu seme-alabak? Zergatik erabaki duzu seme-alabak izatea? Erabili 0tik 10era bitarteko eskala bat, non 0 "ezer ez" eta 10 "asko" diren, adierazteko seme-alabak izateko arrazoi hauetako bakoitzak zuri zein neurritan eragiten dizun.						
(0-10 arteko batezbestekoak)	SEME-ALABAK DITUZTE			EZ DUTE SEME-ALABARIK		
	Guztira	Jaiolekua		Guztira	Jaiolekua	
		Euskadi	Atzerria		Euskadi	Atzerria
Uste duzulako seme edo alaba batek bizitza aberasten duela	8,5	8,5	8,5	7,9	7,9	8,2
Haurrak asko gustatzen zaizkizulako	7,9	7,8	8,5	7,4	7,3	7,8
Seme-alabak izateko sen biologikoa sentitzen duzulako	7,7	7,6	7,8	6,6	6,5	7,1
Zure familia-eredu idealean seme-alabak daudelako	6,8	6,5	7,6	6,3	6,1	7,2
Ama/aita izanda zoriontsuagoa izango zarela edo zure bizitzarekin gusturago egongo zarela uste duzulako	6,8	6,6	7,2	6,0	5,9	6,7
Badakizulako zure bikotekideak seme-alabak izan nahi dituela	5,9	5,9	6,1	4,6	4,6	5,2
Zahartzen zarenean konpainia edo zutaz arduratuko den norbait izan nahi duzulako	3,5	3,1	4,7	4,0	4,1	4,4
Familiaren abizena edo ondasunak mantendu nahi dituzulako	2,9	2,5	4,3	3,4	3,2	5,1

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Atzerrian jaiotako pertsonak Euskadin jaiotakoek baino eragin handiagoa ematen diete sen biologikoari edo ama edo aita izanda beren bizitzarekin zoriontsuago izango direla edo poztasun handiagoa sentituko dutela uste izateari. Jaiolekuaren arabera aldea hori handiagoa da seme-alabarik gabeko pertsonen artean seme-alabak dituztenen artean baino. Aitzitik, zahartzen direnean konpainia edo zainduko dituen norbait izateko nahiari emandako puntuazioen arteko aldea handiagoa da seme-alabak dituztenen artean (4,7 atzerrian jaio direnen artean eta 3,1 Euskadin jaio direnen artean). Azkenik, atzerrian jaio eta seme-alabarik ez duten pertsonak 10etik 5,1 puntuko

eragina eman diote abizena edo familia-jabetzak mantentzeko nahiari, eta hori da arrazoi horri 5 puntu baino gehiago eman dizkion kolektibo bakarra.

Azkenik, adinaren arabera ez dira hain nabarmenak, baina ikusten da haurrak dituzten pertsonen pisu handiagoa ematen dietela proposatutako argudioei haurrik gabeko adin-talde bereko pertsonen baino, salbu eta adinekoak direnean konpainia edo haiez arduratuko den norbait izateko nahiari eta abizena edo familia-jabetzak mantentzeko nahiari, bi arrazoi horiek eragin handiagoa baitute seme-alabarik ez dutenentzat, guraso direnentzat baino.

6.4.taula

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonen eta seme-alabaren bat duten adin bereko pertsonen arteko alderaketa, honako arrazoi hauetako bakoitzak seme-alabak izateko erabakian edo nahian duen eraginari dagokionez, adin-taldeen arabera (0-10 arteko batezbestekoak)

Zergatik izan nahi dituzu seme-alabak? Zergatik erabaki duzu seme-alabak izatea?								
Erabili 0tik 10era bitarteko eskala bat, non 0 "ezer ez" eta 10 "asko" diren, adierazteko seme-alabak izateko arrazoi hauetako bakoitzak zuri zein neurritan eragiten dizun.								
(0-10 arteko batezbestekoak)	SEME-ALABAK DITUZTE				EZ DUTE SEME-ALABARIK			
	Guztira	Adin-taldeak			Guztira	Adin-taldeak		
		25-29*	30-34	35-39		25-29	30-34	35-39
Uste duzulako seme edo alaba batek bizitza aberasten duela	8,5		8,4	8,6	7,9	8,0	7,8	7,8
Haurrak asko gustatzen zaizkizulako	7,9		7,9	8,0	7,4	7,3	7,3	7,9
Seme-alabak izateko sen biologikoa sentitzen duzulako	7,7		7,6	7,8	6,6	6,4	6,6	7,0
Zure familia-eredu idealean seme-alabak daudelako	6,8		6,4	7,0	6,3	6,2	6,2	6,7
izango zarela edo zure bizitzarekin gusturago egongo zarela uste duzulako	6,8		6,6	6,9	6,0	6,0	5,9	6,1
Badakizulako zure bikotekideak seme-alabak izan nahi dituela	5,9		5,2	6,1	4,6	4,3	4,9	5,3
Zahartzen zarenean konpainia edo zutaz arduratuko den norbait izan nahi duzulako	3,5		3,1	3,7	4,0	4,1	4,1	3,8
Familiaren abizena edo ondasunak mantendu nahi dituzulako	2,9		2,5	3,1	3,4	3,2	3,3	4,0
*Ezin da seme-alabak dituzten 25-29 urteko pertsonen osatzen duten taldeari buruzko daturik eman, laginean ezagurri horiek oso pertsona gutxi dituztelako.								

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

6.2. Seme-alabak izateko nahia bultzatzen dezaketen egoerak

Seme-alabak izateko nahia bizi-egoeren arabera izan daiteke, eta, egoera batzuek umeak izatea erraztu edo bultzatu dezakete, hala nola, lana izatea, umeen mantenua ordaintzeko diru-sarrera nahikoak izatea, etxebizitza izatea, bikotekidea izatea, hazteko laguntza izatea, haurrak dauden gizarte-zirkulu batean mugitzea edo familiak seme-alabak izateko presioa egitea.

Bizi-egoera horiek seme-alabak izateko desioan duten eragina aztertu aurretik, umerik ez duten 25-39 urteko pertsonak zirkunstantzia horien arabera ezaugarrituko ditugu.

Seme-alabarik ez duten elkarriketatuen artean, % 86,8 lanean ari da, okupazio nagusi gisa. Pertsona horietako gehienek (% 76,3k) beren lana egonkorra dela adierazten dute, erdiak baino gehiagok (% 55,9k) dio lanean ordutegi-malgutasuna duela (edo izan dezakeela) eta % 30,4k dio lanean telelana egiteko aukera ematen diotela (edo egin lezakeela).

Seme-alabarik gabeko pertsonen erdia baino zertxobait gehiago emantzipatuta daude, % 58,2 hain zuzen ere. % 37,1 bikotekidearekin bizi da, eta % 21,1 emantzipatuta dago, baina ez da bikotekidearekin bizi. Era berean, bikotekidearekin bizi den % 37,1 hori bi taldetan banatu dezakegu: bikotekidearekin hiru urte baino gehiago daramatzan % 28,1 eta hiru urte baino gutxiago daramatzan % 8,9 (gainerako % 0,1ek ez dio erantzun zenbat denbora daraman galderari).

Bestalde, seme-alabarik ez duten pertsonen % 84,6k adierazi du haurra hazten lagun diezaiokeen norbait duela (aita, ama, neba-arrebak, etab.); % 64,4k adierazi du bere gertuko familia-eremuan (neba-arrebak, etab.) eta lagunartean umeak dituen jendea badagoela; % 52,0k diru-sarrera nahikoak ditu seme edo alaba baten mantenu-gastuak ordaintzeko, eta askoz gutxiago dira (% 13,9) bere familiak seme-alabak izateko presioa egiten diela edo behin eta berriz galdetzen dietela noiz izango dituzten.

Baina, egoera horiek benetan eragiten al dute haurrak izateko desioan?

Seme-alabak izateko nahia zertxobait handiagoa da lanean ari direnen artean lanean ari ez direnen artean baino (% 68,8 eta % 60,1, hurrenez hurren).

Enpleguaren ezaugarriek (egonkorra bada, ordutegi malgua badu edo telelana egiteko aukera ematen badu) edo emantzipazioarekin lotutako egoerak une jakin batean seme-alabak izatea baldintza dezakete, baina badirudi ez dutela eraginik haurrak bizitzako uneren batean izateko desioan. Ez dago alde nabarmenik aldagai horien arabera.

Hala ere, bikotekidearekin bizitzeak seme-alabak izateko nahian eragina duela dirudi. Bikotekidearekin bizi diren pertsona emantzipatuen artean, % 73,0k diote seme-alabak izan nahi dituztela beren bizitzako uneren batean, eta bikotekidearekin bizi ez diren pertsona emantzipatuen artean, berriz, % 59,2k. Bikotekidearekin harremanetan daramaten denborak, aldiz, ez du eragin esanguratsurik seme-alabak izateko desioan.

6.5.taula

Gaur egun seme-alabarik ez duten Euskadiko 25-39 urteko pertsonen egunen batean seme-alabak izan nahi izatea, zeregin nagusiaren eta lanaren ezaugarrien arabera (%)

Gustatuko litzaizuke zure bizitzako uneraren batean seme-alabak izatea?									
(% bertikalak)	Guztira	Zeregin nagusia		Lan egonkorra*		Ordutegi-malgutasuna duen lana*		Telelanean aritzeko aukera*	
		Lanean	Lanik ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Bai	67,7	68,8	60,1	69,4	66,3	69,5	68,2	67,0	69,7
Ez	14,6	13,8	19,2	14,2	13,9	14,4	13,6	15,3	13,4
Ez dakizu, ez duzu horretan pentsatu	17,8	17,3	20,6	16,4	19,7	16,2	18,2	17,8	16,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

*Datu hauek lan egiten duten pertsonen bakarrak dira

Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

6.6.taula.

Gaur egun seme-alabarik ez duten Euskadiko 25-39 urteko pertsonen egunen batean seme-alabak izan nahi izatea, emantzipazioarekiko egoeraren, bikotekidearekin bizi izatearen eta bikotekidearekin bizitzaren daramatzaten urteen arabera (%)

Gustatuko litzaizuke zure bizitzako uneraren batean seme-alabak izatea?							
(% bertikalak)	Guztira	Emantzipazioarekiko egoera		Bikotekidearekin bizi izatea*		Bikotekidearekin bizitzaren daramatzaten urteak**	
		Emantzipatuta	Emantzipatu gabe	Bai	Ez	3 urte baino gutxiago	3 urte baino gehiago
Bai	67,7	68,0	67,2	73,0	59,2	76,8	72,1
Ez	14,6	15,9	12,7	13,6	19,9	11,8	13,9
Ez dakizu, ez duzu horretan pentsatu	17,8	16,1	20,1	13,4	20,8	11,4	14,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

*Datu hauek emantzipatutako pertsonen bakarrak dira

**Datu hauek bikotekidearekin bizi diren emantzipatutako pertsonen bakarrak dira

Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Seme-alaba baten mantenu-gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonak dira haurrak izateko desira gehien adierazten dutenak (% 74,4, eta halako diru-sarrerarik ez dutenen kasuan, aldiz, % 60,4). Nolanahi ere, diru-sarrera nahikorik ez dutenen artean, umerik izan nahi duten pentsatu ez dutenen ehunekoa eduki nahi ez dituztela erabaki dutenena baino handiagoa da.


Hazkuntzan lagundu diezaieken gertuko norbait (aita, ama, neba-arrebak, etab.) duten pertsonen ere seme-alabak izateko nahiaren ehunekoa handiagoak dituzte (% 68,9, laguntzarik ez luketenen artean, aldiz, % 60,7).

Umeak dauzkaten familiak edo lagunak dituzten pertsonen ere gehiago adierazten dute seme-alabak izateko nahia (% 69,6, eta umeak dauden jendartearen mugitzen ez direnen % 64,1). Haurrak dauden zirkulu batean mugitzen ez direnen artean, inoiz pentsatu ez dutenen ehunekoa % 23,2ra igo da.

Azkenik, badirudi familiak seme-alabak izateko egiten duen presioak ez duela seme-alabak izateko nahian eragiten. Ez dago alde nabarmenik egoera hori bizi dutenen eta bizi ez dutenen artean.

6.3.grafikoa.

Gaur egun seme-alabarik ez duten Euskadiko 25-39 urteko pertsonen egunen batean seme-alabak izan nahi izatea, diru-sarrera nahikoak, hazkuntzarako laguntza, haurrak dauden jendartea eta familiaren presioa izatearen arabera (%)



Oinarria: Seme-alabarik ez duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Beraz, ondoriozta dezakegu seme-alabak izatearen ideia maizago planteatzen dela eta erantzun positiboagoa izaten duela lana izaten denean, bikotekidearekin bizi izaten denean, mantenu-gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahikoak izaten direnean eta hazkuntzan lagunduko duten pertsonak izaten direnean, hau da, familia- eta finantza-ingurune hobea edukitzen denean. Hala ere, horrek ez du esan nahi nahitaez seme-alabak izateko gogo handiagoa dagoenik; adibidez, atzerrian jaiotakoek (normalean, diru-sarrera txikiagoak eta familiaren laguntza txikiagoa izaten dutela), Euskadin jaiotakoek baino seme-alabak izateko gogo handiagoa adierazten dute. Hezkuntzak eta balioek garrantzi handia dute erabaki horretan.

Bestalde, seme-alabak dituzten pertsonen zirkulu batean mugitzeak seme-alabak edukitzeko aukera gehiago planteatzea ere badakar, baina ez du baiezko erantzunik bermatzen. Familiaren presioak ere gaia planteatzera eraman dezake, baina ez du nahitaez desioan eragiten.

Eraitza nagusiak

Kasu honetan, seme-alabak izateko hainbat arrazoiren zerrenda bat proposatu diegu jada guraso diren pertsoneri, bai eta gaur egun seme-alabarik ez duten baina bizitzako uneren batean ama edo aita izan nahi duten pertsoneri ere, eta 0tik 10era puntuatzeko eskatu diegu, seme-alabak izateko erabakian edo nahian duten eragin pertsonalaren arabera.

Seme-alabaren bat dutenek eta oraindik ez dutenek, baina eduki nahi dituztenek, gehien aipatzen duten arrazoia seme-alabek bizitza aberasten dutela da (guztira 8,2ko puntuazioa jaso du arrazoi horrek). Horren atzetik, beste motibazio batzuk daude, hala nola haurrak asko gustatzen zaizkiela (7,7), seme-alabak izateko sen biologikoa sentitzen dutela (7,1), bere familia-eredu idealean seme-alabak daudela (6,5) edo uste dutela ama edo aita izanda zoriontsuagoak izango direla edo bizitzan poztasun handiagoa sentituko dutela (6,4). Emandako puntuazioen arabera, baieztatu dezakegu arrazoi horiek guztiek eragin handiagoa izan dutela seme-alabak dituztenengan oraindik ez dituztenengan baino.

Bikotekideak desira handia duela argudiatzeko 5,3 lortzen du guztira, baina alde handia dago seme-alabak dituztenen eta ez dituztenen artean; seme-alabak dituztenen batez besteko puntuazioa 5,9 da, eta ez dituztenen artean 4,6. Gizonentzat arrazoi hori eragingarriagoa izan da emakumeentzat baino, batez ere seme-alabak dituzten gizonentzat.

Azkenik, adinekoak direnean lagunik edo zaintzarik nahi izateak edo abizena edo familia-jabetzak mantendu nahi izateak askoz ere eragin txikiagoa dute seme-alabak izateko edo ez izateko erabakian. Argudio horiek 3,8ko eta 3,1eko puntuazio orokorrak lortu dituzte, hurrenez hurren, eta garrantzi handiagoa dute gizonentzat eta atzerrian jaiotako pertsonentzat, baina kolektibo horietan ere ez dira 5era iristen.

Inguruabar pertsonalei eta seme-alabak izatean edo eduki nahi izatean duten eraginari dagokienez, egiaztatu da bikotekidearekin emantzipatuta bizi diren pertsonen eta seme edo alaba baten mantenu-gastuak ordaintzeko diru-sarrerak nahikoak dituztela diotenek dutela seme-alabak izateko gogo handiena. Pertsona horien artean, seme-alabak izateko gogoak dituztenen ehunekoa bikotekidearekin bizi ez direnen edo seme-alaben hazkuntza ordaintzeko diru-sarrerak nahikorik ez dutenen artean erregistratutakoa baino hamar puntu handiagoa da. Bestalde, seme-alabarik ez dutenen artean, haurrak hazten lagun diezaiekeen hurbileko norbait dutela diotenek, seme-alabak izateko gogo handiagoa dute hazteko pertsona lagungaririk ez dutenek baino. Horrek erakusten du hazkuntzarako baliabide ekonomikoak eta laguntza pertsonala (eta emozionala) izateko segurtasuna dagoenean, handitu egiten dela seme-alabak izateko gogo eta prestasuna.

7. Seme-alaben kopuruari eta ama edo aita izateko adinari buruzko aurreikuspenak

Seme-alabak izateko nahia aztertzean, kontuan izango dugu, halaber, zenbat seme-alaba eduki nahi diren, bai eta zenbat urterekin eduki nahi diren ere.

7.1. Seme-alaben kopuruari buruzko aurreikuspenak

Nahi den seme-alaba kopurua askotan etorkizunari buruz dauden aurreikuspenen arabera izaten da. Pertsonak uste badute seme-alabak izateak oso aukera-kostu handia ekarriko diela beren lehentasunei edo bizimoduari, edo uste badute ezin izango dietela eman beren seme-alabei egokitzen duten bizi-maila, litekeena da seme-alaben kopurua mugatzea erabakitzea (edo, are gehiago, umerik ez izatea erabakitzea).


Guraso diren edo etorkizunean izan nahi duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonen zenbat seme-alaba izan nahiko lituzketen galdetzen badiegu, bi da gehien errepikatzen den erantzuna (batez besteko zifra 2,2 da, hain zuzen ere).

Seme-alabaren bat duten pertsonen artean, erdiak baino gehiagok (% 53,1) adierazi du 2 izan nahiko lituzkeela; beste % 33,6k dio 3 edo gehiago izan nahiko lituzkeela, eta gutxiago dira seme-alaba bakarra izatea gustatuko litzaiekeela diotenak (% 13,1). Dagoeneko ama edo aita diren pertsona horiek izan nahi dituzten seme-alaben batez bestekoa 2,3 da. Lehendik dituzten seme-alaben kopuruak gora egin ahala, nahi dituzten seme-alaben kopuruaren batez bestekoak ere gora egiten du: seme-alaba bakarra dutenen edo lehen seme-alabaren zain dauden artean, 2,0 ume nahi dituzte izan, batez beste; bi seme-alaba dituzten artean, 2,4 izan nahi dituzte; eta 3 seme-alaba edo gehiago dituzten artean, 3,4 izan nahiko lituzkete.

Seme-alabarik ez duten baina egunen batean ama edo aita izan nahiko luketela dioten pertsonen artean ere batez bestekoa 2 da (2,1, zehazki). Kolektibo horretan, lehendik seme-alabaren bat dutenen artean baino gehiago dira 2 izatea nahiago dutela diotenak (% 63,3), eta gutxiago 3 edo gehiago izan nahiko lituzketela diotenak (% 22,3). Bakarra izan nahiko luketenen ehunekoa seme-alabaren bat dutenek adierazitakoaren oso antzekoa da (% 13,7).

7.1.grafikoa.

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izan nahiko luketen 25-39 urteko pertsonen eta seme-alabaren bat duten pertsonen nahi duten seme-alaba kopurua (%)



Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2016an eta 2022an egindako bi inkestetan bildutako datuei erreparatuko diegu orain. Inkesta horietan 18 urtetik gorako Euskadiko biztanleria osoari (adina edo seme-alabaren bat zuten kontuan hartu gabe) galdetu zitzaion zenbat seme-alaba eduki nahiko lituzkeen edo izatea gustatuko litzaiokeen. 2016an nahi izandako seme-alaben kopuruaren batezbestekoa 2,4 zen eta 2022an 2,2¹. Beraz, ondoriozta dezakegu 25 eta 39 urte bitarteko pertsonen nahiak EAEko biztanle guztienak bezalakoak direla.

Gure inkesta honetako datuetara itzuliz, eta dagoeneko seme-alabaren bat duten edo egunen bat izan nahi duten 25-39 urteko pertsonak kontuan hartuta, ikusten dugu ez dagoela alde nabarmenik emakumeen eta gizonen artean nahi duten seme-alaba kopuruari dagokionez. Izateko seme-alaba kopurua aukeratzean, pertsonak beren bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren arteko oreka bilatzen dute. Genero-rolen aldaketak, emakumeen lan-asmo handiagoak, aitatasun aktiboak eta baterako zaintzan egindako aurrerapenak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan banaketa parekideagoa dakartzate, eta emakumeek eta gizonak amatasun-aitatasuna ikuspegi berdinzaleago batetik planteatzea, rolen banaketa tradizional bano. Rol-banaketa tradizional horren arabera, gizonak ziren etxeko hornitzaile ekonomiko nagusiak eta ez ziren arduratzen seme-alaben zaintza, zeregin hori emakumeei esleitzen baitzitzaion.

Oraindik seme-alabarik izan ez arren, egunen batean ama edo aita izan nahi dutenen artean baino ez dago alde nabarmenik adinaren arabera. Pertsona horien adinak gora egin ahala, handitu egiten da ume bakarra izan nahi dutenen ehunekoa, eta behera egiten du 3 edo gehiago izan nahi dituztenena. Desio hori pertsonak urteak bete ahala aurreikusten dituzten aukerekin lotuta dago, baita beren itxaropenak edo aurreikuspenak jaistearekin ere.

7.1.taula.

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izan nahiko luketen 25-39 urteko pertsonak nahi duten seme-alaba kopuruaren eta seme-alabaren bat duten adin bereko pertsonak nahi duten kopuruaren arteko alderaketa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (% eta batezbestekoa)

Zenbat seme-alaba izan nahiko zenituzke?											
(% bertikalak)	SEME-ALABAK DITUZTE					EZ DUTE SEME-ALABARIK					
	Guztira	Sexua		Adin-taldeak*		Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emaku-meak	Gizonak	25-34 urte	35-39 urte		Emaku-meak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte
Bat	13,1	12,5	14,0	11,1	14,2	13,7	13,0	14,2	8,0	16,2	26,2
Bi	53,1	52,1	54,5	51,9	53,7	63,3	62,0	64,3	64,7	63,7	58,3
Hiru	29,2	30,2	27,8	30,8	28,3	19,4	22,7	16,7	22,5	19,3	10,2
Lau edo gehiago	4,4	5,2	3,3	6,1	3,5	3,7	2,3	4,8	4,9	0,9	5,4
Ez dakite edo ez dute erantzun	0,2	0,0	0,4	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
BATEZBESTEKOA	2,3	2,3	2,2	2,4	2,2	2,1	2,2	2,1	2,3	2,1	2,0

* 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak talde bakar batean batu dira, seme-alabak dituzten 25-29 urteko pertsona gutxi baitaude

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

¹ Eusko Jaurlaritzaren lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: Euskal Soziometroa 62 – Familia (2016) [linean]. Hemen eskuragarri: [62. EUSKAL SOZIOMETROA - FAMILIA - SOCIÓMETRO 62](#); Erronka demografikoa (2022) [linean]. Hemen eskuragarri: [ERRONKA DEMOGRAFIKOA / RETO DEMOGRÁFICO](#). [Kontsulta: 2025/01/16]

Jatorriaren kasuan, aldeak lehendik seme-alabaren bat dutenen artean erregistratzen dira, baina oraindik bat ere ez dutenen artean ez. Lehen aipatu dugun bezala, ohikoa da adieraztea lehendik duten ume kopuru bera edo handiagoa nahi dela, eta kontuan izan behar dugu atzerrian jaiotakoen artean, hiru seme-alaba edo gehiago dituztenen ehunekoa (ama edo aita direnen % 21,4) handiagoa dela Euskadin jaiotakoen artean baino (% 7,5). Beraz, atzerrian jaiotako gurasoek Euskadin jaiotakoek baino neurri handiagoan adierazten dute 3 edo gehiago izan nahi dituztela (% 45,1ek eta % 29,4k, hurrenez hurren).

7.2.taula.

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izan nahiko luketen 25-39 urteko pertsonak nahi duten seme-alaba kopuruaren eta seme-alabaren bat duten adin bereko pertsonen nahi duten kopuruaren arteko alderaketa, jaiolekuaren arabera (% eta batezbestekoa)

Zenbat seme-alaba izan nahiko zenituzke?						
(% bertikalak)	SEME-ALABAK DITUZTE			EZ DUTE SEME-ALABARIK		
	Guztira	Jaiolekua		Guztira	Jaiolekua	
		Euskadi	Atzerria		Euskadi	Atzerria
Bat	13,1	13,2	13,2	13,7	13,4	13,6
Bi	53,1	57,1	41,6	63,3	64,0	61,3
Hiru	29,2	26,8	36,1	19,4	19,6	14,8
Lau edo gehiago	4,4	2,6	9,0	3,7	3,0	9,0
Ez dakite edo ez dute erantzun	0,2	0,2	0,0	0,0	0,0	1,4
Guztira	100	100	100	100	100	100
BATEZBESTEKOA	2,3	2,2	2,5	2,1	2,1	2,2

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Nahi den seme-alaba kopurua izateko aurreikuspenei dagokienez, oso desberdinak dira jada ama edo aita diren pertsonen eta oraindik ez direnen artean.

Gurasoen artean, hamarretik zazpik (% 69,1ek) uste dute nahi duten seme-alaba kopurua izango dutela. Ehunekoa % 88,4 da seme-alaba bakarra izan nahi dutela dioten artean, % 78,5era jaisten da bi izan nahi dituzten artean eta nabarmen jaisten da, % 46,9ra, hiru edo gehiago izan nahi dituzten artean. Nahi izan duten seme-alaba kopuruak gora egin ahala, handitu egiten da nahi baino seme-alaba gutxiago izango dituztela uste dutenen ehunekoa (% 32,1era iristen da 3 seme-alaba edo gehiago izan nahi dituzten artean).

Gainera, pertsona horiek dituzten seme-alaben kopuruak gora egin ahala, nahi duten kopurua izango dutela uste dutenen ehunekoak ere gora egiten du. Hiru edo gehiago dituztenen % 82,3k uste du beren aurreikuspenak bete egingo direla; seme-alaba bakarra dutenen (edo lehen seme-alabaren zain dauden) artean, nahi duten kopurua izango dutela uste dutenen ehunekoa gehiengoa da oraindik, baina % 60,8ra jaisten da.

Hau da, zenbat eta seme-alaba gehiago izan, orduan eta errazagoa da nahi den kopurura iristea (baita iritsia izatea ere), eta, bestalde, zenbat eta seme-alaba gutxiago nahi izan, orduan eta handiagoa da hori betetzeko aurreikuspena.

Aipatzekoa da, halaber, zifrak txikiak badira ere, seme-alabak dituzten pertsonen % 3,1ek uste duela nahi baino ume gehiago izango dituztela.

Oraindik ama edo aita ez diren baina egunen batean guraso izan nahi duten pertsonen kasuan, nahi duten seme-alaba kopurua izango dutela uste dutenen ehunekoa gutxiengoa da (% 34,5). Seme-alaba bakarra izan nahi dutenen artean ere ez da gehiengoa izatera iristen (% 43,8). Eta nahi den kopurua izateko itxaropenak behera egiten du eduki nahi den seme-alaba kopurua handitu ahala. Hiru edo gehiago eduki nahiko lituzketen seme-alabarik gabeko pertsona gehienek (% 56,9k) uste dute azkenean nahi baino kopuru txikiagoa izango dutela.

7.3.taula

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonen nahi duten seme-alaba kopurua izateari buruzko aurreikuspenen eta seme-alabaren bat duten pertsonen aurreikuspenen arteko alderaketa, nahi den seme-alaba kopuruaren arabera (%)

Zuk uste duzu seme-alaba kopuru hori izango duzula?								
(% bertikalak)	SEME-ALABAK DITUZTE				EZ DUTE SEME-ALABARIK			
	Guztira	Nahi den seme-alaba kopurua			Guztira	Nahi den seme-alaba kopurua		
		Bat	Bi	Hiru edo gehiago		Bat	Bi	Hiru edo gehiago
Bai	69,1	88,4	78,5	46,9	34,5	43,8	38,1	19,3
Ez, gehiago izango dituzula uste duzu	3,1	2,1	1,8	5,6	0,9	3,8	0,4	0,3
Ez, gutxiago izango dituzula uste duzu	14,7	0,0	7,4	32,1	23,9	6,2	15,8	56,9
Ez dakizu	13,1	9,5	12,3	15,4	40,7	46,2	45,7	23,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Sexuaren, adin-taldearen edo jaiolekuaren arabera analisiak desberdintasunak erakusten ditu izango diren seme-alaba kopuruari buruzko aurreikuspenetan.

Gizonek emakumeek baino neurri handiagoan uste dute nahi duten seme-alaba kopurua izango dutela. Eta hori errepikatu egiten da, bai jada guraso direnen artean, bai oraindik guraso ez direnen artean. Beste arrazoi batzuk alde batera utzita (gizonen baikortasun handiagoa, etab.), gizonen eta emakumeen adin emankorrean (teorian) dauden aldeek epe desberdinak ezartzen dituzte batzuen eta besteen nahiak betetzeko.

Adin handieneko taldean (35-39 urte) erregistratu da nahi beste seme-alaba izango dituztela uste dutenen ehuneko handiena, baina baieztapen horren atzean dauden arrazoiak desberdinak dira, seme-alabak dituzten ala ez kontuan hartuta. Dagoeneko ama edo aita direnen artean, adinak gora egin ahala, dagoeneko baduten seme-alaben kopuruak ere gora egiten duela egiaztatzen da (35-39 urteko pertsona gehienek diote bi seme-alaba edo gehiago dituztela), eta, beraz, errazagoa da nahi den kopurua izatea (gogora dezagun kolektibo horretan 2,2 seme-alaba izan nahi direla batez beste). Oraindik guraso ez direnen artean, aldiz, adinak gora egin ahala, behera egiten du nahi diren seme-alaben kopuruak, eta, beraz, aukera gehiago ikusten da aurreikuspen apalago hori betetzeko.

7.4.taula.

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonen nahi duten seme-alaba kopurua izateari buruzko aurreikuspenen eta seme-alabaren bat duten pertsonen aurreikuspenen arteko alderaketa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Zuk uste duzu seme-alaba kopuru hori izango duzula?											
(% bertikalak)	SEME-ALABAK DITUZTE					EZ DUTE SEME-ALABARIK					
	Guztira	Sexua		Adin-taldeak*		Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emaku-meak	Gizonak	25-34 urte	35-39 urte		Emaku-meak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte
Bai	69,1	65,9	73,3	60,5	73,6	34,5	28,7	39,0	33,3	29,2	48,0
Ez, gehiago izango dituzula uste duzu	3,1	4,0	2,0	4,5	2,4	0,9	0,7	1,0	1,3	0,7	0,0
Ez, gutxiago izango dituzula uste duzu	14,7	18,3	9,9	14,1	15,1	23,9	26,8	21,7	22,6	24,3	27,3
Ez dakizu	13,1	11,8	14,8	20,9	8,9	40,7	43,8	38,3	42,8	45,8	24,7
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak talde bakar batean batu dira, seme-alabak dituzten 25-29 urteko pertsona gutxi baitaude

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Jaiolekuaren arabera aldea handiagoak dira seme-alabarik gabeko pertsonen erreparatzen badiegu, seme-alabaren bat duten erreparatzen badiegu baino. Atzerrian jaio diren seme-alabarik gabeko pertsonen artean, nahi duten ume kopurua izateko baikortasuna handiagoa da Euskadin jaioakoen artean baino. Baina gogoratu behar da atzerrian jaio eta oraindik guraso ez diren pertsonen artean, hirutik bi gizonetakoak direla (Euskadin jaioakoen artean baino proportzio handiagoa), eta, ikusi dugunez, nahi den seme-alaba kopurua izateari buruzko baikortasuna zertxobait handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino.

7.5.taula

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonen nahi duten seme-alaba kopurua izateari buruzko aurreikuspenen eta seme-alabaren bat duten pertsonen aurreikuspenen arteko alderaketa, jaiolekuaren arabera (%)

Zuk uste duzu seme-alaba kopuru hori izango duzula?						
(% bertikalak)	SEME-ALABAK DITUZTE			EZ DUTE SEME-ALABARIK		
	Guztira	Jaiolekua		Guztira	Jaiolekua	
		Euskadi	Atzerria		Euskadi	Atzerria
Bai	69,1	70,0	67,9	34,5	33,9	43,1
Ez, gehiago izango dituzula uste duzu	3,1	2,7	3,9	0,9	0,8	1,8
Ez, gutxiago izango dituzula uste duzu	14,7	16,2	10,2	23,9	23,2	24,7
Ez dakizu	13,1	11,2	18,0	40,7	42,1	30,4
Guztira	100	100	100	100	100	100

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, oraindik ez badute ere, izan nahi dituzten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

7.2. Lehen seme-alaba izango duten adinari buruzko aurreikuspenak

Oraindik seme-alabarik ez duten baina egunen bat izan nahi duten pertsonak adierazi dute lehen seme-alaba, batez beste, 33,3 urterekin izan nahiko luketela. Emakumeek gizonak baino zertxobait lehenago izan nahi dute lehen seme-alaba (32,4 urterekin eta 34,0 urterekin, hurrenez hurren). Are gehiago, emakumeen % 77,1ek 35 urte bete baino lehen izan nahiko luke lehen seme-alaba; gizonen artean, 35 urte bete aurretik guraso izan nahiko luketenen ehunekoa nabarmen txikiagoa da, % 53,8.

Jaioterriak ez du alderik erakusten lehen seme-alaba izateko nahiago den batez besteko adinean. Euskadin jaiotako seme-alabarik gabeko pertsonak 33,2 urterekin izan nahiko lukete lehen seme-alaba, batez beste; atzerrian jaiotakoek, berriz, 33,6 urterekin (baina gogora dezagun gizonen pisu handiagoa atzerrian jaio eta oraindik seme-alabarik ez duten baina izan nahi dutenen artean).

Adina da alderik nabarmenenak markatzen dituen aldagaia. Seme-alabarik gabeko pertsonen adinak aurrera egin ahala, lehen umea izateko hobesten den adina ere igo egiten da, jakina. 25-29 urtekoen artean, lehen haurra izan nahi den batez besteko adina 31,5 urtekoa da; 30-34 urtekoen artean, lehen aldiz ama edo aita izan nahi den adina 34,1 urtekoa da, batez beste; eta 35-39 urtekoen artean, 37,0 urtekoa, batez beste. Azken talde horretan, % 21,6k adierazi du 40 eta 45 urte bitartean eduki nahiko lukeela lehen haurra. Adin horretako pertsonen beste % 12,9k diote dagoeneko seme-alabaren bat izatea nahiago luketela. Inkestan parte hartu duen inork ez du adierazi, hiru adin-tarteetako batean ere ez, 45 urte igaro ondoren lehen haurra izan nahiko lukeenik.

7.6.taula

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonak lehen seme-alaba izan nahiko luketen adina, sexuaren, adin-taldearen eta jaiotzekuaren arabera (% eta batezbestekoa)

Zenbat urterekin eduki nahi izango zenuke lehen seme-alaba?								
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Jaiotekua	
		Emakumeak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Euskadi	Atzerria
25-29 urte artean	8,0	12,0	5,0	13,6	0,0	6,3	8,2	8,5
30-34 urte artean	55,8	65,1	48,8	72,5	55,5	6,6	57,9	42,4
35-39 urte artean	31,1	20,8	38,9	13,5	42,0	63,6	29,2	41,5
40-45 urte artean	4,7	1,8	6,9	0,4	2,5	21,6	4,5	6,0
45 urtetik gora	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ez dute erantzun	0,3	0,3	0,3	0,0	0,0	1,9	0,2	1,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
BATEZBESTEKOA (0-10)	33,3	32,4	34,0	31,5	34,1	37,0	33,2	33,6

Oinarria: Seme-alabarik ez duten baina izan nahiko luketen 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Guraso ez diren baina egunen batean guraso izan nahiko luketen pertsonen artean, laurden bat pasatxo dira (% 27,2), lehen seme-alaba nahi duten adinarekin izango dutela uste dutenak. Gehiago dira nahi baino beranduago izango dituztela uste dutenak (% 37,6). Hiru pertsonatik batek (% 33,8) ez daki.

Lehen seme-alaba izan nahi den adinak gora egin ahala, zalantzak areagotzen dira, eta nahi baino beranduago izango dutela uste dutenen ehunekoak behera egiten du. Lehen seme-alaba nahiko

luketen adinean izango dutela uste dutenen ehunekoa ez da % 30era iristen kontuan hartutako adin-tarte batean ere ez.

7.7.taula

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonen aurreikuspena, lehen seme-alaba izango duten adinari dagokionez, nahi den adinaren arabera (%)

Eta uste duzu zure lehen semea edo alaba adin horretan izango duzula?				
(% bertikalak)	Guztira	Lehen seme-alaba izan nahi den adina *		
		25-29 urte artean	30-34 urte artean	35-39 urte artean
Bai	27,2	23,0	26,3	29,2
Ez, lehenago izango duzula uste duzu	1,4	0,0	0,8	1,1
Ez, beranduago izango duzula uste duzu	37,6	62,0	40,7	31,1
Ez dakizu	33,8	14,9	32,2	38,6
Guztira	100	100	100	100

*Ez dira taulan sartu bere lehen seme-alaba 40 urtetik gora izan nahi dutenen datuak oso pertsona gutxi direlako eta, ondorioz, bere erantzunak estatistikoki adierazgarriak ez direlako.

Oinarria: Seme-alabarik ez duten baina izan nahiko luketen 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Emakumeak gizonak baino ezkorragoak dira lehen seme-alaba izango duten adinari dagokionez. Emakumeen % 21,7k bakarrik uste du lehen aldiz ama izango dela nahiko lukeen adinean, gizonen % 31,5en aldean. Emakumeen % 44,5ek uste du lehen seme-alaba nahi baino beranduago izango duela.

35-39 urteko pertsonak uste dute gehien lehen seme-alaba nahi duten adinean izango dutela, baina kolektibo horretan ere ez dira gehiengoa izatera iristen (% 39,2 dira).

7.8.taula.

Gaur egun guraso ez diren baina egunen batean guraso izatea gustatuko litzaiekeen 25-39 urteko pertsonen aurreikuspena, lehen seme-alaba izango duten adinari dagokionez, sexuaren, adin-taldearen eta jaiolekuaren arabera (%)

Eta uste duzu zure lehen semea edo alaba adin horretan izango duzula?								
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Euskadi	Atzerria
Bai	27,2	21,7	31,5	24,0	25,9	39,2	26,9	33,5
Ez, lehenago izango duzula uste duzu	1,4	1,2	1,5	1,2	0,7	3,0	1,1	2,1
Ez, beranduago izango duzula uste duzu	37,6	44,5	32,2	41,4	34,4	32,2	37,2	34,6
Ez dakizu	33,8	32,7	34,8	33,3	39,0	25,6	34,8	29,7
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Oinarria: Seme-alabarik ez duten baina izan nahiko luketen 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Atzerrian jaiotakoak Euskadin jaiotakoak baino apur bat baikorragoak dira nahi duten adinarekin gurasoak izateari dagokionez (atzerrian jaio eta seme-alabarik ez dutenen artean gizonen proportzio handiagoak baikortasun handiagoa eragiten duela dirudi).

7.3. Nahi baino seme-alaba gutxiago edota nahi baino beranduago izateko arrazoiak


Pertsona batzuek nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituztela uste izateko arrazoiak ezagutzeko, pertsona horiei, umerik izan zein ez, zergatik pentsatzen duten hori adierazteko eskatu diegu. Horretarako, arrazoiaren zerrenda bat proposatu diegu, beren egoera pertsonalera egokitzen diren arrazoi guztiak adieraz ditzaten.

Nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahiko luketena baino beranduago izango dituztela uste dutenek gehien aitatu duten argudioa da ezin izango dutela arrazoi ekonomikoengatik, hau da, diru-sarrera txikiak dituztela, seme-alaba bat hazteak diru asko kostatzen duela eta abar. Arrazoi hori nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituztela uste duten 25-39 urteko pertsonen % 72,9k aipatu du.

Era berean, erdiak baino gehiagok (% 57,3) aipatzen dute laneko arrazoiak dituztela. Pertsona horiek egoera hauetako batean edo batzuetan daude: zailtasunak dituzte lan egonkorra izateko, kontziliatzeko, lanez aldatu nahi dute, mailaz igo nahi dute, lan-proiekturen bat gauzatu nahi dute, etab. Egoera horiek mugatu egiten dizkiete nahi duten seme-alaba kopurua edo nahi duten adinean izateko aukerak.

7.2.grafikoa

Nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izateko arrazoiak (%)



Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, ez badute ere, nahi izan dituzten pertsonen artean, nahi baino seme-alaba kopuru txikiagoa edo nahi duten adinean baino beranduago izango dituztela uste duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Hirugarren arrazoi-multzoa, arrazoi ekonomiko eta laboralen atzetik, etxebizitzarekin lotutakoak dira (ez dute etxebizitza propiorik, uste dute etxebizitza ez dela egokia, etab.). Nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituztela uste dutenen % 46,0k arrazoi hori aipatu du, baina, aurrerago ikusiko dugunez, alde handia dago etxebizitzaren arazoaren aipamenetan dagoeneko seme-alabak dituzten pertsonen ehunekoaren eta oraindik seme-alabarik ez dutenen ehunekoaren artean.

Heren batek, gutxi gorabehera, adinaren arazoa aipatu du; uste du ez diola denborarik emango nahi beste seme-alaba edo nahi duen adinean izateko (% 33,7k), eta antzeko ehuneko batek (% 32,0k) arazo pertsonalak aipatu ditu (bikotekideak ez duela nahi, bikotekidearengandik banandu dela, ez duela bikotekide egonkorrik eta ez duela bakarrik edo bakarrik seme-alabarik izan nahi, etab.).

Seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituztela uste duten hamar pertsonatik batek (% 10,5ek) osasun-arazoak edo antzutasun-arazoak aipatu ditu, eta beste % 12,0k zehaztu gabeko beste arrazoi batzuen ondorio dela adierazi du.


Jarraian, pertsonen zer egoerak edo ezaugarriak bultzatzen dituzten arrazoi bat edo bestea gehien adieraztera ikusiko dugu. Baina egin behar den lehenengo bereizketa da ea jadanik guraso diren ala ez diren, baina egunen batean izan nahi duten.

Guraso diren pertsonak oraindik seme-alabarik ez dutenak baino gehiago aipatzen dituzte osasun-arazoak edo antzutasun-arazoak, ume kopurua ez izateko arrazoi gisa. Planteatutakoak ez diren beste arrazoi batzuk ere aipatzen dituzte neurri handiagoan.

Oraindik guraso ez badira ere, izan nahi dutenak, seme-alabak dituztenak baino neurri handiagoan argudiatzen dituzte etxebizitza-arazoak, adina edo beste arrazoi pertsonal batzuk.

Nolanahi ere, bi kolektiboetan arrazoi nagusiak ekonomikoak eta lan-arlokoak dira.

7.3.grafikoa
Nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izateko arrazoiak, seme-alabaren bat izatearen arabera (%)



Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, ez badute ere, nahi izan dituzten pertsonen artean, nahi baino seme-alaba kopuru txikiagoa edo nahi duten adinean baino beranduago izango dituztela uste duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Emakumeek gizonak baino gehiago aipatzen dituzte arrazoi ekonomikoak eta lanekoak. Hori logikoa da kontuan hartuta emakumeen batez besteko soldatak gizonenak baino txikiagoak direla eta emakumeek aldi baterako kontratu gehiago izaten dituztela. Gainera, emakumeek gizonak baino proportzio handiagoan eskatu ohi dituzte lanaldi-murrizketak, eszedentziak edo lana eta familia uztartzeko beste neurri batzuk; beraz, egoera horietatik eratorritako lan-ondorio negatiboak egin

behar diete aurre, gizonek baino neurri handiagoan. Bestalde, gizonek emakumeek baino neurri handiagoan aipatzen dituzte arrazoi pertsonalak edo proposatutakoez bestelako arrazoiak, baina gehien aitatzen dituztenak arrazoi ekonomikoak eta lan-arlokoak dira.

Gazteenek (25-29 urte) adierazten dituzte gehien arrazoi ekonomikoak, lanekoak eta etxebizitzakoak. Pertsona zaharrenek (35-39 urte) aipatzen dituzte gehien arrazoi pertsonalak, osasun- edo antzutasun-arrazoiak, bai eta zehaztu gabeko beste arrazoi batzuk ere.

Seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituztela uste duten pertsona gehienak lanean ari dira, baina guztiak ez daude emantzipatuta. Logikoa da, beraz, emantzipatuta ez dauden pertsonak gainerako pertsonak baino askoz gehiago aipatzea etxebizitza-arazoak, nahiz eta arazo ekonomikoak, lanekoak eta pertsonalak ere gehiago aipatu dituzten. Pertsona emantzipatuen artean, jatorrizko familiarekin bizi direnen artean baino neurri handiagoan aipatzen dira osasun- eta antzutasun-arazoak, baina zehaztu behar da pertsona emantzipatuen batez besteko adina altuagoa dela (32,4 urte, eta emantzipatu gabekoen artean 28,9 urte), eta, beraz, seme-alabak izateko problematikak adinaren arabera atzemandakoen antzekoak direla.

7.9.taula

Nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izateko arrazoiak, sexuaren, adin-taldean eta emantzipazioarekiko egoeraren arabera (%)

Zergatik uste duzu nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituzula? Markatu zure egoerarekin bat datozen aukera guztiak*								
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Emantzipazioarekiko egoera	
		Emakumeak	Gizonak	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Emantzipatuta	Emantzipatu gabe
Arrazoi ekonomikoengatik	72,9	79,6	65,0	76,8	69,2	71,1	70,3	77,3
Lan-arrazoiengatik	57,3	62,2	51,1	61,0	55,3	53,7	54,4	62,3
Etxebizitza-arrazoiengatik	46,0	47,0	44,5	56,6	38,0	38,6	35,1	64,6
Adinagatik	33,7	35,7	31,1	29,6	33,8	40,1	34,6	32,2
Arrazoi pertsonalengatik	32,0	24,8	40,6	33,6	27,6	34,5	27,4	40,0
Osasun edo antzutasunagatik	10,5	12,1	8,7	5,2	12,4	16,6	13,9	4,7
Bestelako arrazoiengatik	12,0	7,9	17,1	7,8	8,7	22,3	13,8	9,1
*Portzentajeen batura, guztira, 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak bere egoerari egokitzen zaizkio arrazoi guztiak aipatu ahal zituelako.								

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, ez badute ere, nahi izan dituzten pertsonen artean, nahi baino seme-alaba kopuru txikiagoa edo nahi duten adinean baino beranduago izango dituztela uste duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Gainera, lan-egonkortasunik, ordutegi-malgutasunik eta telelana egiteko aukerarik ez duten pertsonak gehiago aipatzen dituzte lan-arrazoiak, lanean aukera horiek dituzten pertsonak baino.

7.10.taula

Nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izateko arrazoiak, lan-baldintzen arabera (%)

Zergatik uste duzu nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituzula? Markatu zure egoerarekin bat datozen aukera guztiak*							
(% bertikalak)	Total	Lan egonkorra**		Ordutegi-malgu- tasuna duen lana**		Telelanean aritzeko aukera**	
		Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Arrazoi ekonomikoengatik	72,9	70,1	78,0	68,4	76,9	67,9	73,8
Lan-arrazoiengatik	57,3	50,6	74,2	54,4	58,8	48,9	59,3
Etxebizitza-arrazoiengatik	46,0	43,2	52,3	42,7	48,6	36,9	48,9
Adinagatik	33,7	31,8	36,4	31,7	35,3	33,6	33,4
Arrazoi pertsonalengatik	32,0	33,7	31,3	36,1	29,8	37,1	31,8
Osasun edo antzutasunagatik	10,5	12,3	4,1	11,0	9,1	10,3	10,1
Bestelako arrazoiengatik	12,0	13,6	8,6	14,4	10,6	11,4	13,2
*Portzentajeen batura, guztira, 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak bere egoerari egokitzen zaizkio arrazoi guztiak aipatu ahal zituelako.							
**Datu hauek lan egiten duten pertsonen bakarrik dagozkie.							

Oinarria: Seme-alabak dituzten edo, ez badute ere, nahi izan dituzten pertsonen artean, nahi baino seme-alaba kopuru txikiagoa edo nahi duten adinean baino beranduago izango dituztela uste duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Ezin dira erakutsi jaiolekuaren araberrako desberdintasunak; izan ere, laginean atzerrian jaiotako pertsona gutxiak uste dute nahi baino seme-alaba gutxiago izango dituztela edo nahi baino beranduago izango dituztela.

Jarraian, galdera ireki batean jasotako iruzkin batzuk aurkezten ditugu, seme-alabak izan nahi dituzten eta nahi baino gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituztela uste duten pertsonen egoera aditzera ematen dutenak.

“Gazteagoa nintzenean (17 urte) 30 urterekin seme edo alaba batekin ikusten nintzan jada. Baina errealitatean dauden zailtasunak (etxebizitza erosteko, soldata ona lortzeko, ordutegi aldetik denbora edukitzea...) nabarmenak dira”. (Emakumea, 29 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Las personas jóvenes no nos planteamos tener hijos hasta edades tardías porque no tenemos ni trabajos fijos ni posibilidad de compra de una vivienda. Tenemos mucha responsabilidad y por ello no queremos tomar la decisión de tener hijos hasta no tener una seguridad económica y laboral”. (Emakumea, 27 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Gazteek ditugun zailtasun ekonomikoek (hala nola diru sarrera baxuak, etxebizitza erosteko zailtasunak...) ez dute laguntzen. Gainera, gobernuak ez ditu nahiko laguntza ematen”. (Emakumea, 25 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Bajo mi punto de vista es muy complicado tener hijos porque en los años más fértiles de la mujer no se tiene capacidad económica para poder tenerlos y una vez que te lo puedes plantear, como es mi caso, no es tan fácil quedarte embarazada a pesar de que las pruebas digan que está todo bien”. (Emakumea, 33 urtekoa, seme-alabarik gabe)

"Hoy en día es muy complicado tener hijos/as porque cada vez se gana menos, la vida es más cara y no se dan ayudas suficientes. En mi caso, con más ayudas económicas tendría más hijos/as sin dudarlo". (Emakumea, 26 urtekoa, seme-alaba bat du)

"Nire kasuan, gaur egun ez naiz ama, lan finkorik ez dudalako, ordezkapenak egiten jarraitzen dudalako". (Emakumea, 32 urtekoa, seme-alabarik gabe)

"Los jóvenes de Euskadi queremos tener hijos, y la dificultad reside en lo económico (estabilidad, vivienda...), que no es solo "los jóvenes no quieren tener hijos"". (Emakumea, 25 urtekoa, seme-alabarik gabe)

"No podemos tener hijos, aunque lo deseemos más que nada en este mundo, porque no tenemos salarios dignos ni acceso a viviendas adecuadas y dignas". (Emakumea, 32 urtekoa, seme-alabarik gabe s)

"Hay más gente de la que se piensa que sí quiere tener hijo/as, pero que por motivos económicos no puede (por ejemplo, yo), eso me parece totalmente injusto. Porque el tener hijos más tarde significa no estar físicamente y psicológicamente de la misma manera que cuando eres más joven". (Emakumea, 26 urtekoa, seme-alabarik gabe)

"Hoy en día, tener hijos es un privilegio de pocos. Los únicos que tienen hijos pronto (cuando deberíamos tenerlos la mayoría) son los futbolistas". (Gizona, 25 urtekoa, seme-alabaarik gabe)

Emaizta nagusiak

Euskadin, ama edo aita diren edo izan nahi duten 25 eta 39 urte bitarteko pertsona gehienek bi seme-alaba izatea gustatuko litzaiekeela diote (batez besteko zehatza 2,2 da).

Seme-alabarik gabeko pertsonen adinak gora egin ahala, seme-alaba bakarra izan nahi dutenen kopuruak gora egiten du, eta hiru edo gehiago izan nahi dituztenenak, aldiz, behera egiten du.

Nahi den seme-alaba kopurua izateko aurreikuspena nabarmen aldatzen da jada umeren bat dutenen eta umerik ez dutenen artean. Seme-alabaren bat dutenen % 69,1ek uste du, azkenean, nahi duen kopurua izango duela, eta soilik % 14,7k uste du nahi baino kopuru txikiagoa izango duela (aitzitik, % 3,1ek uste du nahiko lituzkeenak baino seme-alaba gehiago izango dituela). Gainerako % 13,1ek ez daki. Aitzitik, oraindik seme-alabarik ez dutenen artean, gutxiengo da nahi duten kopurua izatea espero dutenak (% 34,5), eta nabarmenagoa da nahi baino gutxiago izango dituztela uste dutenen ehunekoa (% 23,9), bai eta ez dakitenena eta etorkizunaz espekulatzeraz ausartzen ez direnena ere (% 40,7).

Bestalde, bai jada ama edo aita diren artean, bai oraindik ez diren baina izan nahiko luketen artean, seme-alaba kopuruak gora egin ahala, nahi baino gutxiago izango dituztela uste dutenen ehunekoak ere gora egiten du.

Ama edo aita ez diren baina izan nahiko luketen 25-39 urteko pertsonenak, batez beste, 33,3 urterekin eduki nahiko lukete lehen seme-alaba. Pertsona horien adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da ere lehen seme-alaba izan nahi duten adina, bai eta adin horretan izateko konfiantza ere. Gizonak emakumeak baino baikorragoak dira lehen haurra nahiko luketen adinean izateari dagokionez, baina, hala ere, kolektibo bakar batean ere ez dira gehiengo lehen seme-alaba eduki nahiko luketen adinean izango dutela uste dutenak.

Oro har, umerik ez izan arren, guraso izan nahi duten pertsonen % 27,2k uste du lehen seme-alaba nahi duen adinean izango duela. Gehiago dira geroago izango dutela uste dutenak (% 37,6) edo ez dakitenak (% 33,8). Soilik % 1,4k uste du nahi baino lehenago izango duela.

Nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango direla uste izateko arrazoi nagusiak ekonomikoak dira. Nahi baino alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituztela uste dutenen % 72,9k arrazoi ekonomikoak argudiatzen ditu. % 57,3k lan-arrazoiak aipatzen ditu, eta % 46,0k etxebizitza-arrazoiak. Gutxiago dira adina (% 33,7), arrazoi pertsonalak (% 32,0), osasun-arrazoiak edo antzutasuna (% 10,5) edo zehaztu gabeko beste arrazoi batzuk (% 12,0) aipatu dituztenak.

Emakumeek gizonek baino askoz gehiago aipatzen dituzte arrazoi ekonomikoak eta lanekoak, eta gizonek, berriz, emakumeek baino neurri handiagoan aipatu dituzte arrazoi pertsonalak. Adinak gora egin ahala, behera egiten dute etxebizitzaren aipamenek, eta gora egiten du adina edo osasun- edo antzutasun-arazoak aipatzen dituztenen ehunekoak.

8. Ama edo aita izateko gehieneko adina

Seme-alabak izateko batez besteko adina ikusita (amen kasuan, lehen seme-alaba 32,4 urterekin eta bigarrena 34,2 urterekin, batez beste, Euskadin 2023an), 25 eta 39 urte bitarteko pertsonei galdetu diegu euren ustez zein izan beharko litzatekeen seme-alabak izateko gehieneko adina emakumeen kasuan eta gizonen kasuan. Gehieneko adinari buruz hitz egitean, honi buruz ari gara: zein adinetik gora ez da komenigarritzat jotzen (gurasoentzat, seme-alabentzat edo guztientzat) seme-alabarik izatea. Ez gara, inola ere, debekuez edo legezko mugez ari.

Zaila da galdera horri erantzutea, eta hala adierazi dute elkarrizketatuek. Esan digute oso kontu pertsonala dela, pertsona bakoitzaren bizi-egoeraren arabera, eta ezin zaiela mugarik jarri nahiei.

“Nire ustez, haurrak izateko gehieneko adina menopausiak eta norberak ezartzen ditu, ez dut uste zenbaki finko eta unibertsal bat dagoenik, bakoitza kasu ezberdina da”. (Emakumea, 26 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Creo que la edad máxima para tener hijos e hijas no debe depender de un número, sino de un contexto social, sanitario, económico... Tener en cuenta las circunstancias de cada persona. Considero, además, que es responsabilidad de cada padre o madre responsabilizarse al respecto, y parto de la base primaria de no juzgar al otro”. (Emakumea, 32 urtekoa, seme-alaba bat du)

“Gehieneko adinaren kasuan, seme-alaben erritmoa jarraitu ezin duen adina izango litzateke niretzat gehieneko adina. Seme-alabak izateko hautua pertsonala da...”. (Emakumea, 27 urtekoa, seme-alaba bat du)

“Cada uno/a es libre de decidir cuándo, cuántos, cómo y con quién quiere tener hijo/a(s), siempre que su salud se lo permita y lo haga con responsabilidad”. (Gizona, 29 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Adin-muga seme-alabak izateko banakoaren osasunarekin eta energia-mailarekin dago erlazionatuago adinaren zenbakiarekin baino”. (Emakumea, 27 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Bakoitzak nahi duen adinarekin izan ditzala seme-alabak, izan nahi baditu”. (Emakumea, 34 urtekoa, seme-alaba bat du)

“Ez dut uste adin zehatzik egon behar denik, bakoitza desberdina delako eta bere gorputzak limitazioak ezarriko ditu adin batean, baina ez nuke zehaztuko adin zehatz bat”. (Gizona, 29 urtekoa, seme-alabarik gabe)


“En mi caso, tener un hijo te cambia la vida y creo que debes estar seguro porque la vida cambia mucho. Nos encanta viajar, ser independientes y un hijo es para toda la vida y lo compartes con otra persona. Por ello creo que no es la edad sino estar preparado mentalmente para ello. Tengo 35 años y aun me siento como si tuviese 25 y no tengo ese instinto y tampoco sé si algún día lo tendré, cambia mucho la vida tener un hijo y no siempre es para bien. En mi círculo, mujeres han pasado depresión postparto, el cuerpo cambia a mal, las hormonas se revolucionan y al final afecta mucho más a una mujer todo esto que a un hombre... Y después una personita depende de ti para todo, horarios, cenas, baños y sobre todo le tienes que dar una educación ejemplar, antes las mujeres no trabajaban tanto como ahora y es muy complicado”. (Emakumea, 34 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Ez dut zenbakirik jarriko aurreko galderetan, uste dudalako oso erabaki pertsonala dela. Noski, biologikoki, zenbat eta gazteago izan, hobeto. Baina erabakia oso norberarena da; egoera ekonomikoa, bikote-egoera, lana... Faktore askok hartzen dute parte erabakian, eta guztiz pertsonala denez, uste dut ezin dudala adin konkreturik zehaztu”. (Emakumea, 26 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Nolanahi ere, elkarrizketatutako pertsona gehienek uste dute seme-alabak 40 urte bete baino lehen eduki beharko liratekeela, batez ere emakumeak aipatzen direnean.

8.1.grafikoa

Emakumeek eta gizonen seme-alabak izateko gehieneko adinari buruz 25-39 urteko pertsonen iritzia (%)



Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Seme-alabak 40 urte bete baino lehen eduki behar direla uste duten pertsona horiek beren erantzuna argudiatzen dute, gurasoek eta haurrek izan litzaketen osasun-arazoak edota ongizate emozionaleko arazoak aipatuz.

“35 años como edad tope para prevenir muchos riesgos en la salud del bebé y de la madre. Es obvio que hoy en día con medicamentos y prevención se pueden tener más tarde, pero eso no quita que la mujer tenga que estar muy vigilada y controlada ya que, biológicamente, a partir de los 35 se empieza a tener un riesgo”. (Emakumea, 30 urtekoa, seme-alaba bat du)

Adin jakin bat aipatu gabe, pertsona askok muga bat ezartzen dute, adin berantiarrean seme-alabak izateak ekar ditzakeen arazo fisikoetan eta/edo gurasoen eta seme-alaben arteko adin-diferentzian oinarrituta. Haren ustez, seme-alaben ongizatea erabakigarria da, eta ez luke gurasoen adinak baldintzatu behar.

“En el caso de la edad, no solo hay que tener en cuenta los posibles riesgos durante el embarazo sino la edad que van a tener los progenitores durante las etapas de crecimiento de los hijos/as,

no vas a poder seguir el ritmo de juego y las necesidades de un niño de 10 años si tienes 60, y lo mismo con la adolescencia/madurez, además que tu vejez y muerte van a llegar a unas edades demasiado tempranas para ellos". (Emakumea, 28 urtekoa, seme-alabarik gabe)

"...no creo que deba haber límite, pero creo que sí que deberían pensar en la edad que tendrán cuando los hijos crezcan, en unos años...". (Emakumea, 27 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Ez dago iritzi-desberdintasunik emakumeen eta gizonen artean seme-alabak izateko gehieneko adina baloratzean, ez emakumeentzako muga-adinari buruz galdetzean, ezta gizonentzako muga-adinari buruz galdetzean ere.

Adinaren arabera aldeak soilik nabarmentzen dira emakumeen muga-adinari dagokionez (ez, ordea, gizonen muga-adinari dagokionez). 35-39 urteko pertsonen uste dute gehien emakumeek 40 urte bete aurretik izan beharko lituzketela seme-alabak.

8.1.taula.

Emakumeek eta gizonen seme-alabak izateko gehieneko adinari buruz 25-39 urteko pertsonen iritzia, seme-alabaren bat izatearen, adin-taldearen eta jaiotzeko araberako (%)

Zure ustez, zein izan beharko litzateke seme-alabak izateko gehieneko adina emakumeen kasuan? Eta gizonen kasuan?								
(% bertikalak)	Guztira	Seme-alabak izatea		Adin-taldeak			Jaiotekua	
		Bai*	Ez	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	Euskadi	Atzerria
EMAKUMEEN KASUAN EZARTZEN DEN GEHIENEZKO ADINA								
30 urtetik beherakoa	8,7	13,2	6,1	7,0	5,3	14,6	6,9	17,4
31-35 urte artekoa	18,9	21,6	17,3	19,4	19,8	17,2	17,9	26,0
36-40 urte artekoa	42,6	42,5	42,7	42,5	43,1	42,2	43,7	37,0
41-46 urte artekoa	19,2	15,7	21,2	18,8	17,8	21,3	20,6	10,9
46-50 urte artekoa	5,4	3,4	6,5	6,8	5,1	4,0	6,0	1,9
50 urtetik gorakoa	0,9	0,3	1,2	1,1	0,8	0,7	0,9	0,6
Ez dute erantzun	4,3	3,3	4,9	4,3	8,1	0,0	3,8	6,3
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
BATEZBESTEKOAK	39,1	38,0	39,7	39,5	39,2	38,4	39,5	36,9
GIZONEN KASUAN EZARTZEN DEN GEHIENEZKO ADINA								
30 urtetik beherakoa	5,8	10,2	3,4	5,2	2,2	10,9	4,2	13,1
31-35 urte artekoa	14,0	16,5	12,6	13,6	15,1	13,2	14,0	16,6
36-40 urte artekoa	39,4	39,3	39,4	39,3	42,1	36,2	40,8	33,3
41-46 urte artekoa	24,3	20,4	26,5	24,6	21,8	26,7	25,4	16,4
46-50 urte artekoa	10,0	8,2	11,0	10,7	9,5	9,7	9,8	10,1
50 urtetik gorakoa	2,3	1,9	2,5	2,4	1,4	3,4	2,0	4,1
Ez dute erantzun	4,3	3,5	4,7	4,2	7,9	0,0	3,7	6,3
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
BATEZBESTEKOAK	40,8	39,8	41,4	41,1	40,8	40,5	41,0	39,9
*Kolektibo horretan bere lehen seme-alabaren zain daudenak ere kontuan hartu dira								

Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Iritzi-desberdintasun nabarmenenak Euskadin jaiotako eta atzerrian jaiotako artean, bai eta seme-alabaren bat dutenen eta seme-alabarik ez dutenen artean ere jaso direnak dira.

Atzerrian jaiotakoek Euskadin jaiotakoek baino lehenago jartzen dute adin-muga. Izan ere, atzerrian jaiotako pertsonen artean, gehiago dira emakumeek 30 urte bete aurretik seme-alabak izan beharko lituzketela uste dutenak 40 urte bete ondoren eduki ditzaketela uste dutenak baino. Gizonen adin-muga balioestean, Euskadin jaiotakoen eta atzerrian jaiotakoen arteko iritzi-aldeak bere horretan jarraitzen du, baina ez dira hain nabarmenak.

Seme-alabak dituzten pertsonen ere haurrak izateko gehieneko adina aurreratzen dute, seme-alabarik ez duten pertsonekin alderatuta. Aurrerapen hori handiagoa da emakumeen muga-adinari buruz hitz egiten denean gizonen muga-adinari buruz hitz egiten denean baino.

Kolektibo guztietan emakumeentzat ezartzen den adin-muga gizonentzat ezartzen dena baino pixka bat baxuagoa da.

Eraitza nagusiak

Elkarrizketatutako pertsona gehienek adierazi dute seme-alabak 40 urte bete aurretik eduki beharko liratekeela, batez ere emakumeentzako muga-adinari dagokionean. Oso gai pertsonala dela eta pertsona bakoitzaren egoeraren arabera dela uste duten arren, 25-39 urteko biztanleriaren % 70,2k adierazi du emakumeek ama izateko gehieneko adina, asko jota, 40 urtekoa izan beharko litzatekeela (batez bestekoa 39,1 urtekoa da). Gizonen kasuan, aita izateko adin-muga 40 urteetan ezartzen dutenen ehunekoa dezente txikiagoa da (% 59,2); izan ere, gizonen batez besteko adin-muga 40,8 urtekoa da.

Atzerrian jaiotakoek ama edo aita izateko gehieneko adina aurreratzen dute, Euskadin jaiotakoek diotenaren aldean (atzerrian jaiotakoek emakumeak ama izateko ezartzen duten batez besteko gehieneko adina 36,9 urtekoa da, eta gizonak aita izateko gehieneko adina, 39,9 urtekoa).

9. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko iritziak

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko hainbat neurri daude indarrean Euskadin. Neurri horietako batzuk Eusko Jaurlaritzaren mende daude zuzenean, eta beste batzuk, amatasun- edo aitatasun-baimenen iraupena kasu, Espainiako Gobernuak ezartzen ditu.


Inkesta honetan 25 eta 39 urte bitarteko pertsona guztiei, guraso izan zein ez izan, galdetu diegu seme-alabak dituzten familiei zenbat laguntzen dieten indarrean dauden hainbat neurrik.

Eraitza nagusi gisa, esan behar dugu neurri horiek seme-alabak dituzten familiei asko laguntzen dietela uste duten pertsonak ez direla inola ere gehiengoa izatera iristen. Baina nahikoa laguntzen dutela uste dutenak ere kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu inkestatutako pertsona gehienek berresten dituztela indarrean dauden lau laguntza-mota.

Familiei gehien lagunduko liekeen neurria (asko edo nahikoa laguntzen duela dioten pertsonen ehunekoa kontuan hartuta) haurreskolen edo haurtzaindegi publikoen eskaintza izango litzateke. Kasu horretan, inkestatutako pertsonen % 63,8k uste du asko edo nahikoa laguntzen duela. Inkesta erantzun duten pertsonen iritziz, gehien laguntzen duten hurrengo neurriak aitatasun- eta amatasun-baimenen iraupena dira (% 58,3k eta % 54,2k, hurrenez hurren, uste dute asko edo nahikoa laguntzen dutela baimen horiek). Eta, laugarrenik, haurrentzako aisialdi hezigarriko programa publikoen eskaintza legoke, hala nola haurguneak eta kideguneak (% 55,4k uste du asko edo nahikoa laguntzen dutela programa horiek).

9.1.grafikoa

Seme-alabak dituzten familiei neurri hauetako bakoitzak ematen dien laguntza-mailari dagokionez, 25-39 urteko pertsonen balorazioa (%)



Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketak edo eszedentziak hartzen dituztenentzako diru-laguntzen kasuan, neurri horiek asko edo nahikoa laguntzen dutela uste dutenen ehunekoen batura gutxi edo batere laguntzen ez dutela uste dutenenaren antzekoa da.

Aldiz, seme-alaba bakoitzeko hileko diru-laguntzen iraupenari dagokionez (3 urtera arte, lehen eta bigarren seme-alabentzat), edo horien zenbatekoari dagokionez (200 euro, lehen eta bigarren seme-alabentzat), bai eta seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei dagokienez ere, gehiago dira gutxi edo batere laguntzen ez dutela uste dutenak, asko edo nahikoa laguntzen dutela uste dutenak baino.

Beraz, ondoriozta daiteke 25-39 urteko biztanleek positiboago baloratzen dituztela kontziliazio-neurriak, bai denborari dagokionez, bai eskura dauden zerbitzu publikoei dagokienez, zuzeneko neurri ekonomikoak baino, gutxienez egungo iraupenari eta zenbatekoari dagokienez. Aurrerago ikusiko dugunez, inkestatutako pertsonen egindako iruzkinetan aipatu dute laguntza ekonomiko horiek ez direla nahikoak seme-alaba bat hazteak eragindako gastuei aurre egiteko.

Kolektiboen arabera desberdintasunei dagokienez, familientzako laguntzei buruzko iritzi-desberdintasun nagusia umeak dituztenen (edo lehen umearen zain daudenen) eta umerik ez dutenen artekoa da (ume kopuruak ez du eraginik). Guraso ez diren pertsonen seme-alabak dituztenek baino neurri handiagoan uste dute proposatutako neurriek asko laguntzen dutela. Beraz, esan liteke ezjakintasunak pentsarazten duela laguntzek, teoriarik, asko lagundu beharko luketela, baina, praktikan, eskasak direla hautematen da.

Sexuaren arabera ere ikusten dira iritzi-aldeak. Emakumeak kritikoagoak dira laguntza horiekin, nahiz eta kontuan izan behar den emakumeen artean seme-alabak dituztenen ehunekoa gizonen artean dagoena baino handiagoa dela, eta, beraz, ama gisa izandako esperientziak eragiten du emakume askoren iritzian.

Gauza bera gertatzen da adinarekin. Adinak behera egin ahala, handitu egiten da aurkeztutako neurri guztiek seme-alabak dituzten familiei asko laguntzen dietela uste dutenen ehunekoa; baina kontuan izan behar da adinak behera egin ahala, umeak dituzten pertsonen ehunekoak ere behera egiten duela.

Lan egiten duten pertsonen lan egiten ez dutenek baino hobeto baloratzen dute aitatasun- eta amatasun-baimenen iraupena; neurri horiek familiei asko laguntzen dietela uste dutenen ehunekoak lan egiten ez dutenen artean erregistratutakoak baino handiagoak dira. Aitzitik, lanik egiten ez duten pertsonen lan egiten dutenek baino neurri handiagoan uste dute haurreskolek edo haurtzaindegi publikoek eta astialdi hezitzaileko programa publikoek, hala nola haurguneek edo kideguneek, asko laguntzen dietela seme-alabak dituzten familiei. Hala ere, pentsa daiteke lan egiten ez duten pertsonen gutxiago erabiltzen dituztela zerbitzu horiek, haien beharrik ez dutelako, eta, beraz, gutxiago ezagutzen dituztela.

Azkenik, ia ez dago iritzi-alderik Euskadin jaiotakoen eta atzerrian jaiotakoen artean.

Seme-alabak izatea eta sexua iritzi-desberdintasun handienak erakusten dituzten aldagaiak direla kontuan hartuta, bi aldagai horiek konbinatu ditugu, eta ikusi dugu seme-alabarik gabeko gizonen pentsatzen dutela gehien neurri horiek familiei asko laguntzen dietela, eta, aldiz, seme-alabak dituzten emakumeak direla kritikoan neurri horiekin guztiekin.

9.1.taula

Seme-alabak dituzten familiei neurri hauetako bakoitzak ematen dien laguntza-mailari dagokionez,
25-39 urteko pertsonen balorazioa (%)

Zure ustez, zenbat laguntzen diete seme-alabak dituzten familiei neurri hauek?							
(% bertikalak)		SEME-ALABAK DITUZTE*			EZ DUTE SEME-ALABARIK		
		Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
			Emaku-meak	Gizonak		Emaku-meak	Gizonak
Haur-eskolen edo haurtzaindegi publikoen eskaintzak	Asko	22,6	22,6	22,7	32,6	30,4	34,3
	Nahikoa	36,9	37,9	35,6	33,9	32,8	34,7
	Gutxi	26,4	24,8	28,6	20,4	25,2	16,7
	Ezer ez	6,1	6,8	5,2	3,8	3,5	3,9
	Ez dute erantzun	8,0	7,9	8,0	9,3	8,1	10,4
Aitatasun-baimenaren iraupenak (16 aste)	Asko	18,1	12,4	25,6	28,2	21,8	33,7
	Nahikoa	33,9	25,1	45,7	34,3	32,9	35,6
	Gutxi	39,2	48,7	26,4	32,7	38,9	27,1
	Ezer ez	7,2	10,9	2,2	3,0	4,6	1,7
	Ez dute erantzun	1,6	2,8	0,0	1,9	1,9	1,9
Amatasun-baimenaren iraupenak (16 aste)	Asko	17,3	11,7	24,8	28,5	22,0	34,0
	Nahikoa	28,8	17,5	44,1	31,1	29,8	32,3
	Gutxi	43,7	55,8	27,5	35,5	41,9	29,9
	Ezer ez	8,9	13,9	2,2	3,2	4,9	1,9
	Ez dute erantzun	1,2	1,1	1,5	1,7	1,4	1,9
Haurrentzako astialdi hezitzaileko programa publikoen eskaintza, hala nola <i>haurguneak</i> eta <i>kideguneak</i>	Asko	15,3	14,7	16,1	23,0	23,0	22,9
	Nahikoa	33,5	29,3	39,1	36,8	38,8	35,1
	Gutxi	24,9	27,7	21,2	23,4	24,0	22,8
	Ezer ez	5,7	6,0	5,3	3,6	3,4	3,8
	Ez dute erantzun	20,6	22,3	18,3	13,3	10,8	15,4
Seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa hartzen duten pertsonentzako diru-laguntzek	Asko	9,5	8,3	11,2	23,8	21,2	26,0
	Nahikoa	18,6	15,6	22,7	33,2	32,3	33,8
	Gutxi	46,6	48,9	43,5	30,5	34,2	27,6
	Ezer ez	11,1	13,5	7,9	5,0	5,4	4,5
	Ez dute erantzun	14,2	13,7	14,8	7,5	6,9	8,1
Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen duten pertsonentzako diru-laguntzek	Asko	9,2	8,4	10,2	22,6	19,8	24,9
	Nahikoa	17,4	13,1	23,1	32,8	31,9	33,6
	Gutxi	41,9	44,8	38,1	30,8	33,7	28,2
	Ezer ez	12,7	15,9	8,3	5,4	6,2	4,8
	Ez dute erantzun	18,8	17,7	20,3	8,4	8,4	8,5
Seme-alaba bakoitzeko hileko diru-laguntzen iraupenak (3 urtera arte, lehen eta bigarren seme-alabentzat)	Asko	9,9	8,7	11,6	16,1	13,4	18,4
	Nahikoa	22,9	17,6	30,1	32,7	32,6	32,6
	Gutxi	53,1	57,4	47,4	42,9	45,5	41,0
	Ezer ez	10,4	13,1	6,8	5,0	4,7	5,2
	Ez dute erantzun	3,6	3,2	4,2	3,2	3,7	2,9
Seme-alaba bakoitzeko hileko diru-laguntzen zenbatekoak (200 euro lehen eta bigarren seme-alabentzat)	Asko	8,7	6,7	11,3	14,8	12,4	16,8
	Nahikoa	28,2	25,0	32,4	26,5	27,7	25,6
	Gutxi	49,4	52,1	45,8	48,1	50,0	46,4
	Ezer ez	10,4	12,5	7,5	7,9	7,2	8,3
	Ez dute erantzun	3,3	3,6	2,9	2,8	2,7	2,9
Seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatzeko diru-laguntzek	Asko	6,2	5,8	6,8	17,0	14,3	19,4
	Nahikoa	12,3	9,7	15,8	29,6	26,5	31,8
	Gutxi	40,0	39,6	40,7	34,4	39,1	30,8
	Ezer ez	16,4	18,7	13,4	8,3	9,9	6,9
	Ez dute erantzun	25,0	26,3	23,3	10,7	10,2	11,2
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100
*Kolektibo horretan bere lehen seme-alabaren zain daudenak ere kontuan hartu dira							

Oinarria: 25 eta 39 urte bitarteko pertsonak

Elkarriketatuak emandako argudioei jarraiki, ikusten dugu, zuzeneko laguntzei dagokienez, pertsona askok adierazi dutela, beren ustez, ez direla nahikoak.

“Unas ayudas económicas de tan escasa entidad (cantidades que no cubren el coste real de tener un/una hijo/a) no pueden ser la única solución...”. (Emakumea, 31 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Algunas de las ayudas económicas no son suficientes...”. (Gizona, 34 urtekoa, seme-alaba bat du)

“Umeengatik ematen diren laguntzak handitu beharko lirateke”. (Emakumea, 28 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Habría que dar más ayudas a las personas con hijos/as (...) teniendo en cuenta la situación del alquiler, y, en general, de la vida, mucha gente decide no tener hijos/as simplemente porque no puede permitírselo”. (Emakumea, 27 urtekoa, bi seme-alaba ditu)

“Hay mujeres que se nos hace muy estresante poder lidiar trabajo e hijos, las ayudas entran bien, pero deberían de ayudar mucho más ya que los niños son el futuro de mañana, cada vez es más difícil pagar la hipoteca, el colegio, la luz, el agua, gas, basuras, extraescolares (1 cada uno porque somos pobres). Mi nivel adquisitivo ahora mismo ha mermado muchísimo. Somos familia numerosa y llegar a fin de mes y ahorrar nos está suponiendo gran esfuerzo. El IPC ha subido tanto que nos abruma a las familias”. (Emakumea, 33 urtekoa, hiru seme-alaba ditu)

Kontziliazio-neurriak areagotzea ere eskatzen da.

“Gurasotasun baimenak luzeagoak izan beharko lirateke benetan lagundu ahal izateko, gutxienez 6 hilabete”. (Pertsona ez bitarra, 31 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Nire ustez, amatasun-aitatasun baimenak laburregiak dira. Europako beste hainbat herrialdetan askoz ere luzeagoak dira. Baita lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak ere”. (Emakumea, 30 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Tanto el importe de las ayudas por hijo, como la duración de las mismas es insuficiente. La ayuda, además, debería alargarse, porque con 3 años un niño sigue siendo muy dependiente y para conciliar con tu trabajo es muy complicado. Y cuando tienes más de un hijo, evidentemente, la cosa se complica”. (Emakumea, 33 urtekoa, bi seme-alaba ditu)

“Kontziliazio neurri guztiak dira lagungarriak, baina ez dira nahikoa. Lan egutegiak inongo kasutan ez dira hurbildu ere egiten hezkuntzaren egutegiari erantzutera; eta, beraz, kontziliazioa gaur gaurkoz gezur handi bat da”. (Emakumea, 32 urtekoa, bi seme-alaba ditu)

Eta, batez ere, neurri guztiak zabaltzeko eta konbinatzeko laguntza-politika bat eskatzen da, guraso bakarreko familiei arreta berezia eskainiz.

“Laguntza mota bakoitza bere kabuz ez da nahikoa, familiek hainbat laguntza mota ezberdin behar dituzte, eta haurren heziketaren prozesu osoan, ez hasieran bakarrik. Bikoteei umeak izateko erraztasunak jartzen badizkiegu jendeak ume gehiago izango ditu”. (Gizona, 31 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Kontziliazioa erreala izateko malgutasun gehiago beharko litzateke lanetan eta dirulaguntza gehiago”. (Emakumea, 31 urtekoa, bi seme-alaba ditu)

“Las ayudas por hijo, estaría bien que las alargaran un poco. Y las que dan por excedencia y reducción de jornada son una broma. Habría que revisar y aumentar porque no es realista. No

está bien diseñado ni pensado. El tema de la conciliación familiar, fuera del empleo público, es una utopía. Debería ampararse por ley una conciliación real. Que exista un control y se revise, porque las empresas privadas no registran muchas de las medidas que en el empleo público sí que existen". (Emakumea, 37 urtekoa, seme-alaba bat du)

"Tener hijos en Euskadi es echarse una soga al cuello. Yo con un hijo y siendo madre soltera tengo que hacer malabares para poder trabajar y el cuidado de mi hijo. Si no tiro de los abuelos no podría trabajar. Tampoco tengo derecho a ninguna ayuda social ya que al vivir con mis padres y tener un trabajo que gano una miseria ya por eso no cumplo con los requisitos de ni siquiera obtener la beca por el comedor en un colegio público. Ahora díganme ustedes ¿Creen que me podría yo animar a tener otro hijo cuando no puedo acceder ni siquiera a un piso de alquiler porque los precios están por las nubes? ¿De verdad creen que yo con 27 años estaría animada a tener otro hijo cuando para poder trabajar tengo que depender de mis padres para que lleven y recojan del colegio a mi hijo?". (Emakumea, 27 urtekoa, seme-alaba bat du)

"Deberían dar más ayudas, especialmente para las personas que tienen que cuidar ellas solas a sus hijos o hijas". (Emakumea, 38 urtekoa, seme-alabarik gabe)

"Para las familias separadas hay muy pocas ayudas". (Emakumea, 37 urtekoa, seme-alaba bat du)

Laguntzak eskuratzeari dagokionez, autonomo gisa lan egiten duten pertsonen salatu dute diskriminatuta sentitzen direla beren lan-egoeragatik.

"Autonomoa naiz, ez daukat apenas haurdunaldia eta amatasun baimen ezta eskubiderik. Ama izateko erabakia hartu badut nire enpresako bazkide eta nire familia eta bikotearen babesari esker izan da". (Emakumea, 33 urtekoa, haurdun, bere lehen seme-alabaren zain)

Pertsona batzuek adierazi dute jaiotza-tasa txikia egungo sistema ekonomikoaren ondoriozko arazoa dela, eta sistema eraldatzea eskatzen dute. Bere ustez, laguntzak adabaki hutsak dira, eta gazte batzuei lagun diezaiekete, baina ez gehienei.

"...Lo que hace falta es mejorar los accesos a la gente joven a trabajos dignos, estables y a viviendas dignas (...). Si quieren que los jóvenes se dediquen a la reproducción lo mejor es crear un ambiente fértil. La reproducción en la naturaleza es un 'lujo'. Hay que favorecer que las condiciones lo permitan". (Emakumea, 34 urtekoa, seme-alabarik gabe)

"La solución de la natalidad no se soluciona con parches (ayudas). Se soluciona mejorando el poder adquisitivo de las familias, reduciendo la jornada laboral y facilitando el acceso a la vivienda. Es decir, realizando cambios estructurales en nuestro sistema productivo". (Gizona, 31 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Bestalde, laguntzak nahikotzat zein eskastzat jotzen diren alde batera utzita, pertsona batzuek berez aipatzen dute gizartean balio-aldaketa bat dagoela, seme-alabak izatea baino gehiago beste gai batzuk lehenesten direla, eta, laguntza asko ematen badira ere, jaiotza-tasak jaisten jarraituko duela.

"La bajada de la tasa de natalidad no es un tema económico; por mucho que den ayudas, no va a subir". (Gizona, 31 urtekoa, seme-alabarik gabe)

"Pienso que las ayudas a la natalidad sirven de poco porque lo que de verdad necesitamos es un cambio de mentalidad; que dejemos de pensar que tener hijos equivale a carga, renuncia o falta

de libertad. Nuestros antepasados tuvieron hijos en situaciones bastante peores...". (Emakumea, 29 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Eraitza nagusiak

25 eta 39 urte bitarteko pertsona gehienek uste dute haurreskolen edo haurtzaindegi publikoen eskaintza dela seme-alabak dituzten familiei gehien laguntzen dien neurria; % 63,8k uste du asko edo nahikoa laguntzen diela.

Halaber, gehienek diote aitatasun- edo amatasun-baimenen iraupenak eta haurrentzako aisialdi hezitzaileko programen eskaintzak (hala nola, haurguneak eta kideguneak) asko edo nahikoa laguntzen dietela seme-alabak dituzten familiei.

Umeak zaintzeko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia hartzen duten pertsonentzako diru-laguntzen kasuan, iritziak oso banatuta daude; izan ere, antzeko ehunekoa osatzen dute asko edo nahikoa laguntzen dutela uste dutenek eta gutxi edo batere laguntzen ez dutela uste dutenek.

Aitzitik, lehen eta bigarren seme-alabengatik hileko diru-laguntzen egungo zenbatekoari eta iraupenari dagokienaz, bai eta seme-alabentzako zaintzaileak kontratatzeke laguntzei dagokienaz ere, gehiago dira neurri horiek gutxi edo batere laguntzen ez dutela uste dutenak asko edo nahikoa laguntzen dutela uste dutenak baino.

Kasu honetan gehien segmentatzen duen aldagaia seme-alabak izatea edo ez izatea da. Haurrak dituzten pertsonak askoz kritikoagoak dira laguntza horiekin guztiekin haurrik ez dutenak baino. Gainera, seme-alabak dituzten emakumeak dira laguntza horiekin guztiekin kritikoenak; horietatik guztietatik, haurreskolen eskaintzak bakarrik lortzen du amen gehiengoaren berrespena.

10. Inkestatutako pertsonak mahai gainean jarri dituzte beste gai batzuk

Elkarriketatutako pertsonak, berez, inkestan agertzen ez ziren beste gai batzuk plazaratu dituzte, edo planteatutako gairen batean sakondu dute.

Adibidez, adoptatzeko zailtasunak berez aipatu dituzte.

“Bikotekiderik ez daukaten pertsonentzat oso zaila da haurrak adoptatzea (zailtasun gehiegi jartzen dituzten). Eta, gaur egun, familia eredu desberdinak daudela ulertu behar dute”. (Gizona, 33 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Halaber, alokairuko sabelen gaia planteatu da, gizonez osatutako bikote homosexualek seme-alaba biologikoak izateko aukera gisa.

“Bi gizonezkoz osatutako bikoteak ahaztuta daude gizartean gurasotasun aldetik. Emakumeek presio eta uko gehiago egin behar dituztela egia da, oraindik gizartea oso matxista delako, baina era berean guraso izateko aukera guztiak dituzte (biologiko eta bestelakoak) izan hetero, izan homo edo izan bikoterik gabe hazia erraz lortuz. Aldiz, gizonezkoon gainean kritika eta seinalamendu izugarria dago, adopzioa da guretzat onartutako aukera bakarra eta maiz urteak eta urteak zain egon behar izaten da. Sabel subrogatua egitea erabaki dutenei denetik esaten zaie, ez al da kasu honetan ere emakumea bere gorputzaren jabe eta bere erabakien jabe abortuan bezala? Zenbait gauzetarako emakumea bere gorputzaren jabe da baina besteetarako gizarteak mugatu behar dio askatasuna? Nik uste buelta bat eman behar zaiola honi, feminismoa LGTB taldeaz ahazten ari da, batez ere bi gizonezkoen bikoteei dagokienez. Gizonezkoa izatea abantaila da gizartean, bai, baina heteroa bazara, hortik ateratzen bazara berehala zoaz azken postura”. (Gizona, 30 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Bikote homosexualek aipatzen dituzte gehien guraso ez-biologikoak izateko aukera horiek eta aurre egin beharreko zailtasunak.

“Las personas gays sufrimos muchos impedimentos para tener hijos: muchos países no permiten adoptar a parejas gays, la disponibilidad de adopciones es cada vez más limitada en general, además de que la gestación subrogada está cada vez más restringida”. (Gizona, 29 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“En España, etc., no se acepta el alquiler de vientre, etc. Y eso dificulta nuestro paso hacia la paternidad, al ser una pareja homosexual”. (Gizona, 38 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Lagundutako ugalketaren gaia ere agertzen da zenbait diskurtsotan, epeei, garestitasunari, zerbitzu publiko eta pribatuei eta abarri dagokienez.

“Cuando tienes que pasar por un proceso de fecundación el servicio Vasco de Salud tampoco ayuda. A las mujeres tardan un año en hacerles el estudio, a los hombres a penas se les mira. Tiempo de espera de un año, empiezan a realizar pruebas, tiempo de pruebas... 4/6 meses más de espera, lista de espera de 14 meses... con la suerte de que te quedes embarazada en la primera inseminación.... Con lo cual mejor te vas a un privado, ya que así no terminas de tener hijos”. (Emakumea, 34 urtekoa, seme-alaba bat du)

“Cada vez es más difícil poder acceder a tratamientos de fertilidad. Hace falta más financiación y más investigación”. (Emakumea, 35 urtekoa, bi seme-alaba ditu)

Bestalde, nahiz eta gero eta ohikoagoak diren, errealitate berriak ere aipatzen dira, hala nola bikotekideetako batek seme-alabak izatea eta besteak ez.

“Mi pareja tiene una hija en custodia compartida, algo que cada día es más común: no tener hijos en común pero sí de relaciones anteriores. Y no hay ayudas en cuanto a conciliación o reducción por ello, ya que no es mi hija como tal, aunque también me haga cargo, ni en la declaración de la renta y también me genera gastos”. (Emakumea, 30 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Baina elkarrizketatutako pertsonen gehien errepikatu duten ideia da gazteek dituzten zailtasun ekonomikoak eta horiek amatasun-aitatasunean duten eragina.

“Considero que la edad media de ser padres entre la juventud vasca está subiendo por las dificultades que tenemos los jóvenes a la hora de poder tener una vida totalmente independiente (porque si no somos capaces de cuidar de nosotros mismos por nuestra cuenta, cómo vamos a cuidar a nadie...)”. (Emakumea, 28 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“El hecho de tener más tarde los hijos, es porque buscamos tener una estabilidad económica, un hogar y un trabajo estable y hoy en día para los jóvenes es bastante difícil”. (Emakumea, 33 urtekoa, seme-alaba bat du)

“La situación de precariedad laboral, estrés e inestabilidad no permite a los jóvenes independizarse a edades tempranas por lo que acaba siendo o muy tardío o nunca llega el momento de plantearse tener hijos”. (Gizona, 25 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“Arazo handiena gaur egun independentzia ekonomikoa lortzea zaila dela da. Jendeak ez ditu seme-alabarik etxebizitza lortzeko zailtasunengatik eta prezioen igoeragatik. Lehen baino soldata handiagoa behar da bizitzeko...”. (Gizona, 28 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“El precio de la vivienda, los bajos sueldos en relación con la carestía de la vida, futuro poco prometedor, inestabilidad ... Son los principales factores para evitar plantearse crear familias”. (Gizona, 31 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“La precariedad laboral es el motivo principal de la reducción de la natalidad y en mi opinión no debería resolverse con ayudas gubernamentales, sino con la mejora de las condiciones laborales por parte del sector privado”. (Gizona, 29 urtekoa, seme-alabarik gabe)

“La situación socioeconómica de los jóvenes vascos y la problemática de la vivienda no permiten la emancipación, como para encima pensar en tener hijos...”. (Emakumea, 32 urtekoa, seme-alabarik gabe)

Ondorioak

Gizarte postindustrialean jaiotza-tasaren beherakada ezaugarri orokorra da. Nekazaritza-gizarte tradizionalen aurrean, non seme-alabak izatea beharrezkoa zen, lurretako eskulan produktibotzat balio zutelako eta zahartzaroa bermatzeko diru-sarrerak eta zaintzak ematen zituztelako, gaur egun, lan, pentsio eta zaintza sistemetan gertatutako aldaketen ondorioz, seme-alabak ez dira beharrezkoak norberaren ekonomiari dagokionez. Horrek, beste arrazoi batzuek gain (antisorgailuak orokortzea, abortua legeztatzea, emakumeek etxetik kanpo lan egiteko aukera izatea, etab.), familia-ereduak aldatzea, seme-alaben batez besteko kopurua murriztea eta seme-alabak izateari dagokionez birplanteatzea ekarri du.

Gainera, Euskadin, mendebaldeko gainerako gizarteetan bezala, genero-rolak neurri handi batean aldatu egin dira. Emakumeek onartu dute amatasuna ez dela betebeharra, eta uste dute, gaur egun ere, emakumeek pisu handiagoa hartzen dutela hazkuntzan, eta horrek aukerak kentzen dizkiela; beraz, emakume asko ez daude prest beren bizi-proiektuei uko egiteko, edozein motatakoak direla ere, seme-alaba bat hazteko.

Nolanahi ere, genero-rolen aldaketa ez da ulertu behar emakumeen amatasunarekiko erresistentzia gisa, baizik eta gizonen gehiago inplikatzeko eskaera gisa. Seme-alaba bat izateak hausnartutako eta partekatutako erabakia izan behar du, eta horrek berekin ekarri behar du bikoteko kideen artean hazkuntzak eta lana eta familia uztartzeak dakarten ahalegina zuzen banatzea.

Amatasunaren/aitatasunaren esperientziari erreparatzen badiogu (ama eta aita direnek kontatzen dute esperientzia hori), ikusiko dugu bizipen hori desberdina dela gizonen eta emakumeen artean. Oro har, emakumeek ondorio negatibo gehiago hautematen dituzte, bai familian, bai lanean. Seme-alabak izateak gizonak baino gehiago zigortzen ditu, eta amatasunak dakarren erantzukizunak zama handiagoa dakarkie.

Hala eta guztiz ere, Euskadiko 25-39 urteko emakume eta gizon gehienek seme-alabak izan nahi dituzte, eta diote seme edo alaba batek bizitza aberasten duela eta zoriontsuago bihurtzen dituela (edo bihurtuko lituzkeela uste dute).

Dagoeneko guraso diren edo egunen batean izan nahi duten adin horretako pertsona gehienek bi seme-alaba izatea gustatuko litzaiekeela adierazi dute. Emakumeak gizonak baino ezkorragoak dira nahi duten ume kopurura iristeari eta nahi duten adinean ama izateari dagokionez. Eta, batez ere, arrazoi ekonomiko eta laboralei egozten diete beren nahiak ezin betetzea.

Seme-alabarik izan nahi ez dutela diotenak gutxiengoa dira (gaur egun guraso ez diren 25-39 urteko pertsonen % 14,6 baino ez). Pertsona horiek argudiatzen dute, batez ere, bizitza beste proiektu batzuetan eman nahi dutela, edo nahiago dutela bakarrik edo bikotekidearekin bizi, baina, nolanahi ere, seme-alabarik gabe. Hori ez da norberekoikeria gisa interpretatzen, erabaki arduratsu eta, batez ere, aske gisa baizik.

Gainera, seme-alabarik izan nahi ez dutela adierazten duten pertsonen artean, erdiak baino gutxiagok esaten du erabaki hori irmoa dela. Gehiago dira egoera pertsonala aldatuko balitz birplanteatu ahalko luketenak (edo horri buruzko zalantzak dituztenak). Eta, aldaketa horretan, beren egoera ekonomikoa, lanekoa edo etxebizitza eskuratzekoa hobetzea aipatzen dute, baita, kasu batzuetan, seme-alabak izan nahi dituen bikotekide egonkor bat izatea ere.

Seme-alabak dituzten familientzako egungo laguntzei dagokienez, haurrak dituzten pertsonen esperientziari erreparatzen badiogu, ikusten dugu hobeto baloratzen direla kontziliazio-neurriak

ekonomikoak baino, azken horien zenbatekoak eta iraupena eskastzat jotzen baitira. 25 eta 39 urte bitarteko gurasoen ustez, familiei gehien laguntzen dieten neurriak haurtzaindegi publikoak (haurreskolak) dira, azken urteotan doako plaza-kopurua handitu baitute, eta, bestalde, aitatasunagatiko baja 16 astera arte luzatzea.

Etengabeko ziurgabetasunean bizi garela ondoriozta dezakegu. Gazteek berezkoa duten laneko eta emantzipazioko ziurgabetasuna areagotu egin da etxebizitza eskuratzeko eta ondasun eta zerbitzu guztien prezioak igotzeko arazoengatik. Horretaz gain, klima-aldaketaren, pandemien, gerren edo ultraeskuina boterera igotzearen aurrean mundu osoan dagoen ziurgabetasun-giroa dago, eta horrek ez du haurrak mundura ekartzea planteatzen laguntzen. Hala ere, Euskadiko 25-39 urteko pertsona gehienek seme-alabak izan nahi dituzte. Amatasunaren/aitatasunaren aldeko ingurune bat sortu behar da, eta, horretarako, lan-baldintzak hobetzea eskatzen da, lana eta familia uztartzeko erraztasun handiagoak ematea, bai lan-eremutik, bai haurrak zaintzeko zerbitzu publikoak, eta seme-alaba bakoitzeko egungo diru-laguntzen zenbatekoa eta iraupena handitzea.

Eranskina: Galdera-sorta

25 ETA 39 URTE BITARTEKO BIZTANLERIARI ZUZENDUTAKO IRITZI-INKESTA

2024ko azaroa-abendua

01.G- Adina (*Aukeratzeko 25 eta 39 artean*)

02.G- Sexua

- Gizona 1
- Emakumea 2
- Ez bitarra 3

03.G- Non bizi zara gaur egun?

- Araban 1
- Bizkaian 2
- Gipuzkoan 3
- Beste autonomia erkidego batean 4
- Europako beste herrialde batean 5
- Beste herrialde batean, Europatik kanpo 6

04.G- Eta non jaio zinen?

- Euskadin 1
- Beste autonomia erkidego batean 2
- Europar Batasuneko beste herrialde batean 3
- Europar Batasuneko ez den Europako beste herrialde batean 4
- Ipar Amerikan 5
- Latinoamerikan 6
- Afrikaren iparraldean 7
- Saharaz hegoaldeko Afrikan 8
- Asian 9
- Ozeanian 10

05.G- Zer mailatako ikasketak dituzu amaituta edo ari zara ikasten? Adierazi maila altuenetakoak.

- Lehen hezkuntza edo maila txikiagoa 1
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) edo baliokideak (Hasierako Lanbide Prestakuntza programa edo antzekoak) 2
- Batxilergoa 3
- Lanbide heziketako erdi-mailako zikloa (LH-I) 4
- Lanbide heziketako goi-mailako zikloa (LH-II) 5
- Graduoko unibertsitate ikasketak (medikuntza eta arkitektura barne) 6
- Goi-mailako arte ikasketak 7
- Graduondoko ikasketak (masterra, doktoretza...) 8
- Beste ikasketa mota batzuk 9

06.G- Gaur egun zein da zure zeregin nagusia?

- Ikastea bakarrik 1
- Batez ere ikastea, baina lan ere egiten duzu..... 2
- Batez ere lan egitea, baina ikasi ere egiten duzu 3
- Lan egitea bakarrik 4
- Langabezian zaude eta prestazioa jasotzen duzu 5
- Langabezian zaude eta ez duzu prestaziorik jasotzen..... 6
- Etxeko lanak edo familiakoen zaintza lanak egiten dituzu 7
- Beste egoera batean zaude 8

(BAKARRIK LANEAN ARI DIRENEI: 2-4, 06.Gn)

07.G- Zure egungo enpleguari dagokionez...

- | | Bai | Ez | Ez duzu erantzun nahi |
|---|--------|--------|-----------------------|
| -1. Egonkorra da?..... | 1..... | 2..... | 3 |
| -2. Ordutegi malgutasuna ematen dizu ? | 1..... | 2..... | 3 |
| -3. Telelanean aritzeko aukera ematen dizu? | 1..... | 2..... | 3 |

(DENEI)

08.G- Eta, zure baliabide ekonomikoei dagokienez, zein da zure gaurko egoera?

- Zure familiaren diru-sarreretatik bizi zara nagusiki, hau da, gurasoen, aitona-amonen edo beste senide batzuen diru-sarreretatik..... 1
- Zeure eta zure jatorrizko familiaren (aita, ama...) diru-sarreretatik, erdiz erdi, bizi zara 2
- Zeure diru-sarreretatik bizi zara nagusiki 3
- Zure bikotekidearen diru-sarreretatik bizi zara nagusiki 4
- Zeure eta zure bikotekidearen diru-sarreretatik, erdiz erdi, bizi zara 5
- Beste egoera batean zaude 6

09.G- Nola bizi zara? Zure jatorrizko familiarekin ala zure kabuz?

- Zure jatorrizko familiarekin bizi zara (gurasoekin, neba-arrebekin, aitona-amonekin...) 1
- Ez zara zure jatorrizko familiarekin bizi, baina bere dirua behar duzu (ikasleen pisan zaude...) 2
- Zure kabuz bizi zara, zeure diru-sarreretatik, emantzipatu zara 3
- Beste egoera batean zaude 4

(BAKARRIK BERE KONTURA BIZI DIRENEI: , 3, 09.Gn)

10.G- Zenbat urterekin joan zinen zure kontura bizitzera, zure diru-sarreretatik? (*Galdera irekia*)

11.G- Zure bikotekidearekin bizi zara?

- Bai..... 1
- Ez 2
- Gainerakoak (emantzipatu gabeak)..... 99

(BAKARRIK BERE BIKOTEKIDEAREKIN BIZI DIRENEI: 1, 11.Gn)

12.G- Zenbat urte ditu zure bikotekideak? (*Galdera irekia*)

13.G- Zenbat denbora daramazue harremanetan?

- Urte bat baino gutxiago..... 1
- 1 - 3 urte 2
- Hiru urte baino gehiago..... 3
- Ez duzu erantzun nahi 88
- Gainerakoak (ez da bikotekidearekin bizi)..... 99

14.G- Zure bikotekidea gizona, emakumea ala ez bitarra da?

- Gizona..... 1
- Emakumea 2
- Ez bitarra..... 3
- Ez duzu erantzun nahi 88
- Gainerakoak (ez da bikotekidearekin bizi)..... 99

(DENEI)

15.G- Seme-alabarik al duzu? Zenbat?

- 0..... 0
- 1..... 1
- 2..... 2
- 3..... 3
- 4..... 4
- 5 edo gehiago 5
- Haurdun zaude edo zure lehen seme-alabaren zain 6

16.G- Orik 10erako eskala erabiliz, zeinean 0a “garrantzirik ez” eta 10a “oso garrantzitsua” diren, zer garrantzi ematen diozu zure bizitzan seme-alabak izateari?

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Ez duzu erantzun nahi: 88

(SEME-ALABAREN BAT DUTENAK EDO BERE LEHEN SEME-ALABAREN ZAIN DAUDENAK 29.Gra JOAN, EZ BADUTE SEME-ALABARIK JARRAITU 17. Gn)

(SEME-ALABARIK EZ DUTENEI: 0, 15.Gn)

17.G- Eta gustatuko litzazuke zure bizitzako unerren batean seme-alabak izatea?

- Bai 1 *Jarraitu 18.Gn*
- Ez..... 2 *Joan hona: 24.G*
- Ez dakizu, ez duzu horretan pentsatu 3 *Joan hona: 27.G*
- Gainerakoak (badu seme-alabarik) 99

(SEME-ALABARIK EZ DUTEN BAINA IZAN NAHI DUTENEI: 1, 17Gn)

18.G- Zergatik izan nahi dituzu seme-alabak? Erabili Otik 10erako eskala, zeinean 0a “ezer ez” eta 10a “asko” diren, adierazteko seme-alabak izateko arrazoi hauetako bakoitzak zer neurritan eragiten dizun. (*Baieztapenen ordena ausaz biratu*) (*Ez badute erantzun nahi: 88*)

- 18.1- Seme edo alaba batek bizitza aberasten duela uste duzulako 0-10
- 18.2- Seme-alabak izatearen sen biologikoa sentitzen duzulako..... 0-10
- 18.3- Haurrak asko gustatzen zaizkizulako 0-10
- 18.4- Ama/aita izanda zoriontsuagoa izango zarela edo zure bizitzarekin gusturago egongo zarela uste duzulako 0-10
- 18.5- Zahartzen zarenean konpainia edo zutaz arduratuko den norbait izan nahi duzulako . 0-10
- 18.6- Zure familia-eredu idealean seme-alabak daudelako..... 0-10
- 18.7- Familiaren abizena edo ondasunak mantendu nahi dituzulako 0-10
- 18.8- Badakizulako zure bikotekideak seme-alabak izan nahi dituela 0-10

18.9.G- Ba al dago beste arrazoirik zuretzat garrantzitsua denik edo seme-alabak izateko duzun nahian eragin handia duenik? (*Galdera irekia*)

19.G- Zenbat urterekin eduki nahiko zenuke zure lehenengo seme-alaba? (*Galdera irekia*)

20.G- Eta uste al duzu zure lehen semea edo alaba adin horretan izango duzula?

- Bai 1
- Ez, lehenago izango duzula uste duzu..... 2
- Ez, beranduago izango duzula uste duzu 3
- Ez dakizu 4
- Gainerakoak (*ez dute seme-alabarik izan nahi, ez dute horretan pentsatu edo dagoeneko badute*) 99

21.G- Zenbat seme-alaba izan nahiko zenituzke? (*Galdera irekia*)

22.G- Eta zuk uste duzu seme-alaba kopuru hori izango duzula?

- Bai 1
- Ez, gehiago izango dituzula uste duzu 2
- Ez, gutxiago izango dituzula uste duzu 3
- Ez dakizu 4
- Gainerakoak (*ez dute izan nahi, ez dute pentsatu edo dagoeneko badute*) 99

(NAHI BAINO SEME-ALABA GUTXIAGO IZANGO DITUZTELA ETA/EDO NAHI DUTEN ADINEAN BAINO BERANDUAGO IZANGO DITUZTELA USTE DUTENEI: 3, 20.Gn edo 3, 22.Gn)

23.G- Zergatik uste duzu nahi baino seme-alaba gutxiago edo nahi baino beranduago izango dituzula? Markatu zure egoerarekin bat datozen aukera guztiak. *(Ez badute erantzun nahi: 88)*

- Arrazoi ekonomikoengatik (diru-sarrera baxuak dituzu, seme edo alaba bat haztea diru asko kostatzen da, etab.) 1
- Lan-arrazoiengatik (zailtasunak dituzu lan egonkorra izateko, kontziliatzeko, lanez aldatu nahi duzu, mailaz igo, lan-proiekturen bat gauzatu, etab.) 2
- Etxebizitza-arrazoiengatik (ez duzu etxebizitza propiorik, etxebizitza ez da egokia, etab.) 3
- Osasun edo antzutasunagatik 4
- Arrazoi pertsonalengatik (zure bikotekideak ez du nahi, ez duzu bikotekide egonkorrik eta ez duzu seme-alabarik bakarrik izan nahi, etab.) 5
- Adinagatik, uste duzu ez dizula denborarik emango 6
- Bestelako arrazoiengatik 7

(SEME-ALABAK IZAN NAHI DUTENAK 27.Gn JARRAITUKO DUTE)

(SEME-ALABARIK IZAN NAHI EZ DUTENEI: 2, 17Gn)

24.G- Zergatik ez duzu seme-alabarik izan nahi? Zenbateko pisua du, 0tik 10era, arrazoi hauetako bakoitzak seme-alabarik ez izateko hartu duzun erabakian? *(Baieztapenen ordena ausaz biratu)* *(Ez badute erantzun nahi: 88)*

- 24.1- Bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi duzulako 0-10
- 24.2- Seme-alabak oztopo direlako zure ibilbide profesionala garatzeko 0-10
- 24.3- Seme-alabak ondo zaintzeak erantzukizun handiegia dakarrelako 0-10
- 24.4- Seme-alabak haztea ekonomikoki oso garestia delako 0-10
- 24.5- Ez duzulako bikotekide egonkorrik eta ez duzu seme-alabarik bakarrik izan nahi 0-10
- 24.6- Seme-alabak izateak ondorio kaltegarriak izango lituzkeelako zure osasunean. 0-10
- 24.7- Zure bikotekideak ez duelako nahi 0-10
- 24.8- Gauzak dauden bezala (gerrak, klima-aldaketa, etab.) hobe delako ez ekartzea haurrik mundura 0-10
- 24.9- Haurrak ez zaizkizulako gustatzen 0-10
- 24.10- Ezin duzulako seme-alabarik izan eta ez duzulako adoptatu nahi 0-10
- 24.11- Bakarrik edo bikotekidearekin bizitzea nahiago duzulako, baina, nolanahi ere, seme-alabarik gabe 0-10
- 24.12- Ez duzulako familia-eredu patriarkala erreproduzitu nahi 0-10

24.13.G- Ba al dago zuretzat garrantzitsua den edo seme-alabarik ez izateko hartu duzun erabakian eragin handia duen beste arrazoiren bat? *(Galdera irekia)*

25.G- Uste duzu iritziz alda zenezakeela zure egoera aldatuko balitz?

- Bai, birplanteatu zenezake 1
- Ez, erabaki irmoa da..... 2
- Ez dakizu 3
- Gainerakoak (*seme-alabak dituzte edo izan nahi dituzte edo ez dute horretan pentsatu*)..... 99

(BIRPLANTEATUKO LEZAKETENEI: 1, 25.Gn)

26.G- Zer egoera edo egoerak aldatu beharko lirateke seme-alabak izatea erabaki dezazun?
(*Galdera irekia*)

(SEME-ALABAK NAHI IZAN ZEIN EZ, SEME-ALABARIK EZ DUTEN GUZTIEI)

27.G- Seme-alabak izan nahi dituzun ala ez alde batera utzita, adierazi zu zeu egoera hauetako bakoitzean zauden:

	Bai	Ez
27.1.G- Seme edo alaba bat hazten lagundu ahal dizun norbait duzu (aita/ama, neba-arrebak, etab.).....	1	2
27.2.G- Seme-alaba baten mantenu-gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahikoak dituzu.....	1	2
27.3.G- Gertuko familia (neba-arrebak, etab.) eta lagunartean seme-alabak dituen jendea dago.....	1	2
27.4.G- Familiak presio egiten dizu seme-alabak izateko edo behin eta berriz galdetzen dizu noiz izango dituzun	1	2

28.G- Seme-alabak izateko aukeraz ari garela, zenbateraino kezkatuko zintuzkete (asko, nahikoa, gutxi edo ezer ez) honako gai hauek? (*Baieztapenen ordena ausaz biratu*)

	Asko	Nahikoa	Gutxi	Ezer ez	Ez duzu erantzun nahi
28.1.G- Astirik zureztat ez izateak.....	1	2	3	4	88
28.2.G Zure bikote-harremana ahultzeak.....	1	2	3	4	88
28.3.G- Zure osasun fisikoa edo mentala kaltetzeak.....	1	2	3	4	88
28.4.G- Zure bizimodua aldatu beharrak.....	1	2	3	4	88
28.5.G- Zure proiektu profesionalak garatu ezin izateak	1	2	3	4	88
28.6.G- Zure lagunartea aldatu beharrak	1	2	3	4	88
28.7.G- Erostea ahalmena galtzeak	1	2	3	4	88
28.8.G- Guraso gisa jarduten ez jakiteak	1	2	3	4	88

(SEME-ALABARIK EZ DUTENEK 34.Gn JARRAITUKO DUTE)

(SEME-ALABAK DUTENEI ETA BERE LEHEN SEME-ALABAREN ZAIN DAUDENEI: 1-6, 15.Gn)

29.G- Zergatik erabaki duzu seme-alabak izatea? Erabili Otik 10era bitarteko eskala bat, non 0 ezer ez den eta 10 asko, adierazteko haurrak izateko arrazoi hauetako bakoitzak zuri zer neurritan eragiten dizun. (*Baieztapenen ordena ausaz biratu*) (*Ez badute erantzun nahi: 88*)

- 29.1.G- Uste duzulako seme edo alaba batek bizitza aberasten duela..... 0-10
- 29.2.G- Seme-alabak izateko sen biologikoa sentitzen zenuelako 0-10
- 29.3.G- Haurrak asko gustatzen zaizkizulako 0-10
- 29.4.G- Ama/aita izanda zoriontsuago izango zarela edo zure bizitzarekin gusturago egongo zarela uste duzulako 0-10
- 29.5.G- Zahartzen zarenean konpainia edo zutaz arduratuko den norbait izan nahi duzulako 0-10
- 29.6.G- Zure familia-eredu idealean seme-alabak daudelako 0-10
- 29.7.G- Familiaren abizena edo ondasunak mantendu nahi dituzulako 0-10
- 29.8.G- Bazenekielako zure bikotekideak seme-alabak izan nahi zituela 0-10

29.9.G- Ba al dago zuretzat garrantzitsua den edo seme-alabak izateko erabakian eragin handia izan duen beste arrazoiaren bat? (*Galdera irekia*)

30.G- Zenbat seme-alaba eduki nahiko zenituzke? (*Galdera irekia*) (*Ez badute erantzun nahi: 88*)

31.G- Eta uste duzu seme-alaba kopuru hori izango duzula?

- Bai 1
- Ez, gehiago izango dituzula uste duzu 2
- Ez, gutxiago izango duzula uste duzu..... 3
- Ez dakizu 4
- Gainerakoak (*ez dute seme-alabarik*) 99

(SEME-ALABAREN BAT DUTEN EDO ZAIN DAUDEN ARREN, NAHI BAINO SEME-ALABA GUTXIAGO IZANGO DITUZTELA USTE DUTENEI: 3, 31.Gn)

32.G- Zergatik uste duzu izango dituzula nahi baino seme-alaba gutxiago? Markatu zure egoerarekin bat datozen aukera guztiak. (*Ez badute erantzun nahi: 88*)

- Arrazoi ekonomikoengatik (diru-sarrera baxuak dituzu, seme edo alaba bat haztea diru asko kostatzen da, etab.) 1
- Lan-arrazoiengatik (zailtasunak dituzu lan egonkorra izateko, kontziliatzeko, lanez aldatu nahi duzu, mailaz igo, lan-proiekturen bat gauzatu, etab.) 2
- Etxebizitza-arrazoiengatik (ez duzu etxebizitza propiorik, etxebizitza ez da egokia, etab.) 3
- Osasun edo antzutasunagatik 4
- Arrazoi pertsonalengatik (zure bikotekideak ez du nahi, ez duzu bikotekide egonkorrik eta ez duzu seme-alabarik bakarrik izan nahi, etab.)..... 5
- Adinagatik, uste duzu ez dizula denborarik emango 6
- Bestelako arrazoiengatik 7

(BERE LEHEN SEME-ALABAREN ZAIN DAUDENEK 34.Gn JARRAITUKO DUTE)

(SEME-ALABAREN BAT DUTENEI: 1-5, 15.)

33.G- Jarraian, aita edo ama gisa duzun esperientzia pertsonalari dagokionez, adierazi zer neurritan zauden ados (oso ados, nahiko ados, ez oso ados edo batere ados ez) baieztapen hauekin.

	Oso ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez	Ez duzu erantzun nahi
33.1.G- Izututa sentitzen zara amatasunaren/ aitatasunaren erantzukizunen aurrean.....	1.....	2.....	3.....	4.....	88
33.2.G- Zure egoera emozionala hobetu egin da ama/aita zarenetik	1.....	2.....	3.....	4.....	88
33.3.G- Zure bikote-harremanak hobera egin du seme-alabak dituzunetik.....	1.....	2.....	3.....	4.....	88
33.4.G- Hazkuntzako eta etxeko lanen banaketa orekatua da zure bikotekidearekin	1.....	2.....	3.....	4.....	88

(SEME-ALABAREN BAT DUTEN ETA LAN EGITEN DUTENEI)

Eta zer neurritan zaude ados honako baieztapen hauekin?

	Oso ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez	Ez duzu erantzun nahi
33.5.G- Lanetik eratorritako estresak eragina du ama/aita gisa duzun ongizatean	1.....	2.....	3.....	4.....	88
33.6.G- Seme-alaben hazkuntzak eragindako estresak edo kezkek zure errendimendu profesionalari eragiten diote	1.....	2.....	3.....	4.....	88
33.7.G- Seme-alabak izateak eragin negatiboa du zure lan-aukeretan edo garapen profesionalerako aukeretan.....	1.....	2.....	3.....	4.....	88
33.8.G- Lanean eskaintzen dizkizuten kontziliazio- neurriak nahikoak dira	1.....	2.....	3.....	4.....	88

(DENEI)

34.G- Zure ustez, zenbat laguntzen diete seme-alabak dituzten familiei neurri hauek? Askok, nahikoa, gutxi edo ezer ez?

	Oso ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez	Ez duzu erantzun nahi
34.1.G- Amatasun-baimenaren iraupenak (16 aste) ...	1.....	2.....	3.....	4.....	88
34.2.G- Aitatasun-baimenaren iraupenak (16 aste)	1.....	2.....	3.....	4.....	88
34.3.G- Seme-alaba bakoitzeko hileko diru-laguntzen zenbatekoak (200 euro lehen eta bigarren seme edo alabarentzat)	1.....	2.....	3.....	4.....	88

34.4.G- Seme-alaba bakoitzeko hileko diru-laguntzen iraupenak (3 urtera arte, lehen eta bigarren seme edo alabarentzat)	1	2	3	4	88
34.5.G- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen duten pertsonentzako diru-laguntzak	1	2	3	4	88
34.6.G- Seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa hartzen duten pertsonentzako diru-laguntzak..	1	2	3	4	88
34.7.G- Seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatzeako diru-laguntzak.....	1	2	3	4	88
34.8.G- Haur-eskolen edo haurtzaindegi publikoen eskaintzak.....	1	2	3	4	88
34.9.G- Haurrentzako astialdi hezitzaileko programa publikoen eskaintzak, hala nola haurguneak eta kideguneak	1	2	3	4	88

35.G- Jarraian, adierazi zer neurritan zauden ados (oso ados, nahiko ados, ez oso ados edo batere ados ez) seme-alabak izateari buruz entzun ohi diren baieztapen hauetako bakoitzarekin.

	Oso ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez	Ez duzu erantzun nahi
35.1.G- Gaur egun ere, seme-alabak izateak etxeko lan-karga handiagoa dakar emakumeentzat gizonentzat baino.....	1	2	3	4	88
35.2.G- Gaur egun ere, seme-alabak izateak uko profesional handiagoa dakar emakumeentzat gizonentzat baino.....	1	2	3	4	88
35.3.G- Oraindik ere, emakumeek gizonen baino gehiago inplikatzeko dira seme-alaben hazkuntzan	1	2	3	4	88
35.4.G- Seme-alabak izateko presio sozial eta familiar handiagoa dago oraindik ere emakumeengan gizonengan baino	1	2	3	4	88
35.5.G- Gaur egun, pertsonen lehen baino erantzukizun handiagoz hartzen dute seme-alabak izateko edo ez izateko erabakia.....	1	2	3	4	88
35.6.G- Seme-alabarik ez duten pertsonak bere-koiagoak dira seme-alabak dituztenak baino	1	2	3	4	88

36.G- Gero eta beranduago izaten ditugu seme-alabak. Zure ustez, zein izan beharko litzateke seme-alabak izateko gehieneko adina emakumeen kasuan? (*Galdera irekia*)

37.G. Eta gizonen kasuan? (*Galdera irekia*)

38.G- Hori izan da dena. Beste zerbaite gehitu nahi duzu gai honi buruz? (*Galdera irekia*)